

Elkanoko Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa

– Master Amaierako Lana –

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterra.

Egilea: Ibai Iriarte Goñi

Zuzendariak: Iñaki Camino eta Blanca Urgell

Data:

Elkanoko Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa

LABURPENA

Lan honetan Elkanoko Joakin Lizarragaren lexikoa aztertzeko metodorik egokiena aurkitzen saiatu gara, Lizarragaren beraren lexikoa eta beste autore batzuenaz aztertzeko baliagarria izan dadin.

Bi saio desberdin egin ditugu, bi ikuspuntu desberdinetatik eta bi metodo desberdin erabiliz. Hala ere, bi saioek helburu eta aztergai berberak izan dituzte. Batetik, Lizarragarengan eragina izan zezaketen autoreen eragina azterzea (Larramendi, Mendiburu, Kardaberaz eta Axular). Bestetik, hego-nafarreraren erabilera eta, bukatzeko, hitz berri eta maileguak erabili eta egokitzeko estrategiak ezagutzea.

Helburu berak izan arren, saio bakoitzean jarraitutako metodologia berdina ez izateak eragina izan du lorturiko emaitzetan.

Lehendabiziko saioan lagin txikiagoa erabili dugu, corpus murriztagoa eta zenbakiak izan ditugu ardatz. Emaitzak modu “automatizatuago” batean lortu nahi izan ditugu eta, horretarako, jasotako lexikoa eta haren gaineko informazioa datu base batean bildu dugu eta bertatik eskuraturiko kopuruen bitartez, zein hitz zein iturritik (autoreak, ahozkoa) eta nola ikusi ahal izatea izan dugu helburu.

Bigarren saioan, corpora eta lagina handitu ditugu eta, berriro ere datu baseak erabili ditugun arren, filologia zehatzagoa egiten saiatu gara. Zenbakiak ere kontuan hartu ditugun arren, Lizarragaren item lexikoak izan dira ardatz eta oinarri filologiko sendoago batekin egin dugu lan.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Oinarri teorikoak.....	4
3. Protokolo metodologiko eta esperimentalak.....	14
4. Lehenengo saioa.....	15
4.1 Corpusa.....	15
4.2 Informazioa jasotzeko metodoa.....	17
4.3 Lehen saioaren azterketa.....	18
4.3.1 Lizarragaren iturriak.....	20
4.3.1.1 Larramendiren <i>Hiztegi Hirukoitza</i>	21
4.3.1.1.1 Soilik Larramendiren lanean.....	21
4.3.1.1.2 Larramendi eta Axularren lanetan.....	22
4.3.1.1.3 Larramendi eta Mendibururen lanetan.....	24
4.3.1.1.4 Larramendi eta Kardaberazen lanetan.....	26
4.3.1.1.5 Larramendi etiketa duten hitz guztiak.....	26
4.3.1.2 Mendiburu.....	28
4.3.1.2.1 Soilik Mendibururen lanean.....	28
4.3.1.2.2 Mendiburu eta Axularren lanetan.....	29
4.3.1.2.3 Mendiburu etiketa duten hitz guztiak.....	30
4.3.1.3 Kardaberaz.....	32
4.3.1.3.1 Soilik Kardaberazen lanean.....	32
4.3.1.3.2 Kardaberaz eta Axularren lanetan.....	32
4.3.1.3.3 Kardaberaz etiketa duten hitz guztiak.....	34
4.3.1.4 Axular.....	35
4.3.1.4.1 Soilik Axularren lanean.....	36
4.3.1.4.2 Axular eta Larramendiren lanetan.....	36
4.3.1.4.3 Axular eta Mendibururen lanetan.....	37
4.3.1.4.4 Axular eta Kardaberazen lanetan.....	38
4.3.1.4.5 Axular etiketa duten hitz guztiak.....	39
4.3.2 Hego Nafarreraren lexikoa.....	40
4.3.2.1 Erdialdeko hego-nafarrera.....	42
4.3.2.2 Ekialdeko hego-nafarrera.....	43

4.3.2.3 Hegoaldeko hego-nafarrera.....	44
4.3.2.4 Mendebaldeko hego-nafarrera.....	45
4.3.3 Lizarraga Elkanokoaren hitzak.....	46
4.3.3.1 Hapaxak.....	46
4.3.3.2 Lehen agerpenak.....	47
4.4 Lehen saioaren ondorioak.....	49
5. Bigarren saioa.....	51
5.1 Corpora.....	51
5.2 Informazioa jasotzeko metodoa.....	53
5.3 Azterketa.....	53
5.3.1 Lizarragaren iturriak.....	54
5.3.1.1 Mikroegitura.....	55
5.3.1.2 Erabilitako laburdurak.....	56
5.3.1.3 Corpusaren hitzez hitzeko azterketa.....	56
5.4 Bigarren saioaren ondorioak.....	78
6. Ondorioak.....	79
7. Bibliografia.....	81
8. Eranskina.....	89
8.1 Taulak.....	90
8.1.1 Autoreak.....	90
8.1.2 Dialektologia.....	111
8.1.3. Informazio osagarria.....	138
8.2. Dokumentu gehigarriak.....	158
8.2.1 Egunkara.....	158

1. Sarrera

Lan honen helburu nagusiak Elkanoko Joakin Lizarragaren lexikoa aztertzea eta beste autore batzuen lexikoa aztertzeko erabilgarria izanen den tresna edo metodoa eraikitzea dira. Euskal hizkuntzalaritza eta dialektologian oso gutxi landu izan da lexikoaren alderdia eta gauza bera gertatzen da Joakin Lizarragaren obrarekin. Hego-nafarrera hitz egiten zuen aldetik, Lizarragaren lana ezagutzeko ezinbestekoa da haren hizkera ezagutzea, baina horretarako arazo anitz dago, corpus eta datuen urria dela eta; halere, zenbait adituk bidea argitu dute eta hura apur bat urratzen saiatuko gara. Horretarako, Lizarragaren lexikoan eraginik handiena izan zezaketen autoreen lanekiko erkaketa egin dugu alde batetik eta, bestetik, erabilitako lexikoa hego-nafarreraren baitan kokatzen saiatu gara. Lexikologia eta lexikografia baliatuz, Lizarragaren obraren ikerketa filologiko-dialektologikoa egin dugu *OEHN* jasotako informazioa eta guk jasotako corpora oinarri hartuz.

Master Amaierako Lan (MAL) honetan, metodoari eman diogu garrantzirik handiena, lana aurrera eraman ahal izateko aurretiaz sorturiko metodorik ez baitugu ezagutzen. Bi saio desberdin egin ditugu, bi ikuspuntu desberdinetatik eta bi metodo desberdin erabiliz, baina helburu eta aztergai berberak oinarri hartuz.

Gauzak horrela, orain arte egindako ikerketak aurkeztuko ditugu lehenik (§2) eta, bertan, Lizarraga Elkanokoari, lexiko dialektalari eta hego-nafarrerari dagokienez. Ondoren (§3), protokolo metodologiko eta esperimentalari irekiko diogu tarte, baina bi metodo desberdin erabili ditugunez, puntu honetan hipotesiak eta planteaturiko helburuak jasoko ditugu eta metodologia saio bakoitzaren barnean azalduko dugu. Horien ondotik, lehendabiziko saioari helduko diogu (§4). Saioaren barnean, Corpora (§4.1), informazioa jasotzeko metodoa (§4.2) eta azterketa (§4.3) bildu ditugu, lehenik autoreak aztertuz (§4.3.1) eta ondoren hego-nafarrera (§4.3.2). Lehen saioarekin bukatzeko, bertatik ateratako ondorioak ekarriko ditugu (§4.4). Bigarren saioari ekinen diogu ondoren (§5), lehenik corpusaren inguruko informazioa emanez (§5.1), bigarren saioaren metodologia aurkeztuz (§5.2) eta egindako azterketa ekarriz (§5.3). Azkenik, bigarren saiotik ateratako ondorioak eta ondorio orokorrak emanen ditugu. Guztiaren ondoren, erabilitako bibliografia eta sakontzen laguntzeko eranskina aurkituko ditu irakurleak.

2. Status questionis

2.1. Esan liteke Joakin Lizarragaren obrak ez duela haren tamainaren besteko entzuterik izan euskal letren munduan. Bonaparte printzea izan zen hura ikuspegi linguistikotik aztertu zuen lehena (Apecechea, 1978: 2), hego-nafarrera aztertzeko hain zuzen ere. Are gehiago, euskalki hori hedadurarik handiena zuena zela aipatu zuen printzeak Inchausperi igorritako gutun batean (Riezu, 1958: 158). Zenbait buruhauste ere ekarri omen zizkion, 1872an D'Abbadieri honakoa adierazi baitzion: “Hegoaldeko goi nafarreraren aditzaren taulak hainbeste nekatu dit burmuina, non eta bere bukaera guztiak nire buru gaixoan iltzatzen diren orratz zorrotzak balira bezala sentitzen baititut” (Riezu, 1958: 158 (itzulpena nirea).

Lizarraga aztertu duten adituak ez dira, oro har, bat etorri haren hizkuntza kalifikatzeari dagokionez: [...] *bere yoskerak erderatiko kutsu bat badu; baina oso aberatsa da bestalde verboaren itzulietan, itzetan eta esakeretan ere* (Irigarai, 1959: 120). Lekuonarentzat, aldiz, Lizarraldeko apezekin alderaturik *resulta más gramatical, más cultivado, menos espontáneo, incluido* (sic), *sin duda, por Larramendi* (1973: 370). Aipatu beharra dago Lekuonak *Domingo Lizarraga de Elcano* bat aipatzen duela, baina Apececheak ere Joakinez ariko balitz bezala hartu zuen (1978: 266). Satrustegik (1981: 660) *aberatsa hizkuntza aldetik nahiz etnografia ikerketarako* dela dio. Policarpo Iraizozek hizkera zaindua erabiltzen zuten autoreen kontrakotzat dauka, haren ustez gaztelaniatiko hitz eta partikulak eragozpenik gabe eta askotan beharrik gabe erabiltzen baitzituen (1978: 245). Harendako, edonor asaldatzeko modukoa da egiten duen erdararen erabilera, ez soilik lexikoari dagokionez, baita gramatika eta sintaxiari dagokionez ere eta uste du edozeinek pentsa dezakeela ez duela pena merezi eredutzat hartu beharko ez litzatekeen autore bat aztertzeko (ibid.). Hala ere, Iruñerriko euskara ezagutzeko oso baliagarri diren datuak ere jasotzen dituela esaten du (ibid.). Bide beretik doa Salaberriren epaia ere, Lizarraga atsegin handiz irakurtzen duela dionean *ez, jakina, erakusten duten ortografia ederragatik edo egileak gaiak erabiltzeko zuen antze eta trebetasunagatik, han-hemenka aurkitzen ditugun bitxi linguistikoengatik, Iruñerriko euskararen berri ematen diguten erranairu, itzuli eta hitzengatik* baizik (2008: 597).

Azkuek oparo erabili zuen Lizarraga bere *Diccionario vasco-español-francés* eta *Morfología vasca* lanetan (Ondarra 1980: 108), baina ez zuen Lizarragaren lana bere osotasunean erabili, eskuizkribuak alde batera utzi eta argitaraturiko lanak besterik ez baitzituen baliatu (ibid.: 107). Villasantek ere tokia egin zion bere *Historia de la literatura vasca* lanean (1979: 237-239), Lizarraga erraldoi bakarti bat zela aipatuz (ibid.: 237) eta bere euskara *muy rico en palabras, especialmente navarras, giros y flexiones verbales* dela esanez (ibid.: 239). Dena dela, esan liteke Apecechea eta Ondarra izan direla gaur arte Lizarraga aztertu eta ezagutzera emateko ahaleginik handiena egin dutenak.

Apececheak 1975. urtean eman zuen argitara Lizarragarekin lotura duen bere lehendabiziko lana. Urte hartan, hiru sermoi argitaragaberen edizioa aurkeztu zuen autorearen hizkuntza eta bizitzaren gaineko zenbait datuekin batera. Handik hiru urtera, 1978an, bere tesia argitaratu zuen, lehendabiziko artikulu horretan sakonduz, Lizarragaren bizitza eta testuinguru historikoaren gaineko informazio xehea jasoz eta erlijio ideiak, corpusa eta hizkuntza aztertuz. 1978tik 1990era argitaraturiko artikulu sorta batean, zazpi sermoi eman zituen argitara *Fontes Linguae Vasconum (FLV)* aldizkarian. Bertan, sermoien edukiaz gain, Elkanokoaren lexikoa aztertu zuen, hitz zerrenda oso interesgarriak eskainiz. Zenbait edizio ere egin zituen, batzuetan bakarka —*Doctrina Christioaren Catechima* (1979, 2004) eta *Koplak* (1983)— eta beste batzuetan, *Jesukristo, Maria eta Santuen bizitzak* (1994) (*JMSB* aurrerantzean) bezala, F. Ondarrarekin batera. Apecechearen interesa hizkuntzalaritzatik haratago zegoen eta hala adierazi zuen behin baino gehiagotan: *[n]o nos parecía justo limitar el área de difusión de una obra cuyos valores desbordan los del campo estrictamente lingüístico* (1979: 27) edota [...] *Elkanoko Bikarioaren idazlanek euskarari buruzko balioa eta muga gainditzen dutenez gero, komenigarria iduritu zait gaztelaniara itzultzea* (1979b: 775).

Ondarrak ere hainbat lan eta artikulu argitaratu zituen Joakin Lizarragarekin loturik. Apecechearekin batera paraturiko edizioaren aurretik, *Producción literaria de Joaquín Lizarraga (1748-1835)* eman zuen argitara 1972. urtean. 1980an Lizarragak Azkueren hiztegian izandako eragina aztertu zuen eta 1984.ean, *Ongui iltzen laguntzeko itzgaiak* argitaratu zuen. Euskaltzainak argitaraturiko azken edizioa *Urteko Igande Guztietarako Prediku Laburrak* (1990) izan zen.

Fagoagak (1959) egin zuen Lizarragaren lexikoan oinarrituriko lehendabiziko hitz zerrenda, argitaratu gabeko bi eskuizkribu aztertuz. 1955ean, Azkueren hiztegia eguneratzeko egitasmoari hasiera eman zion Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenaren bitartez eta Fagoagaren helburua, hiztegi horretan jaso beharko liratekeen hitzak proposatzea zen. Horretarako, lekeitiarrak aurretik ere Lizarragaren lana erabilia zuela argudiatu zuen eta hark erabilitakoa Lizarragaren obraren zati bat besterik ez dela ikusarazi nahi izan zuen: *Azkue jaunak Lizarragaren liburu argitaratuak ongi ikuskatu zituen. Amaika nafar itz badaude aren Iztegian, Lizarragaren liburuetatik artuak. Baño Lizarragak, argitaratu baño, argitaratu ez diran liburu geiago ditu* (1959: 63). Pasarte horretan aipatutakoak berretsiko zituen Ondarrak (1980) ia hogeitun urte geroago. Hitzei buruzko informazio ugari jaso zuen Fagoagak:

ALTSAI. Azkue toma alsai de Araquitáin con el significado de ‘pastor’ y añade: “Debe de ser alzai”. Pero Lizarraga, hablando de la adoración de los pastores, les llama varias veces arzaiaik y poco antes usa alsaiac [...]. (1959: 64)

ANBATE: Cantidad (Larramendi) (ibid.: 65).

Urte eta aldizkari berean (*Euskera* 4), Irigaraik *Lizarraga Elkanokoa* artikulua argitaratu zuen eta bertan zenbait datu interesgarri bildu zituen, bitxi suertatu zitzaizkion hitz, esaldi eta aditzak zerrenda batean biltzearekin batera. Emandako datu guztiak ez dira zuzenak, bertan aipatzen baita Lizarraga Loiolan egon zela 1766. urtean (Irigarai, 1959: 120). Apececheak datu hori gezurtatu zuen (1978: 67-71) eta haren jatorria Felix Idoatek 1867an José Joaquin Ollori idatzitako gutun batean egon zitekeela idatzi zuen. Apececheak Mitxelenari (1960: 101, 102) egozten dio Idoateren datu oker horren lehen erabilera, baina, Irigaraik urtebete lehenago aipatu zuen Lizarraga Loiolan egonik zela eta, beraz, baliteke Mitxelenaren iturria Irigarairen 1959ko artikulua izatea. Hitzen eta esaldien inguruko informazioa ere ez da Fagoagak eskainitakoa bezain xehea. Gehienetan, itzulpen hutsa eskaintzen du, nahiz eta, noiz edo noiz hitzaren ingurunea edota oharrak ere txertatzen dituen:

Aisanaiaik “Comodones” (Irigarai, 1959: 124)

Beira nindégo erorcen Satanás ausnarria becala (Ausnarria “chispa, centella”. Traducción de Lucas 10, 18. *Videbam Satanam sicut fulgur de caelo cadentem*) (ibid.: 122).

Eztiote gezur egin gizionei (Bonaparte anota de su letra: *eztiozete?*) (ibid.: 126)

Lizarragaren lexikoa oinarri duen hitz zerrendarik luzeena, Policarpo Iraizozek (1978, 1979) egin zuen. Hitzak hautatzeko, baina, ez zuen Lizarragaren obra osoa aztertu, eskuizkribu bakarra baizik eta hori da lanaren gabeziarik handiena, autorearen garapena azterkizun geratu baitzen.

1981. urteko *Euskera* aldizkarian, Fermin Ixurkok Aldatzen (Larraun, Nafarroa) aurkituriko Elkanoko Joakin Lizarragaren eskuizkribu baten inguruko artikulua idatzi zuen. Bertan, eskuizkribuaren deskribapen fisikoa, edukiaren azalpena, balizko iturriak eta hitz zerrenda bat dakartza, baina azterketa sakonik egin gabe: *Ehun hitzetik goiti bada bilduman. Adieraz dudatzen banaiz, esaldi osoa ematen dut, uztatzen dakienak uzta dezan* (Ixurko, 1981: 336). Aurretik beste autore batzuek onduriko hitz zerrendetan jaso gabeko hitzak biltzen saiatu dela dio, baina ez zuen Fagoagaren lana aztertzeko aukerarik izan. Fagoagak jasotako zenbait hitz bildu arren, errepikaturikoen kopurua ez da oso handia (zortzi hitz besterik ez) eta gehienetan bat dator autore biek ematen duten definizioa, Ixurkorena hain xehea ez bada ere.

Patxi Salaberrik egin du Lizarragaren lexikoa aztertzeko azken saioa 2008an. Bere lanean, Lizarragaren eta haren iturri zein eraginaren gaineko datuak biltzen ditu, lexikoa, maileguak, deklinabidea, aditzen balentzia, aditz jokoa eta abar aztertuz. Lan horren eragozpenik handiena artikulua izateak ezartzen dion muga da.

2.2. Lexikoa nahiko modu apalean landu izan da euskal dialektologian, euskalkiak definitzerakoan askoz gehiago begiratu izan baitzaio aditz sistemari, morfologiari edo fonologiari. Dialektologia lanetan, askoz emankorragoa da fonologia aztertzeari, ezaugarri fonologiko bat aisago agertuko baita testu batean, item lexiko zehatz bat baino. Era berean, zail suertatzen da dialekto markatzaileak diren elementu lexikoak zein diren hautatzea (Peters, 1988: 398). Mitxelenak (1976) honakoa aipatu zuen: *lexikoak gehiegizko aldakortasuna eta asistematikotasuna ageri ditu* (ap. Camino, 2009: 378). Hori dela eta, zenbait adituk ez dute lexikoa baliatzeko aukera oso begiko

izan, baina, azken urteotan ikuspegi bat baino gehiago dagoen arren, banaketa dialektaletan lexikoa ere baliatzeko joera eta borondatea aski onetsia da (ibid.: 372). Esaterako, Zuazoren lanetan aldaketak daude: Arabako euskara aztertu zuenean (1989), lexikoari tartea egin zion Landucciren *Dictionarium Linguae Cantabrigiae* hiztegian jasotako hitzen geografiaz oharrak eginez eta toponimia, lekukotasun idatziak eta bestelako azterketa dialektalak baliatuz; 1998an ez zuen lexikoa baliatu eta 2003an, aldiz, berriro hartu zuen kontuan.

Hainbat azterketatan lexikoak markaturiko isoglosak bestelako ezaugarriek adierazitakoekin bat datozela ikusi ahal izan da. Besteak beste, Viereck-ek honakoa aipatu zuen 1977an: *Ameriketako ingelesean, esaterako, badirudi lexikoak, fonologiak eta morfologiak antzeko geografia eremuak harrapatzen dituztela* (Camino 2009: 373). Lexikoak emaitza erlatiboak eskain baditzake ere, eremu ugaritan bat datoz dialekto edo azpidialekto-muga eta isoglosa lexikoak eta hala gertatzen da, esaterako, Oltza zendeatik Eguesibarrera (ibid.: 385). Hala ikusi zuen Saurak (2003: 441) erdi Pirinioan gertatzen den katalan eta aragoieraren arteko hizkuntza aldaketa aztertu zuenean: [...] *la distribución que muestran algunos tipos léxicos [...] viene a reafirmar los análisis extraídos de los niveles fonético-fonológico y morfosintáctico*.

Hizkera muga horiek maparatzeko, oso baliagarria da dialektometria. Dialektometriak atlas linguistikoak erabiltzen ditu hizkerak sailkatzeko eta ezaugarri fonetikoak, sintaktikoak eta morfologikoak erabiltzeaz gain, lexikoa ere baliatzen du. Séguy (1973) izan zen lehena *dialektometria* izena aipatzen eta haren atzetik asko izan dira teoria horren baitan lan egin duten adituak. Guiterrekin batera, Goebel izan da esanguratsuenetariko bat eta honela definitu du dialektometria: *un amalgame bidisciplinaire réunissant les apports de la géolinguistique et de la taxonomie (ou taxinomie) numérique* (Goebel, 1981: 349). Zenbaki taxonomia (taxonomie numérique) diziplina estatistikoa da eta haren helburua, Goeblek jasotzen duenaren arabera, ezaugarri partekatuak dituen gizarte edo objektu talde bat azpitalde homogeneousotan banatzea da. Gurean, Gotzon Aurrekoetxea (1992) izan da dialektometria baliatu duen lehenetarikoa.

Zenbaitetan, zail izaten da hizkera taldeak lexikoaren arabera mugatzea, R. Álvarez, F. Dubert García eta X. Sousa Fernándezek (aurrerantzean Álvarez 2006)

aipatzen duten bezala, [...] *os límites que marcan as fronteiras de delimitación de dúas áreas que presentan distintos trazos lingüísticos en moi poucas ocasións coinciden con exactitude, pois, como sinalaba Jakob Grimm, cada palabra, cada trazo lingüístico, ten a súa historia particular* (2006: 461). Askotan, dialektoen eta ezaugarrien mugak ez datoz bat, baina kontuan izan beharra dago, batzuetan, eskusibo direnak ez direla ezaugarriak berak, haien konbinazioa baizik eta konbinazio horrek finkatzen ahal duela dialektoa. Ezaugarrien kopurua, baina, ez da finkoa eta kasuz kasu aldatu egiten da. Beste batzuetan ordea, ezaugarriak eskusiboak dira (zuberera, adibidez). Lexikoaren kasuan gauza bera gertatzen da eta, isoglosak finkatzeari dagokionez, Caminok (2009: 15), Hägerstrandek (1952) esandakoaren bidetik, hitzen edo ezaugarrien agerpenari berari begiratzea baino, haien erabilera maiztasunari begiratzea proposatzen du; nolabait, gradiente aldaketa balitz bezala irudikatzeko, muga marraz ezartzea gertakaria sobera soiltzea izan baitaiteke, haren ustez.

Maileguen kasuan, Petersek (1988: 412) agerpen kopuru absolutuari begiratzeaz gain, interesgarriago deritza duten funtzioari begiratzea. Horrela, mailegu bat “moda” izatetik egitura lexikoaren parte izatera igaro bada, delako dialektoak kanpo eragin handiagoa duela erakutsiko du eta dialektoek mailegukiko duten jarrera hiru taldetan biltzen du (ibid.): hizkuntzak dituen “hutsuneak” mailegukin betetzen dituzten dialektoak, barne mailegaketaren bidez betetzen dituztenak eta hizkuntzaren baliabideak erabiliz hitz berriak sortzen dituztenak.

Lexikoa aztertzeke, bi bide jarraitzen ahal dira: onomasiologikoa¹ eta semasiologikoa². Venyk (1963) bide semasiologikoa hartu zuen Mallorkako lexikoa aztertzen duen lanean, hitzaren ñabardura semantikoari eman nahi izan baitzion garrantzia gehiago, alderdi foniko edo morfologikoari baino. Gorago aipatu dugun Álvarezen (2006: 464) lanean, hitzen erroari begiratu zioten hizkerak banatu eta sailkatzerakoan eta berdin egin zuen Saurak (2003) ere. Distantzia lexikala, ordea, mapa onomasiologikoen bidez irudikatu ohi da (Camino, 2009: 457), baina zenbait kasutan baliteke ez izatea biderik emankorrena, tartean hiztunaren eta inkestatzailaren interpretazioa jokoan sartzen baitira, inkestaren formatua sar daitekeen bezala.

1 Onomasiologiak delako kontzeptu bat adierazteko erabiltzen diren hitzak aztertzen ditu. Nolabait, “nola adierazten da X?” galderari erantzuna bilatzen saiatzen da.

2 Semasiologiak hitzek hartzen duten esanahiari begiratzen dio. Onomasiologiaren oinarria kontzeptua bada, semasiologiarena hitzak dira; hots, “zer adierazten du X hitzak?” galdera erantzuten saiatzen da.

Middle English deritzonaren lexikoa aztertzeko, hiru bide nagusi jarraitu dira (Peters 1988: 407): Kaiser-ek (1937) genero eta garai bereko testuak alderatuz, hitzen geografia aztertu zuen, baina haien semantikari tarte urria utziz; Rynell-ek (1948) semantikari garrantzi gehiago eskaini zion, mailegu eskandinaviarrek ingelesaren berezko ordainetan izan zuten eragina aztertu baitzuen, baina hitzen geografiari buruzko aipamenak bigarren mailan utziz. Hirugarren bideak *Middle English*aren corpusean kontzeptu bat adierazteko erabiltzen diren bitartekoak aztertzen ditu ikuspegi diatopiko batetik; hirugarren bide horrek, nolabait, *EHH*Aren metodologia testu zaharrei aplikatzea proposatzen du.


Euskal Herrian badira lexiko dialektalarekin loturiko zenbait egitasmo. Nagusienak *OEH*, *EHHA* eta *EAEL* dira. Lehenak ikuspegi diakronikoa eskaintzen du eta idatzizko lekukotasunean du oinarria; eta beste biak sinkronikoak dira, inkesta bidez eginikoak. Lan horiek oinarri harturik, lexikoa aztertzen duten zenbait lan argitaratu dira. Esaterako, Allières-ek (1995) zenbait hitzen banaketa geografikoa aztertu zuen *EAEL*n jasotako informazioa baliatuz, baina azpi-dialektoei jaramon handirik egin gabe. Dialektometriari dagokionez, gorago aipatu dugun Aurrekoetxearen (1992) lana baitezpadakoa da eta, gaur-gaurkoz oso bide oparoa izan ez bada ere, beste lan batzuek bidea ireki zuen. Azkenaldiko euskarari buruzko lan dialektologikoetan lexikoari tarte eskaini ohi zaio, nahiz eta, ikusi ahal izan dugunagatik, ohitura azken lekuan aurkeztea den; hala da, behintzat, Nafarroako hizkerak aztertzen dituzten zenbait lanetan: Erdozia (2001), Montoya (2003), Zelaieta (2008)...

2.3. Nafarroako euskara bi euskalki beregainetan zatitu zuen Bonapartek (ipar eta hego), baina, besteak beste, Caminok (2003, 2004), Ibarrek (1995, 2000) edota Zuazok (1998) egin ikerketek bestela sailkatzea egokiago dela erakutsi dute. Zenbait hizkuntza-ezaugarri aztertu eta gero, Nafarrera bere barnean bi azpi-dialekto biltzen dituen euskalki bakar bat dela erakutsi dute.

Iparreko aldakia ongi azterturik dago, hari buruzko lan ugari egin baita; baina gure lanak hegoaldeari begira jartzea eskatzen du eta egoera ez da bera. Erdiguneko euskalkia izanik, aztertu eta sailkatzeko eremu zaila izateaz gain, azken mende eta erdian euskarak bertan jasandako atzerakadak eta ezagutzen den lekukotasun kopuru urriak haren azterketa biziki zailtzen du. Iñaki Camino izan da hego-nafarrera gehien

aztertu duen adituetariko bat, bere *Hego-nafarrera* (2004) baita gaiarekin loturik egin den lanik zabalena. Corpus zabala (lekukotasun gutxikoa izanik ere) jaso zuen, hego-nafarrerak hartu ohi zuen eremu ia guztia betez: Bonapartek (1869) jasotakoetatik hasi eta Ibarak (2000) egindako inkestetara (Camino, 2004: 33-34), toponimoak (ibid.: 41-42), idazkiak (ibid.: 42-50) eta beste zenbait hizkuntza azterketa (ibid.: 50-52) ahaztu gabe.

Corpus hori azterturik, hizkeren artean alde handirik ikusten ez duen arren (2004: 111), lau hizkera banatzen ditu Caminok (2003: 462-464 & 2004: 149-152): 1- ekialdeko hego-nafarrera (Aezkoako euskara biltzen duena); 2- erdialdeko hego-nafarrera (Eguesibar, Artzibar, hego Esteribar eta Erroibar); 3- hegoaldeko hego-nafarrera (Izarbeibar); 4- mendebaldeko hego-nafarrera (Gesalaz, Goñerria, Ollaran eta Oltza).



1. ilustrazioa: Hego-nafarrera

2.3.1. Aezkoako hizkerari dagokionez, ezin utzizkoa da Caminoren (1997) *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Bertan, autoreak ibar horrek ingurukoekin izan duen harremana azaltzen du, artean, baita gure lanarekin lotura duen Eguesibarrekin ere, aetzek Iruñera joateko erabiltzen zituzten bideetarik anitz bertatik igarotzen baitziren (ibid.: 105-106). Hala ere, lan horretan tarte gutxi eskaini zitzaion lexikoari, bestelako alderdiek hartu tartearekin alderaturik. Urte batzuk lehenago, Cavodevillak (1991) arreta handiagoa eskaini zion lexikoari, baina Aezkoan erabiltzen zenaren bilduma sinkronikoa eratu zuen, bertan erabiltzen ziren hitzen itzulpena ematera mugatuz eta erabilera eremua, jatorria eta antzekoen gaineko iruzkinik egin gabe. Adituek hainbat euskalkirekin lotu izan dute Aezkoako euskara historikoki (Nafarroa Beherearekin batez ere) eta, horien artetik, Lafon (1955: 121) izan zen hegoaldeko goi-nafarrerarekin ezaugarri eskusiboak partekatzen dituela adierazi zuen lehena. Caminok 2004ko lanean horixe berresten du, nahiz eta Nafarroa Beherearen eragina antzematen dela esan (2004: 144).

2.3.2. Erdialdeko hego-nafarreraren baitan, Artzibarko hizkeraren inguruan bi adituren lana iruditu zaigu aipagarrien: Koldo Artolaren (2006 - 2014) artikulua sorta eta

Aitor Aranaren (2004) hiztegia. Lehenak Artzibarko aldakia inguruko hizkerekin alderatzen du eta zenbait etnotestu argitaratu. Bigarrena hiztegi interesgarria da, baina ez du informazio handirik eskaintzen hitzen jatorriari, erabilera maiztasunari edota geografia hedadurari buruz. Dena dela, hitzen alor semantikoari buruzko informazioa dakar (zoologia, nekazaritza...). Erroibar eta Esteribarko hizkeren lexikoari dagokionez, Orreaga Ibarra da haiek xehekien aztertu dituen ikertzailea. Besteren artean, Bonapartek *cispamplonés* deituriko hizkera (1995) eta Erroibarko eta Esteribarkoak (2000) aztertu zituen; lexikoa oinarri hartuz, Erroibar, Esteribar eta Anueko hizkerak alderatu zituen (2006); eta Erroibarko eta Esteribarko hiztegia (2007) osatu zuen. Bere azterketetatik heldu emaitzak Caminok (2003, 2004) proposaturiko banaketarekin bat datoz. Eguesibarri dagokionez, Elkano herriko euskara izan da gehien aztertu dena Bonaparterengandik hasita, egundaino. Bertako hizkeraren ordezkari nagusia, espero zitekeen bezala, Joakin Lizarraga da gorago aipatu dugun bezala (§3.1), eta zenbait lan egin izan dira bere lexikoa aztertzeko. Beherago azalduko dugunez, jautzia ikusten da Eguesibarko hizkeratik mendebalera geratzen zaion Oltzakora. Gauza bera gertatzen da ipar-mendebaldean dagoen Ezkabartekoarekin, baina hego Esteribarrera begira jarriz gero, gauzak aldatu egiten dira, antzekotasunak nabarmenak dira eta (Camino 2004: 139).

2.3.3. Hegoaldeko hego-nafarrerak Izarbeibarko euskara du ordezkari, hots, Adios, Añorbe, Biurrun, Eneritz, Gares Legarda, Muruzabal, Obanos, Olkutz, Tirapu, Ukar eta Uterga herrietan egiten zena. Euskal letretan, Utergako Beriainen (1621, 1626) lanak dira gehien ezagutu eta landu izan direnak (Camino eta Lakarra (1993), Ondarra (1985), Jimeno Jurio (1988), etab.), baina bada bestelako lekukotasun esanguratsurik ere (Bonapartek Garesen bildutako datuak edota Ukarko kristau ikasbidea esaterako), nahiz eta, alderdi honetako beste hizkera askorekin gertatu bezala, ezin esan daitekeen lekukotasun horien kopurua asetzeko modukoa denik. Garesko lekukotasunetan jasotako hizkuntza aski bereizirik ikusten da gainerako Izarbeibarkoetatik, baina lexikoak herri guztien hizkuntza moldeen artean nolabaiteko batasuna erakusten du eta eskura dauden datuekin, zentzuzkoena herri guztiak hizkera beraren barrenean biltzea dirudi (Camino, 2004: 119-122).

3.3.4. Mendebaldeko hego-nafarreraren kasuan, aski zail suertatu zitzaion Caminori (2004) Gesalaz, Goñerria, Ollaran eta Oltzako hizkerak bilduko zituen

hizkeraren mugak zehaztea. Horietatik guztietatik, Goñerriko euskara da hobekien ezagutzen dena, Bonaparteren (1869) inkestei eta gorde diren lekukotasunei esker. Horrekin batera, Caminok (2004: 48-49) egindako testuen hautaketak hizkeraren deskribapena oinarri sendoen gainean finkatzen laguntzen du. Hori dela eta, esan liteke Goñerrikoa dela hizkera honen *aingura-hizkera*, hots, hizkera osatzen duten azpi-hizkerak Goñerrikoarekiko erkaketaren bidez bildu direla mendebaldeko hego-nafarreraren taldera. Gesalazko euskara oso ongi ezagutzen ez den arren, ezagutzen diren lekukotasun urriek Goñerrikoarekiko lotura handiagoa erakusten dute Izarbeibarkoarekiko baino; batetik, adizkiek ez dutelako Izarbeibarkoek adinako nortasunik eta, bestetik, aditz laguntzaileek Goñerrikoekiko lotura nabarmena erakusten dutelako (Camino 2004: 124). Ollarani dagokionez, zinez zailagoa da Arakilekin edo mendebaldeko hego-nafarrerarekin batera doan erabakitzea. Caminok (2004: 124-130) hego-nafarrerarekin lotzen du eta Arakilgo mintzoa mendebaldeko hego-nafarreratik at uzteko argudioak ere ematen ditu. Oso urriak dira Ollarango lexikoari buruzko datuak eta hego-nafarreraren azterketa horretan ez dira kontuan hartu. Oltzara igaroz, gehienetan Goñerriarekin batera doa eta, lexikoari dagokionez, muga nabarmena ikusten da Oltzatik Eguesibarrera, nahiz eta zenbait kasutan Oltzako hitzak ekialdera begira dauden (Camino, 2004: 136). Jarraian, aipatu jauzia irudikatzen duten zenbait hitz ekarri ditugu Eguesibar, Gares, Oltza, Goñerria hurrenkeran emanik (Camino, 1999: 18):

25 - *gau, gori, gura / au, ori, ura / au, ori, oré / au, ori, oré.*

26 - *gibelatu, atzeratu / atzeratu / atzeratu / atzeratu³.*

27 - *gora, altu / altu / altu / altu.*

28 - *ispiku 'lavanda' / esplego / ixkiripuru / ixkiripuru.*

29 - *istarzain 'iztazaina' / istarzain / zangazpi / zangazpi.*

3 Bonapartek *gibel* eta *atze* bildu zituen Goñin.

3. Protokolo metodologiko eta esperimentalak

Lan honen helburu nagusiak Elkanoko Joakin Lizarragaren lexikoa aztertzea eta beste autore batzuen lexikoa aztertzeko erabilgarria izanen den tresna edo metodoa eraikitzea dira. Lexikologia⁴ eta lexikografia⁵ baliatuz, Lizarragaren obraren ikerketa filologiko-dialektologikoa egin nahi dugu erabilitako hitzen jatorria, historia eta geografia-hedadura aztertuz. Besteren artean, ikerketaren emaitzek garai horretako Iruñerriko euskararen ezaugarriak ezagutzeko parada emanen digute. Honako Master Amaierako Lana, Joakin Lizarragaren lexikoa aztertzeko doktoretza tesi baten aurreneko urratsa da eta, askotan, planteaturiko helburuek idazlan honen ezaugarriak gaindituko dituzte. Ikerketak, bere osotasunean, bestelako azpi-helburu edo azpi-ikergai inplizituak ere baditu; hala nola, jakin nahi dugu garai hartako Eguesibarko euskara zein hizkerari begira zegoen, zer norainoko eragina zuen Iruñeak inguruko hizkeretan edota zein ziren garai hartako euskararen polo nagusiak Nafarroan.

Proiektuaren helburua ez da hiztegi soil bat egitea. Item lexikoak izanen dira lanaren oinarri, baina haien bitartez azterketa filologiko, dialektologiko eta ahalaz soziolinguistikoa egitea dugu helburu. Lizarragak erabilitako hitzen historia eta geografia hedadura aztertuko ditugu. Eguesibarko hizkeratik hartutako hitzak, literatur tradizioetik ekarritakoak (Axular...) eta Larramendiren lanetatik hartutakoak (*Hiztegi Hirukoitza...*) bereiziko ditugu eta, horrekin batera, Lizarragaren beraren hitzberrigintza eta mailegaketaren parametroak aztertuko ditugu. Honako lana, asmo horien guztien lehen froga izanen da.

Gure lanak asko izanen du filologiatik, XVIII. mendeko idazle baten lana aztertu nahi dugun heinean, nahitaez murgildu beharko baitugu hizkuntzaren alderdi diakroniko eta historikoan. Hala, aurrerago zehaztuko dugun moduan, Elkanokoaren lexikoa filologiaren ikuspegitik ere aztertuko dugu, eta, horretarako, baitezpadakoa izanen da haren aurreko zein ondoko beste euskal idazle batzuen lana ezagutzea, hitzek historian osatu duten ibilbidea arakatze aldera. Lehen urrats honetan, Lizarragarengan eraginik handiena izan zezaketen autore eta lanekiko erkaketa egin dugu. Lehen Euskara Modernoan (LEM) idatzi zuen idazlea da Joakin Lizarraga eta, hortaz, Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzari (HH)* begiratuko diogu lehenik. Larramendiren jarraitzaile izan

4 Lexikoa ikuspegi orokor eta zientifiko batetik aztertzen duen jakintza arloa.

5 Lexikoa helburu praktikoa batekin aztertzen duen jakintza arloa (hiztegiak osatzea).

ziren Kardaberazek eta Mendiburuk euskarazko liburu elebakar ugari eman zituzten argitara (Urgell 2013: 567) eta [b]ien eraginpean idatziko dute hurrengo belaunaldiko idazle guztiek (Urgell, 2013: 655). Horrez gain, badakigu Lizarragak Axularren *Gero* liburuaren ale bat zuela bere liburutegian (Apecechea, 1978: 20) eta, horregatik, autore horren eragina ere aztertuko dugu.

Bestalde, Eguesibar aldeko hitzak bereiziko ditugu (erdialdeko hego-nafarrera) eta baita kanpo eraginaren ondorioz sartutakoak ere. Beste langaietako bat izanen da Eguesibarko lexikoa geografiari eta dialektologiari begira aztertzea. Erdigunetik gertuko hizkera bat da Eguesibarkoa, eta zehatz-mehatz aztertuko dugu nora begira ote dagoen hango lexikoa. Horretarako, Nafarroa Garaiko beste eskualde batzuei begira jarri beharko dugu ezinbestean: Esteribar-Erroibar, Elortzibar, Artzibar, Urraul, Aezkoa, Zaraitzu, Baztan-Bidasoa... Eta baita Ipar Euskal Herriari begira ere. Pirinioen alde bietako hizkeren arteko eragina aztertzeak interes handia du, eraginaren norabidea eta indarra neurtzeko.

Gorago aipatu dugun bezala, autore klasikoen lanak aztertzeko metodologia egoki bat aurkeztea ere bada gure helburuetariko bat eta metodo berri bat eraikitzen ari garen heinean, espero izatekoa da batzuetan asmatzea eta beste batzuetan kale egitea. Gauzak horrela, gorago aipatu dugun bezala, bi saio edo azterketa egin ditugu bi metodo desberdin erabiliz eta horiek aurkeztuko ditugu jarraian.

4. Lehenengo saioa

4.1 Corpora

Honako lana osatzeko, Apececheak 1978ko lanean aipaturiko lanak aztertu ditugu. Ahal izan dugun iturrietara jo dugu batzuetan aurrez aurre eta beste kasu batzuetan digitalizaturiko bertsioak baliatuz (ikus bibliografia). Gorago aipatu bezala, Joakin Lizarragaren c. 1793-1813 garaiko lanak aztertu ditugu batez ere —*Jesukristo, Maria eta Santuen bizitzak* (Apecechea eta Ondarra, 1994), *Doctrina Christioaren Catechima* (Apecechea, 1979) eta *Aita Asteteren Catechima* (1810)— eta edizioen egokitasuna berretsi ondotik, *JMSB* lanetik hautaturiko pasarte batetik eskuratu dugu lehendabiziko lagina.

Lehen saiorako, *JMSB*en hasierako 20 puntuak hartu eta bertan jasotako hitz guztiak zerrenda batera ekarri ditugu (~2.800 hitz ezberdin) eta horietatik *a-* eta *b-*

hizkiez hasten direnak hartu ditugu (~600 hitz). Zerrenda horretatik izen bereziak eta aditz laguntzaileak kendu ondotik, 237 hitzeko zerrenda geratu zaigu.

Hitzok *OEHN* bilatu ditugu adierari, dialektologiari eta autoreei buruzko informazioa eskuratzeko. Lizarragaren eredu edota iturri izan zitezkeen Larramendi, Mendiburu, Kardaberaz eta Axularrek egindako hitzaren erabilerari erreparatu diogu, autore bakoitzak delako hitza erabili zuenetz ikusiz eta, erabiltzekotan, adiera berdinarekin egin ote zuenetz aztertuz. Aurkitu ahal izan dugunez, hitz batzuetan *OEHk* ez du erabilera edo adierari dagokion informazio guztia jaso eta, askotan, jatorrizko lanetara ere jo behar izan dugu hitz edo aldaera bati buruzko informazioa osatzeko. Honakoak izan ditugu eskuartean: Larramendiren *HH*ren faksimilea, Mendibururen *Igande eta festegunetarako irakurraldiak (Igande aurrerantzean)* Patxi Altunak paraturik, Kardaberazen *Jesus, Maria eta Joseren devocioa, edo iru persona divino oien equiazco amorioaren* faksimilea (*Debozioa* aurrerantzean) eta Axularren *Geroren* faksimilea.

Bestalde, Lizarragak erabilitako hitzek hego-nafarreran zuten hedadurari begiratu diogu eta, horretarako, Iñaki Caminok eskura jarritako corpusa baliatu dugu: Aleson (1863), Beriain (1626, 1980), Elizalde (1994), Kerejeta (1991), Ondarra (1981, 1991, 1993), Pagola (1994), Pagola, Iribar & Iribar (1997), Salaberri (1996) eta Satrustegi (1987, 1990a, 1990b eta 1991). Testu horien guztien hitzak Caminok (2004) proposaturiko lau hizkeratara (§2) bildu ditugu zerrenda banatan eta, ondoren, Lizarragaren testuekin osaturiko zerrendarekin alderatu. Hizkeren artean alde handia dago corpusaren tamainari dagokionez eta hori agerian geratzen da zerrendetara bildu hitz kopuruari begiratzean. Ekialdeko hego-nafarrerak eta Aezkerak eremu geografiko bera hartzen dute eta, horregatik, *OEHN* “Ae” marka duten hitzak sartu ditugu talde horretara. Horrek ezinezko bihurtu du corpus horren baitan bildutako hitzen kopurua ezagutzea, hitz edo aldaera bati etiketa hori ezartzeko erabilitako irizpideak xeheki ezagutzeko aukerarik izan ez dugulako. Gainerako hizkerari dagokienez, honakoak dira *a-* eta *b-* hizkiez hasitako hitzen kopuruak:

Mendebaldeko hego-nafarrera	Erdialdeko hego-nafarrera	Hegoaldeko hego-nafarrera
425	258	2028

1. taula: hego-nafarreraren zerrendetara bildutako hitzen kopurua hizkeraka.

Ikusten denez, corpus asimetrikoa daukagu eskuartean: hegoaldeko hego-nafarreraren zerrenda kasik erdialdekoa halako zortzi da eta mendebaldekoa halako bost. Hortaz, espero izatekoa da emaitzetan hegoaldeko hego-nafarrerak gainerako hizkerek baino agerpen gehiago izatea.

4.2 Informazioa jasotzeko metodoa

Lehenik eta behin, aztertutako 237 hitzak *OEH*ko sarrera buruen arabera lematizatu ditugu, haiekin lan egitea ahalik eta errazena izan dadin. Askotan erabiliko dugun tresna izanik, lemak *OEH*n agertzen diren sarrera buruen arabera ezartzea erabaki dugu, aurrerago bilaketak egiteko lagungarria izanen zaigulakoan.

Endika Blancoren (2013) lanari ere erreparatu diogu eta, horretan oinarrituz, hitzen izaera markatu dugu, bost taldetan banaturik: *ondare zaharrekoak*, *eratorriak*, *konposatuak*, *mailegu zaharrak* edo *mailegu berriak*. Mailegu zaharren taldean latina, gaskoia edota aitzin erromantzetik hartutakoak sartu ditugu. Mailegu berrietan, aldiz, erdaretatik (gaztelania eta frantsesa) hartutakoak.

Eraginak aztertzerakoan, ongi bereizi nahi dugu zer hartu zuen beste egile batzuegandik, zer herritik (Eguesibarko ahozko euskaratik, esan nahi baita) eta zer izan zen berak sortua. Horrez gain, bere lanetan erabilitako lexikoaren izaera ere ezagutu nahi dugu eta, horregatik, honako alderdiei ere erreparatu diegu:

- Hitza orokorra den ala ez (*OEH*n “gral.” marka ezarri zaion).
- Hitzak hego-nafarrerazko gure corpusean agerpenik duen.
- Hitza zer motatakoa den (ondare zaharra...).

Jaso nahi dugun informazioa zein den erabaki ondoren, datu base bat eratu dugu “LibreOffice Base” programa erabiliz, gerora, kontsulten bitartez, datuak errazago eskuratu ahal izateko. Programa horrek kontsultak egiteko eta emaitzak kalkulu orri edota testu dokumentu batera ateratzeko aukera ematen du. Datuak sartzea erosoagoa izan dadin, inprimaki bat sor daiteke:

Hitza										OEH			
<input type="text"/>										<input type="text"/>			
V	G	AN	L	B	BN	Ae	Sal	S	R	Dialekto+			
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="text"/>			
Mota										Lar	Mb	Cb	Ax
<input type="text" value="Erabilia"/>										<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Autoreak+										HH			
<input type="text"/>										<input type="text"/>			
<input type="checkbox"/> MHN <input type="checkbox"/> ErdHN <input type="checkbox"/> EkiHN										HNaf+			
<input type="checkbox"/> HHN										<input type="text"/>			
Adiera										Kategoria			
<input type="text"/>										<input type="text" value="Izena"/>			
<input type="checkbox"/> Ondare zah.		<input type="checkbox"/> Eratorriak		<input type="checkbox"/> Konposatua		<input type="checkbox"/> Mailegu zah.		<input type="checkbox"/> Mailegu berr.		<input type="checkbox"/> Sailkagabe		<input type="checkbox"/> Zalantzakoa	

2. ilustrazioa: Datuak sartzeko inprimakia

Oinarrizko informazioa jasotzeaz gain, bestelako informazio interesgarria gehitzeko tartea ere utzi dugu, *Dialekto+*, “Autoreak+” eta “HNaf+”, dialektologiari, idatzizko iturriei edota hego-nafarrerari dagozkionak hurrenez hurren. Adibidez, hitz bat orokorra bada baina iparraldean erabiliagoa, informazio hori “Dialekto+” hutsunean jaso dugu; hitz bat guk aztertutako idatzizko iturriek ez badute erabiltzen, baina Beriainek bai “Autoreak+”-en; edo hego-nafarrerarekin loturik, Lizarragaren lanean “bi” jaso badugu baina hego-nafarrerako corpusean “bi” eta “bida” agertzen badira. Azaltzen ari garena hobeki ikusi eta ulertzeko, hona hemen datuak jasotzen dituen taularen adibide bat:

Hitz a	OE H	Adi era	Mot a	V	G	AN	L	B	BN	Ae	Sal	S	R	Dial ekt o+	Lar	Mb	Cb	Ax	Aut ore ak+	HH	On dar e zah .	Era torri ak	Ko npo sat ua	Mail egu zah	Mail egu ber r	Kat ego ria	Erd HN	MH N	HH N	Eki HN	HN af+
adia razi 2	adie razi 4	Sim boli zar	Era bil ia	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Mb "adir azi"		<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Adit za	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	
adin	adin	eda d	Era bil ia	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	gral.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Izen a	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
adiñ a	adin a	tant o com o	Era bil ia	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Part ikul a	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
adis kide	adis kide	ami go	Era bil ia	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	gral.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Izen a	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	

3. Ilustrazioa: hitzen inguruko informazioa

Datu horiekin, kontsultak egin ditugu ondoren, esaterako, “Lar” etiketa bakarrik zuten hitzak zein diren ikusiz, edota orokorrak “gral.” markaren bitartez, bilatzen genuenaren arabera. Hurrengo puntuan azterketatik heldu emaitzak aztertuko ditugu.

4.3 Lehen saioaren azterketa

Jasotakoak kontuan hartuta, honakoak dira laginaren kopuru absolutuak:

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
237	56 (%23,6)	Hego: 141 (%59,4)	Ondare zaharrekoak 127 (%53,6)
		Erdi: 47 (%19,8)	Eratorkiak 27 (%11,3)
		Mend.: 56 (%23,6)	Konposatuak 15 (%6,3)
		Ekiald.: 87 (%36,7)	Mailegu zaharrak 45 (%18,9)
		Gutzira: 161 (%67,9)	Mailegu berriak 24 (%10,1)

2. taula: Lizarragarendik jasotako lexikoaren sailkapena.

Taulak erakusten duenez, *OEHN* “gral.” etiketa hartzen duten hitzak hego-nafarrerako hiztat har daitezkeenak baino gutxiago dira gure corpusean (56 vs 161 hurrenez hurren). Datuei xehekiago begiratu diegu eta ikusi ahal izan dugu “gral.” marka hartzen duten hitz guztiak hego-nafarreran ere agertzen direla. Horrek bi ondorio ateratzera eramán gaitu: batetik, *OEHk* adierazi bezala, hitzok benetan orokorrak direla eta, bestetik, hego-nafarreraren baitako hizkerak ez zeudela erabat isolaturik, hots, gainerako euskalkiekin partekaturiko lexikoa bazutela hein handi batean. Gorago aipatu dugu, corpusaren ezaugarriak direla eta, espero izatekoa zela hegoaldeko hego-nafarrerak agerpen kopururik handiena izatea eta halaxe da, 141 hitz bildu baitira hizkera horren corpusean. Ekialdekoa bigarren postuan legoke 87 agerpenekin, mendebaldekoa hirugarrenean (56) eta erdialdekoa azkenekoan (47). Hala ere, horrek ez du esan nahi Lizarragak batez ere hegoaldeko aldaera erabili zuenik. Are gehiago,

hizkera bakoitzaren zerrendatik erabilitako hitzen ehunekoari begiratzen badiogu, proportzioak bestelakoak dira erabat⁶:

Hegoaldeko hego-nafarrera	Erdialdeko hego-nafarrera	Mendebaldeko hego-nafarrera
%6,9	%18,2	%13,1

3. taula: zerrenda bakoitzetik Lizarragak erabilitako hitzen ehunekoa

Aurrerago, xeheki aztertuko ditugu hego-nafarreraren baitako hizkerei dagozkien datuak, baina ematen du Lizarragak bere eskualdeko (erdialdeko hego-nafarrera) lexikoa erabili zuela batez ere edo, behintzat, eskualde horretako testuek erabiltzen dutenetik oso gertukoa.

Jasotako hitzen nolakotasunari begiraturaz gero, ikusiko dugu Lizarragak gehien erabiltzen dituen hitzak ondare zaharrekoak direla (%49) alde nabarmenarekin eta bigarren kopururik altuena mailegu zaharrei dagokiela (%18,9). Hitz eratorri eta konposatuen kopuru apalak herritarrei zuzenduriko hizkuntza erabili zuela erakutsiko luke, Sarasolaren hitzak gogoan: [...] *bada hizkuntza guztietan halako lotura hertsia bat idazkera jasoaren eta hitz eratorrien eta elkartuen ugaritasunaren artean; hots, hitz eratorri eta elkartuen ehuneko garaiak, hizkuntza landua, beregaina eta nolabait jasoa adierazten du* (Sarasola, 1997: 635).

4.3.1 Lizarragaren iturriak

Badakigu Joakin Lizarragak ez zuela soilik Eguesibarko lexikoa baliatu. Jakina da Larramendiren lana ezagun zuela, Lizarragak, *HH*ren ale baten jabe izateaz gain, andoaindarra esplizituki aipatzen duelako (1810: 5) eta haren eragina nabari delako. Horren alde egingen luke ere Axularren *Geroren* ale bat edukitzeak, Larramendik zerikusi handia izan baitzuen Axular Hegoaldeko kulturen hedatzearekin (Urgell 1991). Axularrek berak beste idazle batzuen ereduak baliatu zituen bere lanetan, hala nola, Materra edo Leizarraga (Salaberri Muñoa 2000) eta, hortaz, espero izatekoa da Lizarragak ere ereduren bat baliatuko zuela idazterakoan. Bestalde, literarioaz haratagoko eragina egotzi bazaio ere, ezin utzizkoa da Mendibururen hizkuntza eragina aztertzea. Jakin baitakigu Mendiburu eta Lizarraga elkarrekin egon zirela Iruñeko apaizgaitegian, lehena bertako irakasle eta bigarrena ikasle zirela (Apecechea 1974: 16). Baliteke Mendiburu izatea Lizarraga euskaraz idaztera bultzatu eta eredu eman ziona,

6 Kontuan izan ekialdeko zerrendarik ez dugula osatu eta, hortaz, ezin dugula kalkulua egin.

baina, harekin batera, ezin Kardaberaz ahaztu (Apecechea, 1978: 50; Fonseca, 1862: 61), bi irakasle horiek izan baitziren euskararen sustatzaile nagusiak Anunciadaren Eskolan (Iruñea):

[...] dice el P. Perez Goyena que una de las glorias del colegio de la Anunciada fue «el fomento de la hermosa lengua vascongada con los libros inmortales de Mendiburu y Cardaveraz» (Apecechea, 1978: 51).

Gauzak horrela, Lizarragarengan eragin handiena izan zezaketen Larramendi, Mendiburu, Kardaberaz eta Axularren lanetan jasotako lexikoa Elkanokoaren lanetik ateratakoarekin alderatu dugu. Lehenago aipatu bezala, *OEHN* jasotako informazioa baliatu dugu, baina, horrez gain, autoreen lanak eskuratu ditugu eta, askotan, bilaketak lanotan egin ditugu zuzenean.

4.3.1.1 Larramendiren Hiztegi Hirukoitza

Lizarragaren lexikoarekin osatu dugun 237 hitzeko zerrendatik, 161ek daukate “Lar” etiketa. Larramendirekin partekaturiko lexikoa aztertzeko, alderaketak zenbait modutara egin ditugu. Lehenik eta behin, soilik Larramendiren lanean (ez Mendibururen, ez Kardaberaren ezta Axularren lanetan ere) agertzen diren hitzen kopurua ikusiko dugu (§4.3.1.1.1). Ondoren, Iparralde eta Hegoaldeko tradizioak alde alde jarriko ditugu Larramendi eta Axularren lanetan agertutako hitzekin. Batetik, bi autoreen lanetan ageri diren hitzak aztertuko ditugu (§4.3.1.1.2) eta, ondoren, Larramendik bai eta Axularrek erabili ez zituenak (§4.3.1.1.3) jarriko ditugu aurrez aurre. Horren atzetik, Larramendi Mendibururekin (§4.3.1.1.4) eta Kardaberazekin (§4.3.1.1.5) alderatuko dugu, autore horiekiko bat etortzeak aztertzeko eta, bukatzeko, autore guztiek erabili dituzten hitzak ekarriko ditugu gure azterketara. Hitzak zehazki zein izan diren ezagutu nahi duenak, lan honen bukaerako eranskinean aurkituko du xehetasun gehiago.

4.3.1.1.1 Soilik Larramendiren lanean

25 hitzek daramate “Lar” etiketa bakarrik: *adiarazi*, *amagarria*, *amalur*, *amatasuna*, *ameka*, *antxume*, *argibegi*, *argi emanzalea*, *argi ta garbi*, *ar-lauza*, *arrosa koloreak*, *aurzai*, *baita*, *baketzea*, *baño*, *bedratzi*, *bekala*, *berex*, *bortz*, *botatu* eta *burrubarrik*⁷. Honakoak dira haien ezaugarriak:

⁷ Batzuetan, hitza bi adiera ezberdinekin jaso dugu idatzizko iturri berebeteen (Larramendiren kasuan, *adiarazi* eta *adiarazi* 2). Halakoetan, hitza behin bakarrik aipatu dugu, eranskinean xehetasun guztiak jasorik baitaude.

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreraren ⁸	Mota
25	1 (%4)	9 (%36)	Ondare zaharrekoak 12 (%52)
			Erorriak 4 (%16)
			Konposatuak 6 (%24)
			Mailegu zaharrak 1 (%4)
			Mailegu berriak 1 (%4)

4. taula: soilik HHn

Larramendiren lanean guk erabilitako hego-nafarreraren corpusetik jasotako bederatzi hitz edo aldaera agertzen dira eta hitz orokorrek agerpen bakarria dute. Horrek erakutsiko luke Larramendik askotariko euskalki eta hizkeretako hitzak bildu zituela bere lanera (Urgell, 2000: 217, 373), baita hego-nafarrera bezalako bazterreko hizkera batenak ere (cf. *bekala*), eta, beraz, baldin eta Lizarragak *HH* baliatu bazuen, espero izatekoa da beste hizkeretako lexikoa ere aurkituko dugula azterketan aitzina egin ahala.

Larramendiren lanean soilik agertzen diren hitzen artean, ia erdia (%48) ondare zaharreko hitzak dira eta, kasu honetan, kopuru absolutuetan ez bezala, oso alde txikia dago erorri eta konposatuekiko (%40 bien artean). Mailegu zaharren eta *-tu* atzizkidun aditzen (ondare zaharrekoak zein maileguan oinarritutakoak) kopurua oso baxua da, agerpen bana baitu hiru taldeetariko bakoitzak. Hori oso bitxia da, gainerako alderaketetan ikusiko den bezala, mailegu zaharren kopurua egon ohi baita bigarren lekuan

4.3.1.1.2 Larramendi eta Axularren lanetan⁹

Lizarragaren garaian, ipar eta hegoaldeko tradizioen ordezkariak har ditzakegu Larramendi eta Axular. Lehenaren eragina iparraldera ere iritsi zen arren (Urgell, 2013: 582), ezin utzizkoa izan zen hegoaldean maila bateko autoreen artean eta bigarrena iparralde osoko eredu izan zen euskalkiaren autore gailenatarikoa dugu (Mounole & Gomez, 2018: 482, 484). Horregatik, haien lanetan agertzen diren hitzei ere begiratu diegu. Lehenik eta behin, bi lanetan agertzen diren hitzak zein diren ezagutuko dugu: *abendu, aberats, abisu, adin, adiskide, adoratu, agertu, agitz, agur, aide, ain, aipatu, aita, aizina, akabatu, ala, alaber, alako, aldakatik, aldare, aldarte, aldatze, alde, alde,*

8 Taula hauetan, hego-nafarrerari dagozkion datuak elkarrekin ematea hobetsi dugu, irakurleari datuak prozesatzea ahalik eta gehien errazteko. Dena dela, irakurle zolienek jakin-mina asetzeko parada dute eranskinean gehitutako tauletara joz.

9 Kasu honetan ez dugu kontuan hartu Mendiburuk edo Kardaberazek hitzok erabili dituzten ala ez.

alegratu, alke, altxatu, ama, an, andi, anitz, anparo, antzu, apart, apostolu, aragi, argatik, argia, arima, arka, arratsalde, arreba, artu, artzai, asi, aski, asko, aur, azi, azkenean, bada, bai, bakar, bake, bana, baratus, bat, batere, batzarrean, bear, beldur, berreun, berri, berriz, berze, besarkatu, beso, bestiturik, bezperetan, bi, bide, bigarren, bila, bildu, biotz, birjin, bisitatus, bitartean, bitarteko, bizi, bizio, borondate, bortxaz, borz, bota, boto, buruan.

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
90	42 (%46,6)	83 (%92,2)	Ondare zaharrekoak 53 (%58,8)
			Eratorkiak 6 (%6,6)
			Konposatuak 5 (%5,5)
			Mailegu zaharrak 20 (%22,2)
			Mailegu berriak 5 (%5,5)

5. taula: HHn eta Geron agertzen diren hitzak

Bietan aurki daitezkeen hitzen artean, ia erdia orokorrak dira. Autore hauen lexikoak hego-nafarreran bat egiten duela ematen du, hitz gehienak bertako corpusean jasorik baitaude, baina hori ez da erabat egia: espero izatekoa da bat etortze kopururik handienak hego-nafarreraren baitan edukitzea, alderaketarako erabilitako lexikoak bertako idazle baten lanean baitu jatorria, eta hizkera horren lexikoa izanen da nagusi. Gainera, ez dugu ahaztu behar hego-nafarreran agertzeak ez duela zertan bertako eskusiboa denik esan nahi. Hitz asko orokorrak izatera iritsi ez arren, hedadura zabalekoak baitira.

Hitzen motari dagokionez, ondare zaharreko hitzetan dute bat etortze kopururik handiena Larramendik eta Axularrek. Mailegu zaharrak dira bigarren, baina oso alde handia dago bien artean (ia %40). Gainerako hitz motei dagokionez, ez dute %10eko langa gaintzen.


Larramendiren lanean bai eta Axularrenean agertzen ez diren hitzak gutxiago dira eta zenbait daturi dagokienez, alde nabarmena erakusten dute. Alderaketa hau eginez, autoreen lexikoa zehatzago ezagutzea dugu helburu, iparraldeko eta hegoaldeko autoreek komunean dituztenak hitz orokorrak baitira eta alderdi batekoei bestekoenak kenduz, eskusiboagoak direnak atzemanen ditugulakoan. Honakoak dira hitzak: *adiarazi, adiña, admiratu, ageri, agian, ajola, akomodatu, alaere, ala nola, alegria,*

alík, amagarria, amalaur, amatasuna, amatu, amazale, ameka, amore, ansiatu, antxume, ara non, argibegi, argi emanzalea, argi ta garbi, argitasun, ar-lauza, arrosa koloreak, asarre, asto, atari, au, aurdun, aurpegia, aurzai, auxe, azertatu, baita, baitare, baizik, baketzea, banidade, baño, bara, barkatu, barkazio, bataioan, batera, bedeikatu, bedratzi, bekala, bekatari, bekatu, beñere, berbera, bereala, berex, berez, bete, beti, biaje, birtute, bizturik, bortz, botatu, bukatu, burrunbarik, buru.

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
68	9 (%12,5)	45 (%62,5)	Ondare zaharrekoak 34 (%50)
			Eratorkiak 7 (%10,2)
			Konposatuak 8 (%11,7)
			Mailegu zaharrak 12 (%17,6)
			Mailegu berriak 7 (%10,2)

6. taula: HHn bai, Geron ez

Ehunekoek nabarmen egiten dute behera bai hitz orokorrei eta baita hego-nafarreran ageri direnei dagokienez. Kasu honetan, *OEH*ren informazio dialektologikoa kontuan hartuz, aztertutako lexikoa mendebaldeko hizkerekin lerratzen dela ikus dezakegu. 1. ilustrazioan, euskalki banaketa oso sinplea eginez¹⁰, agerpenak geografikoki kokatu nahi izan ditugu: alderdi ilunenek agerpen gehiago daudela adierazten dute eta argienek horiek urriagoak direla. Nabarmen geratzen da Bizkai eta Gipuzkoako hizkeretako lexikoa dela nagusi, baina hego eta mendebaldeko hego-nafarreraren agerpenak ere ugariak dira.



4. Ilustrazioa: HHn bai, Geron ez

Hitz motei dagokienez, ondare zaharrekoen ehunekoak behera egin du eratorri eta konposatuen alde. Mailegu zaharrenen kopuruak ez du aldaketa handirik jasan, baina berrienek gora egin dute %5etik %10era.

¹⁰ Banaketa administratiboak izan ditugu oinarri, ez hizkuntzarenak eta, beraz, euskalki eta hizkeren mugak ez dira oso zehatzak.

4.3.1.1.3 Larramendi eta Mendibururen lanetan

Gorago aipatu dugun bezala, Mendiburu Larramendiren jarraitzailea izan zen eta baita Lizarraga idaztera bultzatu zuenatariko bat. Aldeak alde, Lizarraga bi autore hauengandik gertu egotea espero genezake eta, horrez gain, bat etortze maila handia Larramendi eta Mendibururen artean, lexikoari dagokionez behintzat. Hitzak honakoak dira: *abendu, aberats, adin, adiña, adiskide, adoratu, ageri, agertu, agian, agitz, agur, aide, ain, aipatu, aita, aizina, ajola, akabatu, ala, alaere, alako, aldakatik, aldare, aldarte, aldatze, alde, alik, alke, ama, amore, an, andi, anitz, apostolu, aragi, ara non, argia, argitasun, arima, arka, arratsalde, arreba, artu, artzai, asarre, asi, aski, asko, asto, atari, au, aur, aurdun, aurpegia, auxe, azi, azkenean, bada, bai, baizik, bakar, bake, bana, barkatu, barkazio, bat, bataioan, batere, bear, bedeikatu, bekatari, bekatu, beldur, berbera, bereala, berez, berreun, berri, berriz 1, besarkatu, beso, bete, beti, bezperetan, bi, bide, bigarren, bila, bildu, biotz, birjin, birtute, bisitatus, bitartean, bizi, bizturik, borondate, bortxaz, bota, bukatu, buru, buruan.*

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
106	50 (%47,1)	97 (%91,5)	Ondare zaharrekoak 69 (%65,1)
			Erorriak 9 (%8,4)
			Konposatuak 4 (%3,7)
			Mailegu zaharrak 22 (%20,6)
			Mailegu berriak 2 (%1,8)

7. taula: HH eta Mendiburu.

Larramendik Mendibururekin du bat etortze kopururik handiena, Kardaberazengandik oso gertu. Gainerako autoreekin bezala, bat datozen hitzen ia erdia orokorrak dira eta kopuru oso altua agertzen da hego-nafarreraren corpusean. Datuok erakutsiko lukete, garai hartan, Larramendiren jarraitzaileek eremu zabalean erabiltzen zen hizkuntza erabiltzea hobesten zutela, lexiko dialektalaren erabilera urria erakusten baitu hitzen %47 orokorra izateak. Kopuru horri orokorrak ez diren, baina eremu zabalekoak diren hitzak gehituko bagenizkio, aisa gaintutuko lukete ehuneko berrogeita hamarra.

Bat datozen hitzen gehiengoa ondare zaharreko hitzak dira eta erorri eta konposatuak oso gutxi dira (%10etik beheiti). Gainerako autoreetan jasotakoa baino

ehuneko altuagoa daukate mailegu zaharrek alderaketa honetan. Hortaz, esan liteke Larramendi eta Mendiburu batzen dituen lexikoa erdaren eraginaren aurrekoa dela (%65,1). Are gehiago, bi mailegu berri besterik ez dira jaso. Hortaz, hain zabaldurik dagoen ustearen kontra, Larramendiren jarraitzaileek hitz berriak baliatu bai, baina euskararen berezko hitzak ugariago erabiltzen zituztela erakutsiko lukete kopuruok.

4.3.1.1.4 Larramendi eta Kardaberaz lanetan

Kardaberaz ere, Mendiburu bezala, Larramendiren jarraitzaile zen eta hori ezagun dute datuek: *abendu, aberats, abisu, adiña, adiskide, admiratu, agertu, agian, agitz, agur, aide, ain, aita, ajola, akabatu, akomodatu, ala, alako, ala nola, aldare, aldarte, aldatze, alde, alegratu, alegria, altxatu, ama, amatu, amazale, amore, an, andi, anparo, ansiatu, aragi, argatik, argia, arima, arka, arratsalde, arreba, artu, artzai, asarre, asi, asko, asto, atari, au, aur, aurdun, auxe, azertatu, azi, azkenean, bai, baitare, baizik, bakar, bana, banidade, bara, barkatu, barkazio, bat, bataioan, batera, batere, bear, bedeikatu, bekatari, beñere, bereala, berez, berreun, berri, berriz, besarkatu, beso, bete, beti, bi, biaje, bide, bigarren, bila, bildu, biotz, birjin, birtute, bitartean, bitarteko, bizi, bizio, bota, boto, bukatu, buru, buruan.*

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
103	48 (%46,6)	91 (%88,3)	Ondare zaharrekoak 60 (%59,1)
			Eratorkiak 7 (%6,7)
			Konposatuak 6 (%5,8)
			Mailegu zaharrak 21 (%19,8)
			Mailegu berriak 9 (%8,6)

8. taula: HHn eta Kardaberaz.

Larramendi eta Kardaberaz lanak alderatzean lorturiko datuak oso antzekoak dira Mendibururekiko alderaketatik lortutakoekin. Bat datozen hitzen kopurua apur bat jaisten da eta orokorrek eta hego-nafarreran agertzen direnek puntu bana gutxiago daukate.

Ondare zaharreko hitzen kopurua pixka bat baxuagoa da bigarren kasu honetan, eta konposatuena altuagoa. Begi bistakoa da Mendiburuk eta Kardaberazek molde edo eredu bera erabiltzen zutela idazterakoan eta hemen agerturiko datuek horren alde egingen lukete.

4.3.1.1.5 Larramendi etiketa duten hitz guztiak


Bukatzeko, honakoak dira “Lar” etiketa duten 161 hitzak. Idatzizko iturri guztien artetik, agerpen kopururik handiena duena da: *abendu, aberats, abisu, adiarazi, adin, adiña, adiskide, admiratu, adonatu, ageri, agertu, agian, agitz, agur, aide, ain, aipatu, aita, aizina, ajola, akabatu, akomodatu, ala, alaber, alaere, alako, ala nola, aldakatik, aldare, aldarte, aldatze, alde, alegratu, alegria, alik, alke, altxatu, ama, amagarria, amalaur, amatasuna, amatu, amazale, ameka, amore, an, andi, anitz, anparo, ansiatu, antxume, antzu, apart, apostolu, aragi, ara non, argatik, argia, argibegi, argi emanzalea, argi ta garbi, argitasun, arima, arka, ar-lauza, arratsalde, arreba, arrosa koloreak, artu, artzai, asarre, asi, aski, asko, asto, atari, au, aur, aurdun, aurpegia, aurzai, auxe, azertatu, azi, azkenean, bada, bai, baita, baitare, baizik, bakar, bake, baketzea, bana, banidade, baño, bara, baratus, barkatu, barkazio, bat, bataioan, batera, batere, batzarrean, bear, bedeikatu, bedratzi, bekala, bekatari, bekatu, beldur, beñere, berbera, bereala, berex, berez, berreun, berri, berze, besarkatu, beso, bestiturik, bete, beti, bezperetan, bi, biaje, bide, bigarren, bila, bildu, biotz, birjin, birtute, bisitatus, bitartean, bitarteko, bizi, bizio, bizturik, borondate, bortxaz, bortz, borz, bota, botatu, boto, bukatu, burrunbarik, buru, buruan*

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
161	74 (%45,9)	127 (%78,8)	Ondare zaharrekoak 89 (%54,2)
			Eratorkiak 14 (%8,6)
			Konposatuak 14 (%8,6)
			Mailegu zaharrak 32 (%19,8)
			Mailegu berriak 12 (%7,4)

9. taula: Larramendi.

Hitz orokorrei begiraten badiegu, ehunekorik altuena eskuratzen du Larramendik, baina oso alde gutxi dago idatzizko iturri guztien artean. Hego-nafarreran ageri diren hitzen ehunekoa aldiz, baxuena da. Agerpenak mapa batean jarriz gero, ikusiko dugu batez ere hego-mendebaldeko hitzak ageri direla.

Ikus daitekeenez, ondare zaharreko hitzak dira nagusi, nahiz eta autore guztien artetik daturik apalena izan. Eratorri eta konposatuak kopuru bera dute eta biak elkartuz gero mailegu zaharrak gainditzen dituzte baina oso tarte estuagatik. Aipatzekoa da konposatuen ehunekorik altuena eta mailegu zaharren baxuena dagozkiola Larramendiri.



5. Ilustrazioa: Larramendi

4.3.1.2 Mendiburu

Jarraian, Mendibururekin partekaturiko lexikoari begiratuko diogu. Guztira, gure zerrendako 117 hitz agertzen dira Mendibururen lanetan. Aurreko puntuan zenbait alderaketa egin ditugu eta, datuak ez errepikatzeagatik, Mendiburu ardatz duten alderaketak gutxiago dira; zehazki, Mendibururen lanetan soilik agertzen den lexikoa (§4.3.2.2.1) eta Axularrekin partekatzen dituen (§4.3.2.1.2) eta ez dituen (§4.3.2.1.3) hitzak aztertuko ditugu.

4.3.1.2.1 Soilik Mendibururen lanean

Oso hitz gutxi dira Mendibururen lanean soilik agertzen direnak. Kontuan izan behar dugu, gorago aipatu bezala, autore hau Larramendiren egitasmoaren baitan kokatu behar dugula eta, hortaz, lexiko dialektal gutxi espero dezakegula haren lanetan. *Admirable, agitu, agoztto, bizikide*.

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
4	0	1 (%25)	Ondare zaharrekoak 2 (%50) Konposatuak 1 (%25) Mailegu berriak 1 (%25)

10. taula: Mendiburuk bakarrik.

Bakarrik Mendibururekin partekaturiko hitzetan ez da orokorrik ageri eta hego-nafarreran jasotako bat aurki dezakegu. Mendiburu oiartzuarra izanik eta haren hizkera nafarreratik gertukoa (gutxienez Larramendi eta Kardaberazena baino gertukoagoa),

Lizarragaren eta haren artean lexiko partekatu ugari egotea espero dezakegu, baina Mendibururenak Larramendi eta Kardaberazekiko duen antzekotasunak “berea soilik” den lexikoa nabarmen murrizten du.

Taularatu lau hitz horietarik bi ondare zaharrekoak dira eta beste bietatik bat konposatua eta bestea mailegu berria. Dena dela, datuok ez dute esanahi askorik, oso kopuru txikiekin ari baikara lanean. Datuak ikusita eta Larramendirekin partekatutakoen kopurua buruan izanik, esan liteke azken horrek proposaturiko “estandarizazioari” jarraitzen dion autorea dela Mendiburu.

4.3.1.2.2 Mendiburu eta Axularren lanetan

Mendiburu eta Axularren lanetan agertzen diren hitzei erreparatuz, ikusten ahal dugu Larramendirekin alderatzean lortu ditugun oso antzekoak direla: *abendu, aberats, adin, adiskide, adoratu, agertu, agitz, agur, aide, ain, aipatu, aita, aizina, akabatu, ala, alako, aldakatik, aldare, aldarte, aldatze, alde, alderat, alke, ama, an, andi, anitz, apostolu, aragi, argia, arima, arka, arratsalde, arreba, artu, artzai, asi, aski, asko, aur, azi, azkenean, bada, bai, bakar, bake, bana, bat, batere, bear, beiti, beldur, berreun, berri, berriz, besarkatu, beso, bezperetan, bi, bide, bigarren, bila, bildu, biotz, birjin, bisitatus, bitartean, bizi, borondate, bortxaz, bota, buruan.*

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
77	43 (%55,8)	72 (%93,5)	Ondare zaharrekoak 50 (%64,8)
			Eratorkiak 8 (%10,3)
			Konposatuak 3 (%3,8)
			Mailegu zaharrak 14 (%18,1)
			Mailegu berriak 2 (%2,6)

11. taula: Mendiburun eta Geron.

Bat egiteen kopurua apalagoa da kasu honetan (90 Larramendirenean) eta hitz orokorren ehunekoa altuagoa den arren (Lar.: %46 vs Mb.: %55), hego-nafarreran agertzen direnena ia berbera da.


Hitz motei dagokienez, ez da Larramendi eta Mendibururen artean desberdintasun handirik antzematen, mota bakoitzean bien artean antzematen den aldea ez baita kasu bakarrean ere bost puntura iristen.

Jarraian, Mendiburuk erabilitako eta Axularrek erabili gabeko hitzak aztertuko ditugu: *adiña, admirable, ageri, agian, agitu, agoztto, ajola, alaere, aldi, alik, amore, ara non, argitasun, artikulo, asarre, asto, atari, au, aurdun, aurpegia, auxe, baizik, baña, barkatu, barkazio, bataioan, bedeikatu, begi, bekatari, bekatu, berbera, bereala, berez, bete, beti, birtute, bizikide, bizturik, bukatu, buru.*

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
40	8 (%20)	32 (%80)	Ondare zaharrekoak 24 (%60)
			Eratorkiak 4 (%10)
			Konposatuak 2 (%5)
			Mailegu zaharrak 9 (%22,5)
			Mailegu berriak 1 (%2,5)

12. taula: Mendiburun bai, Geron ez.

Alde handiagoa dago Larramendirekin egindako alderaketatik ateratako datuekiko. Hitz orokorrak %8 gehiago dira eta hego-nafarreran aurki ditzakegunak, aldiz, %62tik %80ra igo dira. Larramendirekin egin bezala, agerpenak mapa batera ekarritz gero, ikusiko dugu banaketa dialektologiko berbera duen mapa eskuratuko dugula.



6. Ilustrazioa: Iganden bai, Geron ez

Hitz motei dagokienez, ondare zaharrekoen agerpenek hamar puntu egiten dute gora batez ere konposatuen kalterako, %12tik %5era jaitsi baitira. Mailegu zahar gehiago agertzen dira eta mailegu berrien kopurua jaitsi egiten da. Hitz motek erakusten dituzten datuei begiratuta, pentsa liteke Mendibururen lanetan herriarenetik gertuago zegoen hizkuntza jaso zela. Hala ere, gorago aipatu dugun bezala, ezin da ahaztu oso kopuru txikiekin ari garela lanean eta agerpen bakar batek eragin handia izan dezakeela ehunekoetan. Emaitza sendoagoak lortuko genituzke zerrenda luzeagoak erabilita.


4.3.1.2.3 Mendiburu etiketa duten hitz guztiak

Gainerako autoreen lanetan ageri diren hitzak ekarriko ditugu azkenik. Alderaketa honek hitz kopuru handiena erakusten ez badu ere, ehunekoei dagokienez, oso datu interesgarriak dakartza. Honakoak dira hitzak: *abendu, aberats, adin, adiña, adiskide, admirable, adoratu, ageri, agertu, agian, agitu, agitz, agoztto, agur, aide, ain, aipatu, aita, aizina, ajola, akabatu, ala, alaere, alako, aldakatik, aldare, aldarte, aldatze, alde, alderat, aldi, alik, alke, ama, amore, an, andi, anitz, apostolu, aragi, ara non, argia, argitasun, arima, arka, arratsalde, arreba, artikulok, artu, artzai, asarre, asi, aski, asko, asto, atari, au, aur, aurdun, aurpegia, auxe, azi, azkenean, bada, bai, baizik, bakar, bake, bana, baña, barkatu, barkazio, bat, bataioan, batere, bear, bedeikatu, begi, beiti, bekatari, bekatu, beldur, berbera, bereala, berez, berreun, berri, berriz, besarkatu, beso, bete, beti, bezperetan, bi, bide, bigarren, bila, bildu, biotz, birjin, birtute, bisitatus, bitartean, bizi, bizikide, bizturik, borondate, bortxaz, bota, bukatu, buru, buruan.*

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
117	50 (%42,7)	105 (%89,7)	Ondare zaharrekoak 74 (%63,1)
			Eratorkiak 12 (%10,2)
			Konposatuak 5 (%4,2)
			Mailegu zaharrak 23 (%19,6)
			Mailegu berriak 3 (%2,5)

13. taula: Mendiburu.

Hitz orokorren kopurua ez da esanguratsua Mendiburuaren kasuan. Hala ere, Hego-nafarrerari dagokionez, ehunekorik altuena erdietsi duen autorea da. Oiertzuarrak Larramendik baino ipar-ekialdeko hitz gehiago erabiltzen du, baina Baztan, Aezkoa, Erronkari eta Zaraitzuri dagokienez, proportzio bera dute biek. Hala ere,



7. Ilustrazioa: Mendiburu

mendebaldeko eta ekialdeko hitzen agerpenak antzekoak dira. Ereku zabalenerako lexikoa erabiltzen duen autorea da.

Mendiburu ondare zaharreneko hitzen eta maileguen ehunetik altuena duen autorea da. Eratorri dagokienez ere, lehena da. Aldiz, konposatu eta mailegu berriei dagokienez, azken postuan geratu da.

4.3.1.3 Kardaberaz

116 hitz partekatzen dituzte guztira Lizarragaren laginak eta Kardaberazek. Mendiburuekin egin bezala, autore honen lanean agertzen diren hitzak aztertuko ditugu lehendabizi (§4.3.1.3.1) eta, ondoren, Axularrekin (§4.3.1.3.2 eta §4.3.1.3.3) alderatuko dugu.

4.3.1.3.1 Soilik Kardaberaz lanean

Larramendi eta Mendiburuekiko duen antzekotasunak eragina izan du oraingo honetan ere: *aborreiztu, admirazio, afecto, agrabio, alibio, biali*.

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
6	0	3 (%50)	Ondare zaharrekoak 1 (%16,6) Mailegu berriak 3 (%50) Mailegu zaharrak 2 (%33,3)

14. taula: soilik Kardaberazek.

Lizarragak erabilitako sei hitz agertzen dira soilik Kardaberaz lanean; Mendiburuenak baino bi hitz gehiago.

4.3.1.3.2 Kardaberaz eta Axularren lanetan

Kardaberaz eta Axular aurrez aurre jartzerakoan, Mendiburu eta Larramendirekin lorturiko kopuru antzerakoak ateratzen zaizkigu. Hona bi autoreek erabilitako hitzak: *abendu, aberats, abisu, adiskide, agertu, agitz, agur, aide, ain, aita, akabatu, ala, alako, aldare, aldarte, aldatze, alde, alegratu, altxatu, ama, an, anaia, andi, anparo, aragi, argatik, argia, arima, arka, arratsalde, arreba, artu, artzai, asi, asko, aur, azi, azkenean, bai, bakar, bana, bat, batere, bear, berreun, berri, berriz, besarkatu, beso, bi, bide, bigarren, bila, bildu, biotz, birjin, bitartean, bitarteko, bizi, bizio, bota, boto, buruan*.

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
69	42 (%60,8)	67 (%97,1)	Ondare zaharrekoak 45 (%65,1)
			Eratorkiak 6 (%8,6)
			Konposatuak 4 (%5,7)
			Mailegu zaharrak 11 (%15,9)
			Mailegu berriak 3 (%4,2)

15. taula: Kardaberazen eta Geron

Kardaberaz-Axular eta Mendiburu-Axular aurrez aurre jartzerakoan, lorturiko kopuruen ehunekoen alderik handiena hitz orokorretan dago eta bost puntukoa da besterik ez; gainerakoan, berdina dira kasik. Arreta deitzen du oso ehuneko handia agertzen dela hego-nafarrerako gure corpusean.


Ondare zaharreko hitzek eskuratu dute ehunekorik handiena eta gainerakoan artetik mailegu zaharretan dago kopururik esanguratsuen (%14,5). Mendiburu aztertzerakoan, ez dugu mailegu berrien agerpenik jaso, baina kasu honetan bi agertu dira. Ez da oso kopuru esanguratsua, ezta ehunekoari begiraturik ere (%2,8) eta, beraz, aurreko bi autoreekin bezala, pentsa dezakegu hitz berri ahalik eta gutxien erabiltzen saiatu zirela.

Kardaberazen lanetik Axularren lanetan agertzen diren hitzak kenduz gero, honakoak geratzen dira: *aborrezitu, adiña, admiratu, admirazio, afekto, agian, agrabio, ajola, akomodatu, ala nola, aldi, alegria, alibio, amatu, amazale, amore, ansiatu, artikulo, asarre, asto, atari, au, aurdun, auxe, azertatu, baitare, baizik, baña, banidade, bara, barkatu, barkazio, bataioan, batera, bedeikatu, begi, bekatari, beñere, bereala, berez, bete, beti, biaje, biali, birtute, bukatu, buru.*

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
47	7 (%14,8)	34 (%72,3)	Ondare zaharrekoak 20 (%42,5)
			Eratorkiak 3 (%6,3)
			Konposatuak 2 (%4,2)
			Mailegu zaharrak 13 (%27,5)
			Mailegu berriak 9 (%19,1)

16. taula: Debozioan bai, Geron ez.

Larramendi, Mendiburu eta Kardaberaz lanetatik Axularrek erabilitako hitzak kentzerakoan, aldeak ageri dira hitz moten kopuruan. Hitz orokorren kopuruari dagokionez, Kardaberaz eta Larramendi oso gertu daude (bigarrenak %12) eta Mendiburuk kopuru altuagoa dauka (%20). Hego-nafarreran ageri diren hitzen ehunekorik baxuena Larramendik



8. Ilustrazioa: Debozioan bai, Geron ez

dauka (%62) eta altuena, aldiz, Mendiburuk (%80). Kardaberaz bien erdian dago bi kasuetan. Aipatu bi autoreekin egin bezala, agerpenak mapa batera ekarrita, Kardaberaz aurreko bi autoreak baino mendebalderago kokatzen dela esan liteke, Erronkari-Zaraitzu-Zuberoa alderdiak maila bat egin baitu behera agerpen kopuruari dagokionez.

Hitzen izaerari begiratuz, ez da alde handirik antzematen: ondare zaharrekoak dira nagusi, atzetik mailegu zaharrak dituztela. Arreta deitzen du, Kardaberazek orain arteko mailegu berrien kopururik altuena duela (Larramendik %10 eta Mendiburuk %2,5), agian lexiko dialektalagoa (mendebalderagokoa esan nahi baita) erabiltzearen ondorioz eta, hortaz, erdaren eragin handiagoa erakutsiz. Eratorri eta konposatuen kasuan, emaitzak aurreko autoreekin lortutakoen antzerakoak dira.

4.3.1.3.3 Kardaberaz etiketa duten hitz guztiak


Azkenik, “Cb” etiketa duten hitz guztiak ekarri ditugu. Alderaketa honek hitz kopuru handiena erakusten ez badu ere, ehunekoei dagokienez, oso datu interesgarriak dakartza: *abendu, aberats, abisu, aborrezitu, adiña, adiskide, admiratu, admirazio, afekto, agertu, agian, agitz, agrabio, agur, aide, ain, aita, ajola, akabatu, akomodatu, ala, alako, ala nola, aldare, aldarte, aldatze, alde, aldi, alegratu, alegria, alibio, altxatu, ama, amatu, amazale, amore, an, anaia, andi, anparo, ansiatu, aragi, argatik, argia, arima, arka, arratsalde, arreba, artikulo, artu, artzai, asarre, asi, asko, asto, atari, au, aur, aurdun, auxe, azertatu, azi, azkenean, bai, baitare, baizik, bakar, bana, baña, banidade, bara, barkatu, barkazio, bat, bataioan, batera, batere, bear, bedeikatu, begi, bekatari, beñere, bereala, berez, berreun, berri, berriz, besarkatu, beso, bete, beti,*

bi, biale, biali, bide, bigarren, bila, bildu, biotz, birjin, birtute, bitartean, bitarteko, bizi, bizio, bota, boto, bukatu, buru, buruan.

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
116	48 (%41,3)	100 (%86,2)	Ondare zaharrekoak 65 (%56)
			Eratorkiak 9 (%7,7)
			Konposatuak 6 (%5,1)
			Mailegu zaharrak 24 (%20,6)
			Mailegu berriak 12 (%10,3)

17. taula: Kardaberaz.

Kardaberazek dauka hitz orokorren ehunekorik txikiena eta Mendiburu eta Axularrenetik gertu dago hego-nafarreran agertzen diren hitzei dagokienez. Mapari begiratu gero, Larramendiren banaketa bera agertzen duela ikusiko dugu, hots, hego-mendebaldera lerratzen da batez ere.



9. Ilustrazioa: Kardaberaz

Kasu honetan ere, ondare zaharreko hitzen kopurua da altuena. Maileguei dagokienez, ehunekorik altuena dauka Kardaberazek bai zaharretan eta baita berrietan ere. Eratorrietan, ehunekorik apalena jaso du. Konposatuetan gainerako autoreen antzeko kopuruak dauzka.

4.3.1.4 Axular

Axularrekin bat datozen hitzak 103 dira, autore guztien artean kopururik baxuena. Aurreko autoreak Axularrekin alderatu ditugu, urdazubiarrarekin partekatzen dituzten eta ez dituzten hitzak ezagutzeko, hartara hitz orokor edo partekatuen eragina saihesteko. Oraingoan, alderaketa beste zentzuan egingen dugu, hots, Axularren lexikotik abiatuz. Lehenik, soilik Axularren lanean agertzen diren hitzak ekarriko ditugu (§4.3.1.4.1) eta, ondoren, Axular Larramendirekin (§4.3.1.4.2), Mendibururekin (§4.3.1.4.3) eta Kardaberazekin (§4.3.1.4.4) alderatuko dugu azken horiekin partekatzen ez dituen hitzak aztertzeko.

4.3.1.4.1 Soilik Axularren lanean

Aurreko autoreekin gertatu bezala, Axularrek bakarrik erabiltzen dituen hitz eta aldaeren kopurua oso txikia da: *ainberze, aingiru, alegranzia, aurkitu, autara eman, baita, baitan, bakotxa*.

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
8	1 (%12,5)	5 (%62,5)	Ondare zaharrekoak 6 (%75)
			Eratorkiak 1 (%12,5)
			Mailegu zaharrak 1 (%12,5)

18. taula: bakarrik Geron agertzen diren hitzak

Jasotako zortzi hitzetatik bat orokortzat hartzen dela ikus dezakegu (%12,5) eta hego-nafarrerari dagozkion agerraldien ehunekoak ez dira oso altuak.

Hitzen motari dagokionez, orain arte bezala ondare zaharrekoak dira nagusi. Eratorriek eta mailegu zaharrek agerpen bana dute.


4.3.1.4.2 Axular eta Larramendiren lanetan

Axularrek erabiltzen dituen hitzei Larramendik erabilitakoak kentzen badizkiogu, Larramendiri Axularrenak kenduta baino kopuru dezentez txikiagoa geratuko zaigu. Larramendi oinarri harturik egin dugun alderaketan hirurogeita hamabi agerpen biltzen dituen zerrenda atera da eta, oraingoan, hamahiru geratu dira besterik ez: *ainberze, aingiru, alderat, alegranzia, anaia, aurkitu, autara eman, baita, baitan, bakotxa, beiti, berriz*.

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
13	2 (%15,3)	10 (%76,9)	Ondare zaharrekoak 9 (%68,1)
			Eratorkiak 3 (%23)
			Konposatuak 0 (%0)
			Mailegu zaharrak 1 (%7,6)
			Mailegu berriak 0 (%0)

19. taula: Geron bai HHn ez

Hitz orokorren ehunekoa oso gertu dago bi kasuetan. Alderik handiena hego-nafarreraz jasotako hitzen ehunekoan dago, ia hamabost puntuko aldea baita bi alderaketen artean Axularren alde. *OEHk* ematen duen agerpenen inguruko informazio dialektologikoa mapa batera ekarriz, Larramendirekin ez bezala, kasu honetan protagonismoa Lapurdi eta



10. Ilustrazioa: Geron bai, HHn ez

Nafarroako hizkerek hartzen dutela ikusiko dugu, erdialdeko euskalkiak gehien jaisten direlarik.

Hitzen motari begiraturik, ondare zaharrekoek nabarmen egin dute gora (%45 *HHn*) eta hitz konposatu zein mailegu berriak desagertu egin dira. Mailegu zaharrek agerpen bakarra dute.


4.3.1.4.3 Axular eta Mendibururen lanetan

Axular eta Mendiburu jarriko ditugu orain parez pare. Kasu honetan ere, Mendibururen atalean egin dugun alderaketak agerpen kopuru altuagoa zeukan, 40 agerpen baitziren oraingoan dauzkagun 26en aldean: *abisu, ainberze, aingiru, alaber, aleganzia, alegratu, altxatu, anaia, anparo, antzu, apart, argatik, aurkitu, autara eman, baita, baitan, bakotxa, baratus, batzarrean, berriz, berze, bestiturik, bitarteko, bizio, borz, boto.*

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota	
26	3 (%11,5)	21 (%80)	Ondare zaharrekoak	13 (%50)
			Eratorkiak	1 (%3,8)
			Konposatuak	2 (%7,7)
			Mailegu zaharrak	7 (%26,9)
			Mailegu berriak	3 (%11,5)

20. taula: Geron bai Iganden ez

Hasteko, aurreko autoreekin bezalaxe, hitz orokorreari begiratuko diegu. Kasu honetan hiru agerpen ditugu eta ehunekoei begira jarritz gero, zifra apalagoa ikusiko dugu Mendibururekin alderatuz (%11 vs. %20). Hego-nafarreran agertzen diren hitzen ehunkoa ere antzerakoa da (%80 Mendiburuk). Alderik esanguratsuena, aurreko kasuan bezala, agerpenak mapan kokatzerakoan antzematen da. Hala ere, Larramendirekin alderatzean baino eremu zabalagoko hitzak agertzen dira oraingoan, erdialde eta mendebaldeko hizkeren ehunkoak oso antzerakoak baitira eta, aurreko kasuan bezala, Lapurdi eta Nafarroako hizkerak dira gehien agertzen direnak.



11. Ilustrazioa: Geron bai, Mendiburun ez

Hitz motari begiratu, aldea nabarmena da, baina hain agerpen kopuru gutxirekin espero izatekoa zen, lehen aipatu dugun bezala, agerpen batek eragin handia baitu ehunekoetan. Hala ere, aurrekoen joera berberak antzematen dira: ondare zaharreko hitzen nagusitasuna eta berrien agerpen apalagoa.


4.3.1.4.4 Axular eta Kardaberazzen lanetan

Axularrek eta Lizarragak erabilitako hitzak Kardaberazek jasotakoekin jarriko ditugu aurrez aurre orain, lehena oinarri hartuz: *adin, adonatu, ainberze, aingiru, aipatu, aizina, alaber, aldatik, alderat, alegranzia, alke, anitz, antzu, apart, apostolu, aski, aurkitu, autara eman, bada, baita, baitan, bake, baxotxa, baratus, batzarrean, beiti, beldur, berze, bestiturik, bezperetan, bisitatus, borondate, bortxaz, borz.*

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
34	4 (%11,7)	25 (%73,5)	Ondare zaharrekoak 18 (%52,9)
			Eratorkiak 3 (%8,8)
			Konposatuak 1 (%2,9)
			Mailegu zaharrak 10 (%29,3)
			Mailegu berriak 2 (%5,8)

21. taula: Geron bai Kardaberaz ez

Ikus daitekeenez, *Geron* badiren eta Kardaberaz lanean ez diren agerpen kopurua altuagoa da aurreko bi autoreekin izandakoa baino. Hitzzen banaketa geografikoari erreparatuz gero, ikusiko dugu lexikoa beste bi kasuetan baino ekialderago kokatzen dela, Bizkai aldeko ehunekoa nabarmen jaitsi delarik.



12. Ilustrazioa: Geron bai, Debozioan ez

Hitzzen motari begiratzen badiogu, joera bera antzematen da Kardaberaz eta Axular oinarri harturik egin ditugun bi alderaketetan. Ondare zaharreko hitzak dira ugariak mailegu zaharren aurretik. Gainerakoan, Axularren lana baliatuz egindako beste bi alderaketekin dagoen alderik esanguratsuena, mailegu zaharrena da. Aurreko bi kasuetan ez da halakorik jaso eta kasu honetan hirugarren tokian agertzen dira ia %15arekin.

4.3.1.4.5 Axular etiketa duten hitz guztiak


Autoreen alderaketak burutzeko, “Ax” etiketa duten hitz guztiak ekarriko ditugu. Alderaketa honek hitz kopuru handiena erakusten ez badu ere, ehunekoei dagokienez, oso datu interesgarriak dakartza: *abendu, aberats, abisu, adin, adiskide, adoratu, agertu, agitz, agur, aide, ain, ainberze, aingiru, aipatu, aita, aizina, akabatu, ala, alaber, alako, aldatatik, aldare, aldarte, aldatze, alde, alderat, alegranzia, alegratu, alke, altxatu, ama, an, anaia, andi, anitz, anparo, antzu, apart, apostolu, aragi, argatik, argia, arima, arka, arratsalde, arrega, artu, artzai, asi, aski, asko, aur, aurkitu, autara*

eman, azi, azkenean, bada, bai, baita, baitan, bakar, bake, bakoxta, bana, baratus, bat, batere, batzarrean, bear, beiti, beldur, berreun, berri, berriz, berze, besarkatu, beso, bestiturik, bezperetan, bi, bide, bigarren, bila, bildu, biotz, birjin, bisitatus, bitartean, bitarteko, bizi, bizio, borondate, bortxaz, borz, bota, boto, buruan.

Hitz kopurua	Orokorrak	Hego-nafarreran	Mota
103	46 (%44,6)	92 (%89,3)	Ondare zaharrekoak 63 (%61,1)
			Eratorkiak 9 (%8,7)
			Konposatuak 5 (%4,8)
			Mailegu zaharrak 21 (%23,4)
			Mailegu berriak 5 (%4,8)

22. taula: Axular.

Gainerako autoreekin alderatuz, Axularrek ez du kopuru handienik ez txikienik eskuratu. Kasu guztietan dago batz bestekotik gertu. Mapari begiratuta, ez da oso datu harrigarrik, ekialderen lerratzen den eta mendebaldeko hitz gutxien erabiltzen duen autorea baita.




13. Ilustrazioa: Axular

Gehienetan bezala, ondare zaharreko hitzak dira nagusi eta mailegu zaharrak dituzte atzetik, bien artean alde nabarmena dagoelarik. Gainerakoan, ez dago datu aipagarrik, joera nagusia errepikatzen baita hemen ere.

4.3.2 Hego Nafarreraren lexikoa

Lizarragaren lexikoak hego-nafarreran duen banaketari begiratuko diogu eta horretarako gure corpusetik ateratako zerrendak izanen ditugu oinarri. Hori baino lehen, ordea, OEHn jasotakoaren arabeko banaketari tartetxo bat eskainiko diogu, aurreko autoreekin egin bezala, datuak mapara ekarriz:


Datuek erakusten dutenaren arabera, gehien jasotzen diren hitz eta aldaerak goi-nafarrera dira, (OEHko “AN”). Ondoren, gipuzkera, lapurtera eta hego eta mendebaldeko hego-nafarrera liriateke (azken hori gure corpuseko datuetan oinarriturik). Horien atzetik datoz bizkaiera, behe-nafarrera, zuberera eta erronkari-zaraitzuera. Azken lekuan




14. Ilustrazioa: Lizarragaren lexikoa

azekera legoke (“Ae” OEHn). Gainerako mapekin alderatuz gero, ikusiko dugu Axularren lanari gainerako autoreen lexikoa kenduz lortzen ditugun mapen oso antzeko irudia lortuko dugula, lapurterak eta ekialdeko hizkerek pisu gutxiago duten arren. Gauzak horrela, badirudi eremu zabaleko nafarrera erabiltzen saiatu zela, edota baliteke Axularrek guk uste baino eragin handiagoa izatea. Hala ere, Lizarraga nafarra izanik, hipotesi ekonomikoagoa da lehena; are gehiago, Axularren eragina hain handia izan bazen Lapurdi inguruko lexiko gehiago espero genezakeela pentsatzen badugu.

Begira diezaigun, bada, Lizarragaren lexikoak hego-nafarreran duen banaketa geografikoari. Caminoren (2004) sailkapenari jarraituz, mendebaldeko, hegoaldeko erdialdeko eta ekialdeko hego-nafarrerak bereizi ditugu Esteribarko Eugi eta Iragi erdialdeko hego-nafarreratik kanpo utziz. Gorago aipatu dugun bezala, corpus asimetrikoa dugu eskuartean eta, hortaz, azpi-hizkera bakoitzaren agerpen kopuruari begiratzea ere komeni da, beste ikuspegi bat eskaintzen baitigu Lizarragak zein alderditako lexikoa baliatu zuen ezagutzeko. Gauzak horrela, 15. ilustrazioak kopuru absolutuek luketen banaketa erakusten du eta 16.ak hizkera bakoitzaren corpusaren arabera



15. Ilustrazioa: Lizarragaren lexikoaren banaketa hego-nafarreran



16. Ilustrazioa: Lizarragaren lexikoaren banaketa corpusaren arabera

ehunekoarena. Kasu honetan, ekialdeko hizkerari kolore gardena ezarri diogu, guk sorturiko corpusa erabili beharrean *OEH* erabili dugulako.

Jarraian, hizkeraz hizkera aztertuko ditugu agerpenok. Lizarragaren hizkeratik hasi eta ekialdekora igaroko gara, hortik hegoaldekora eta mendebaldekoarekin bukatuko dugu.

Datuak honela antolatuko ditugu: lehenik, agerpen kopurua emanen dugu (“Hitz kopurua”). Ondoren, “orokorrak” atalean, *OEHn* “gral.” etiketa jasotzen dutenen kopurua eta ehunekoa emanen ditugu. “Gainerako HNaf” zutabea, gainerako hizkeretan agertzen direnak ekarriko ditugu, aztertzen ari garen hizkera ez diren gainerako hiru hizkerak bakarrak balira bezala hartuz. Bukatzeko, “mota” zutabea gorago gainerako autoreekin erabili ditugun irizpide berak erabiliko ditugu: *hitza ondare zaharrekoa, eratorria, konposatua, mailegu zaharra edo mailegu berria* den markatuko dugu.

4.3.2.1 Erdialdeko hego-nafarrera

Erdialdeko hizkera definitzeko honako lanak baliatu ditugu: 1729ko predikua (Ondarra, 1981), Larrasoñako testu bat (Satrustegi, 1987) eta Orreagako andrearendako bertsoak (*TAV*). Hiru testu horietan jasotako lexikoa zerrenda batera ekarri, bertatik izen bereziak kendu eta *a-* eta *b-* hizkiez hasitako hitzekin 258 hitzeko zerrenda atera zaigu. Horietatik 47 agertu zaizkigu Lizarragaren lanetik ateratako laginean: *abisu, adiskide, aditu, aide, ain, aingiru, aita, ala, alako, ama, an, andi, argia, arima, arteo, artikulo, artu, asi, atenzio, au, bada, bai, baita, baizik, bana, baña, baño, bat, bear, beira, bekala, bekatari, bekatu, beldur, bereala, berze, bete, beti, bi, bide, bigarren, bizi, borz, boto*.

Hitz kopurua	Orokorrak	Gainerako HNaf	Mota
47	20 (%42,5)	47 (%100)	Ondare zaharrekoak 34 (%72,3)
			Eratorriak 2 (%4,2)
			Konposatuak 1 (%2,1)
			Mailegu zaharrak 9 (%19,1)
			Mailegu berriak 1 (%2,1)

23. taula: erdialdeko hego-nafarrera.

Agerturiko hitz guztietatik, hoguei hitz orokorrak dira, ia erdia. 47 hitz horiek guztiak gainerako hizkeretan ere agertzen dira, beraz erdialdeko hego-nafarrerak gainerako hizkerekin hartu-eman handia zuela pentsa liteke.

Hitzen motari begira jarriz gero, autoreen ataleko joera errepikatzen dela ikusiko dugu: gehiengoa ondare zaharreko hitzak dira eta mailegu zaharrak bigarren. Hizkera honetan jaso dugu ondare zaharreko ehunekorik handiena eta eratorri eta konposatuiei dagokien txikiena.

4.3.2.2 Ekialdeko hego-nafarrera

Ekialdeko hizkeraren agerpenak *OEH*ko “Ae” etiketaren arabera zenbatu ditugu. Hala, Lizarragaren lagineko 87 hitz eta aldaerek etiketa horrekin bat egiten zuten eta honakoak izan dira: *abendu, adin, adiskide, agertu, agoztto, agur, aide, aingiru, aita, akabatu, alako, aldare, aldatze, alde, alegranzia, alegratu, ama, amalaur, ameka, anaia, andi, anitz, antxume, antzu, aplikatus, apostolu, aragi, argia, argitasun, arima, arka, arratsalde, arreba, artu, asi, asko, aspaldirik, asto, atra, aur, aurpegia, axuri, azi, azkenean, bai, baita, baizik, bakar, bana, barkatu, bat, batera, bear, bedeikatu, bedeizioskoa, bedratzi, begi, beñere, berbera, berere, berez, berreun, berri, besarkatu, beso, bete, beti, bi, biali, bide, bigarren, bila, bildu, biotz, birjin, bisitatus, bitartean, bizi, bizio, bortz, bota, buru.*

Hitz kopurua	Orokorrak	Gainerako HNaf	Mota
87	57 (%65,5)	74 (%85)	Ondare zaharrekoak 62 (%71)
			Eratorriak 7 (%8)
			Konposatuak 4 (%4,5)
			Mailegu zaharrak 12 (%16)
			Mailegu berriak 3 (%3,4)

24. taula: ekialdeko hego-nafarrera

Guk osaturiko hego-nafarreraren corpusetik, orokorrak diren hitz kopururik handiena duen hizkera da ekialdekoa (%65,5). Hala ere, bere hitz guztiak ez dira hego-nafarreraren gainerako hizkeretan ageri eta horrek erdialdekoak baino lotura urriagoa erakutsiko luke hego-nafarreraren baitako gainerako hizkerekin.

Hitzen motari dagokionez, joera orokorrarekin bat egiten dute datuek hemen ere. Ondare zaharrekoak dira nagusi, atzetik mailegu zaharrak eta gainerakoetan hamarretik beherako ehunekoa dutenak. Hala ere, nabarmentzekoa da hitz eratorri gehien duen hizkera hau dela.

4.3.2.3 Hegoaldeko hego-nafarrera

Horago aipatu dugun bezala, jasotako corpusean, hizkera guztien artetik hegoaldeko hego-nafarrera izan da zerrendarik luzeena eskuratu duena eta horrek eragina izan du emaitzetan. Guk jasotako corpusean 2028 hitz jaso ditugu *a-* eta *b-* hasiera zuten hitzetatik izen bereziak kendu ostean. Horretarako, Juan de Beriainen *Tratado de como se ha de oyr missa* (1621) eta *Doctrina Christioarena Euscaras* (1626), *Missiora deeya* (Ondarra, 1993) eta Muruzabalgo bi sermoi (Satrustegi, 1987) baliatu ditugu. Honakoak dira jasotako hitzak: *abendu, adin, adiskide, agertu, agoztto, agur, aide, aingiru, aita, akabatu, alako, aldare, aldatze, alde, alegranzia, alegratu, ama, amalaur, ameka, anaia, andi, an, anitz, antxume, antzu, aplikatus, apostolu, aragi, argia, argitasun, arima, arka, arratsalde, arreba, artu, asi, asko, aspaldirik, asto, atra, aur, aurpegia, axuri, azi, azkenean, bai, baita, baizik, bakar, bana, barkatu, bat, batera, bear, bedeikatu, bedeizioskoa, bedratzi, begi, beñere, berbera, berere, berez, berreun, berri, besarkatu, beso, bete, beti, bi, biali, bide, bigarren, bila, bildu, biotz, birjin, bisitatus, bitartean, bizi, bizio, bortz, bota, buru.*

Hitz kopurua	Orokorrak	Gainerako HNaf	Mota
141	41 (%29)	106 (%75,1)	Ondare zaharrekoak 82 (%58,1)
			Eratorriak 9 (%6,3)
			Konposatuak 8 (%5,6)
			Mailegu zaharrak 32 (%22,6)
			Mailegu berriak 10 (%7)

25. taula: hegoaldeko hego-nafarrera

Jasotako hitzetatik, hitz orokorren kopuru txikiena duen hizkera da honakoa eta gauza bera gertatzen da gainerako hizkeretan dituen agerpenekin.

Hitzen izaerari dagokionez, gehienetan bezala, ondare zaharrekoak dira nagusi eta atzetik dituzte mailegu zaharrak. Mailegu berrien ehunekorik altuena daukan hizkera da ere, baina, guztiarekin, %7 besterik ez dira. Eratorri eta konposatuen ehunekoa

elkarrekin zenbatuz gero, ehunekorik altuena dute, soilik ekialdeko hego-nafarrerak gaintitzen baitu eratorrien kopuruan.

4.3.2.4 Mendebaldeko hego-nafarrera

Mendebaldeko hego-nafarrerari dagokionez, *a-* eta *b-* hizkiez hasitako 425 hitz jasotzen dituen zerrenda eskuratu dugu, aurreko kasuan bezala, izen bereziak kendu ostean. Zerrenda osatzeko *Elizalderen dotrina* (Pagola, 1994) eta Goñerriko 1743ko testua (Ondarra, 1989) baliatu ditugu. Ikus ditzagun lorturiko emaitzak: *adin, adonatu, ain, ainberze, aingiru, aita, alaber, alde, aldi, alke, amalaur, amatu, amore, an, andi, aragi, argatik, argia, arima, arrazio, arteo, artikulor, aski, atra, aur, autxi, azkenean, bada, baitan, baizik, bakar, bake, baña, bat, bataioan, bedeikatu, begi, beira, bekala, bekatu, beldur, berere, berze, bete, bi, bide, bigarren, birjin, birtute, bisitatus, bizio, borondate, borz, boto, buru, buruan.*

Hitz kopurua	Orokorrak	Gainerako HNaf	Mota
56	17 (%30,3)	56 (%100)	Ondare zaharrekoak 31 (%55,3)
			Eratorkiak 3 (%5,3)
			Konposatuak 2 (%3,5)
			Mailegu zaharrak 15 (%26,7)
			Mailegu berriak 3 (%5,3)

26. taula: mendebaldeko hego-nafarrera

Hitz orokorren kopurua apalenetarik da mendebaldeko hego-nafarrerari dagokionez, kasik hegoaldekoaren parekoa baita. Hala ere, kasu honetan gainerako hizkeretikiko alderaketan, hitz guztiak aurki ditzakegu. Horrek esan nahiko luke hizkera honek gehiago begiratzeko ziola hego-nafarrerari gainerako euskalkiei baino.

Hitz motari begiratu, ondare zaharrekoak dira nagusi eta bigarren dira mailegu zaharrak. Aurreko hizkeran ez bezala, mailegu berriak urri dira hizkera honetan. Hitz eratorri eta konposatuen ehunekoa gainerako hizkeretan ikusi dugunaren antzekoa da. Ematen du, beraz, ekialde, erdialde eta mendebaldeko hizkerak gordetzailago direla hegoaldekoa baino.

4.3.3 Lizarraga Elkanokoaren hitzak

Atal honetan Lizarragaren hitz berriei begira jarriko gara. Kasu honetan, agerpen gutxi izan ditugu hautaturiko laginean, baina bost hapax eta beste horrenbeste lehen agerpen, behintzat, agertu zaizkigu. Emaitzak taula batera ekarriko ditugu aurreko ataletan egin bezala eta, ondoren, hitzak banaka aztertuko ditugu. Honakoak dira: *akorritzen, altsai, amorosgarri, ario, ariora, baimende, baitan, bateo, bentzait, bidanabar*.

Hitz kopurua	Hapaxak	Lehen agerpenak	Mota
10	5 (%50)	5 (%50)	Ondare zaharrekoak 6 (%50) Eratorriak 4 (%40)

27. taula: Lizarragaren hapaxak eta lehen agerpenak

Hitzen sailkapena egiterakoan, ikusiko dugu kasu honetan ere ondare zaharreko hitzek dutela agerpen kopururik handiena eta oso urbil daudela eratorriak.

4.3.3.1 Hapaxak

Hapaxak, hots, soilik Lizarragak erabilitako hitzak honakoak izan dira:

Hitza	Lema	Adiera	Mota	Kategoria
altsai	artzai	artzai	Eratortia	Izena
amorosgarri	amorosgarri	maitekor & maitagarri	Eratortia	Adjektiboa
baimende	baimendu	baimen	Eratortia	Izena
baitan1	baitan	lokatihoa	Ondare zaharra	Postposizioa
bentzait	behintzat	behintzat	Ondare zaharra	Adberbioa

28. taula: hapaxak

Lematizazioa orain arteko irizpideei jarraituz egin dugu, hau da, *OEH*ko sarrera buruak oinarri hartuz.

Altsairen kasuan, *artzain* hitz orokorrigoaren sinonimoa dugu. Hitza Harrietek eta Azkuek Lizarragarengandik hartu zuela proposatzen da *OEH*n (s.v. *ahartzain*), baina *-ts-* ordez, *-tz-* ezarri zioten biek. Baztanen ere “alzai” eta “aalzain” jaso dira, baina Lizarragak erabilitako forma ez da beste inon aurkitu.

Amorosgarri hitzaren kasuan, gure laginean agerpen bakarra dauka. Lagina ateratzeko hautaturiko lanean (*JMSB*), beste agerpen bat dago eta gure ustez, ‘maitagarri’ eta ‘maitekor’ adierak har ditzake bi kasuetan. *OEH*ren arabera (s.v. *amoros*), *amoros* da formarik hedatuena eta Larramendik bere *Eranskinean* txertatu

zuen Axularrengandik harturik (nahiz eta azken horrek maizenik *amurus* aldaera erabili). Kasu honetan, biak izan litezke iturri, baina ahozkotik hartua izateko aukera gehiago duela iruditzen zaigu, gaztelerazko *amorosori -garri* atzizkia txertatuz. Honat bi adibideen testuingurua:

*O aur zori onekoa, aur andia, Jangoikoaren begietan, zu aurkitzen zaituenak aurkituko du bizitza ta salbazioa! O Maria amagarria ta **amorosgarria!*** (Lizarraga, 1994: 20, Lodia gurea).

*Sei ilabetez egon ze an altxaturik, iork etzekiela, Jangoikoak ezi. Eta sustentua nondik? Ona berze probidenza miragarri ta **amorosgarri** bat Jangoiko onarena!* (Lizarraga, 1994: 116. Lodia gurea).

Baimende hitzaren kasuan, *OEHk* (s.v. *baimende*) Azkue aipatzen du eta hark, era berean, Lizarraga Elkanokoa. Hitz honen jatorriaren bila aritu eta gero, *HHn* “Licencia, baimena, baimendua” aurkitu genuen. Hortaz, pentsa genezake Lizarragak Larramendirengandik hartutako hitza egokitu zuela. Hori horrela balitz, Lizarragak *HH* erabili bai, baina ematen du ez zuela dena bere horretan hartu. Aurrerago agertuko diren hapaxetan jorrazteko bide interesgarria izan liteke, batez ere Elkanoko autoreak lexiko berria erabiltzeko jarraituriko estrategiak ezagutzeko.

Hurrengo hapaxa ez dagokio hitzaren formari haren adierari baino. Bilaketa ugariak egin eta gero, ez gara “baitan”-en adiera bera inon aurkitzeko gai izan, ez *OEHn* eta ez beste inon. Guk ulertzen dugunaren arabera, balio lokatiboa ezartzen dio izenari. Hona hitzaren testuingurua:

Guziek in zute bekatu lenbiziko Aita Adanenbaitan, diote: baña eztire guzietan sartzen Jesus ta Maria: Biz gañarako guziak, baña salbo Jesus ta Maria, Jesus dretxos, Maria pribilejios (Lizarraga, 1994: 18).

Adibide horretan, ulertzen dugunagatik, Adan lehendabiziko bekataria izan zela adierazi nahi du Lizarragak, hots, guztiek egin zutela bekatu eta lehendabizikoa Adan izan zela.

Azken hapaxari dagokionez, metatesi baten aitzinean geundeke: “*behintzat > bentzait*”. Kasu honetan hitzari “AN” etiketa ezarri zaio *OEHn*, baina ez dugu Lizarragaz beste autorerik aurkitu hitzaren forma hori erabiltzen duenik.

4.3.3.2 Lehen agerpenak

Lehen agerpenak aztertuko ditugu jarraian. Hapaxekin egin bezala, lehendabizi hitzen inguruko informazio pixka bat emanen dugu:

Hitza	Lema	Adiera	Mota	Kategoria
akorritzen	akorritu	Nor bere onera etorri	Ondare zaharra + -tu	Aditza
ario	ario	harreman	Ondare zaharra	Izena
ariora	ario	-(r)ekin loturik	Erorria	Postposizioa
bateo	bateo	batera	Ondare zaharra	Adberbioa
bidanabar	bidanabar	Bide batez	Ondare zaharra	Adberbioa

29. taula: lehen agerpenak

Lehenik, *akorritu* aditza aztertuko dugu. *OEHn* bilaketa eginez gero (s.v. *akorritu*), Lizarragaren adibideak besterik ez zaizkigu agertuko. Sarasolaren hiztegian bilatuz gero, 1783ko Lizarragaren idazlana aipatzen da lehen agerpen bezala. Hitza gutxi erabilia da, Sarasolak berak aipatzen duenaren arabera.

Ario hitzari buruz *OEHk* (s.v. *ario*) Lizarragaren erabilera aipatzen du eta, ondoren, xx. mendeko autoreetan agertzen dela. Horrela, Lizarragaren ondoren, Iraizoz, Orixe eta Arreseren erabilerak jasotzen dira. Sarasolak ez du hitz honen inguruko informaziorik ematen.

Aurreko kasuarekin ez bezala, Sarasolak *ariora* jasotzen du bere hiztegian eta “onartzen ez diren hitz aldaera eta adierak markatzen dituen” ikurra paratu eta irakurlea “arabera” sarrerara bidaltzen du. *OEHn* (s.v. *ario*) azpisarrerara bezala agertzen da. *Ariora* erabili duten autoreak, Lizarragaz gain, Iraizoz, Orixe, Inza eta Irigarai dira.

Bateoren kasua bitxia da, guk jasotako hego-nafarreraren corpusean, agerpen guztietan “batera” ageri baita, baina Aezkoan ahozkoan ere erabiltzen da. *Batio* aldaerak eremu zabalagoa hartzen du, Sakanan ere ahozkoan erabiltzen delako. Sarasolak 1870. urtean kokatzen du lehen agerpena (s.v. *bateo*), baina ez dugu jakin zein den horren atzean dagoen lana, hiztegiaren hasieran emandako lanen zerrendan ez baita data hori duen lanik agertzen. *OEHn* Duvoisin aipatzen da eta baita hegoaldeko nafarrerako hitza dela ere (“AN-mer”). Lizarragaren ondoren, zenbait idazlek baliatu dute, hala nola, lehen aipatu Irigarai. Utergako katiximan (Ondarra, 1980) *batio* ageri dela aipatzen du *OEHk* (s.v. *bateo*).

Azkeneko hitza *bidanabar* dugu. Sarasolaren arabera (s.v. *bidanabar*), *bidanabar* Etxeberri Sarakoak idatzi zuen lehen aldiz 1712an. *OEHn* jaso den bigarren

agerpena Lizarragarena litzateke, *bidanabar* idatzirik. Guk aldaketa fonetiko kontuan hartuz, lehen agerpentzat hartzea hobetsi dugu eta haren jatorria ahozko hizkuntzari egotzi, Aezkoan ere *bidanabar* erabiltzen baita.

4.4 Lehen saioaren ondorioak

Lehen saio honetan zenbait arazo izan ditugu eta horiei helduko diegu lehenik; ondoren, alderdi positiboak aipatuko ditugu eta bukatzeko lorturiko emaitzetatik ateratako ondorioak ekarriko ditugu.

Lan honetan izan dugun erronkarik handiena, hego-nafarreraren corpus ahalik eta zabalena lortzea izan da. Zentzu horretan, Urtzi Regueroren tesia eta Iñaki Caminoren laguntza ezinbestekoak izan zaizkigu eta bi lan horietatik atera ahal izan dugunaz gain, Caminok eskura jarri dizkigun testuek biziki erraztu dizkigute gauzak. Hala ere, oso corpus asimetrikoa geratu zaigu eta horrek eragin handiegia izan du emaitzetan, nolabait kopuruek osatzen zuten irudia desitxuraturik geratu delako. Ez dugu asmatu asimetria hori gainditzeko moduan eta, bigarren saioan ikusiko dugunez, hori hobetzen saiatu gara baina ez da erraza izan.

Bestalde, guk bildutako corpora erabili beharrean, ekialdeko hizkeraren ordekaritzat *OEH* erabili dugu eta hori egiteak gainerako euskalkiekiko alderaketa egiteko oinarri sendoa ekarri digun arren, hego-nafarreraren baitako hizkeren arteko alderaketa hankamotz geratzea eragin du, batez ere, ez ditugulako *OEHk* hitz edo aldaera bati “Ae” marka ezartzeko erabilitako corpusaren edota irizpideen gaineko xehetasun guztiak ezagutzen.

Hitzak sailkatzerakoan ere arazoak izan ditugu: zalantza asko sortu zaizkigu eta denbora asko “galdu” genuen Endika Blancoren (2013) Master Amaierako Lana aurkitu eta erabili genuen arte. Hitzak bertan jasotakoaren arabera sailkatzea erabaki genuen eta, halako batean, garaiezina zirudien mendiaren tontorrean ikusi genuen gure burua. Guztiarekin ere, ikusi ahal izan dugu helburu dugun lanerako informazio hori ez dela oso esanguratsua eta bigarren saioan hori kontuan ez hartzea erabaki dugu.

Arazo edo akatsei buruzkoak bukatzeko, laginari begira jarriko gara. Lagina automatikoki *JMSB* lanetik hartuko genuela erabaki genuen. Nolabait, gure asmoa tresna “automatiko” bat sortzea zenez, oinarria ere hala hautatua izan behar zela uste

izan genuen. Horren ondorio nagusia izan da esanguratsuak ez diren hitz asko itzuri zaizkigula alderaketara. Bestalde, horrek dakarren arazorik larriena hautaturiko pasartearen arabera emaitzak asko alda daitezkeela da. Bestalde, alderaketak egiten hasi ginenean, kasu askotan, lorturiko emaitzetan agerpen bakarrak eragin handiegia zuela ikusi genuen eta, orduan, lagin handiagoa erabiltzea egokiago izan zitekeela ikusi genuen, alderaketa batzuek ez baitute behar adina sendotasun erdietsi. Bigarren saioan lagin zabalagoa hartuko dugu eta, horrez gain, lagin hautatu bat (Iraizoz 1978, 1979) gehituko diogu.

Akatsak akats eta gabeziak gabezi, lan honetan autoreak eta hizkerak alderatzeko erabili dugun metodoak emaitza interesgarriak ere ekarri dizkigu. Alderaketa lexikoaren bitartez hizkuntza eraginak (bai autoreenak eta baita hizkerenak ere) aztertzea posible dela uste dugu. Iparralde eta Hegoaldeko autoreen arteko alderaketa egin dugunean, banaketarekin bat zetozen emaitzak agertu zaizkigu (agian mendebalde vs. ekialde banaketa batez hitz egitea egokiago litzateke). Hizkerai dagokienez, emaitza interesgarriak lortu ditugu hizkera bakoitzari bere baitan begiratu diogunean, baina lehen aipaturiko corpus arazoek euren arteko harreman edo eraginak aztertu ahal izatea biziki zaildu dute.

Azterketaren emaitzetatik lorturiko ondorioei dagokienez, ezin izan dugu frogatu zein autore izan den Lizarragarengan eragin handiena izan duena, lagina filologikoki behar bezain beste aztertu ez dugulako. Gure laginetik, Lizarragak 161 hitz partekatzen ditu Larramendirekin, 117 Mendibururekin, 116 Kardaberazekin eta 103 Axularrekin, baina kopuru horiek atzean zer duten ezagutzen ez badugu, zeharo hutsalak dira. Baliteke lagina zabalduz, eta pisu filologiko handiago bat emanaz, emaitza esanguratsuagoak lortzea eta autoreen ezaugarriak ezagutzeko baliagarriak izatea.

Gure ikerketarako garrantzi handia ez duen arren, hitz motei begiratzuz zenbait ondorio atera ahal izan ditugu. Hala, ikusi ahal izan dugu Larramendik duela orokorrak diren hitzen ehunekorik handiena (%46) eta berdin, alde nabarmenarekin gainera, konposatuena (%9). Mendiburu da autorerik gordetzailena, ondare zaharreko hitz, mailegu eta aditz gehien erabiltzen duena baita (%57, %18 eta %6 hurrenez hurren). Agian, horregatik da eremurik zabalena hartzen duen lexikoa erabiltzen duen autorea eta hego-nafarrerako gure corpusean jasotako hitzekin bat etortze gehien duena (%90).

Kardaberazek erabiltzen du mailegu gehien, zaharrak (%17) ala berriak (%9) direla ere eta Axular da lexikoari dagokionez ekialderen lerratzen den autorea.

Hego-nafarreraren hizkerari dagokienez, emaitzak esanguratsuagoak izan direlakoan gaude. Alde batetik ikusi ahal izan dugu hitz orokor asko aurki daitezkeela hego-nafarreraren barrenean, %34 orokorrak baitira (2. taula). Hizkera bakoitzaren izaeraren zantzuak ere agertu zaizkigu. Erdialdeko hego-nafarrera da ondare zaharreko hitz gehien duena (%62), gordetzailleena edo. Ekialdeko hizkerak izan du hitz orokorren kopururik handiena (%65,5), agian, hego-nafarreratik kanpoko euskalkiekin harremanik gehien izan duen hizkera zelako. Hegoaldekoa da hitz orokor gutxien dituen hizkera, baina ez hori bakarrik, hego-nafarrerako gainerako hizkerekin bat etortze gutxien duen hizkera ere bada eta horrek hizkerarik isolatuena zela pentsatzera eramán gaitu. Horrekin batera, mailegu berri gehien duen hizkera da. Horrek erakutsiko luke hizkera hau erdaren eragin handiena jasaten zuena zela. Mendebaldeko hizkerak erakusten dituen datuak erdialdekoetik gertu daude: hitz orokorren kopurua hegoaldekoaren oso antzekoa da (%29 hegoaldean, %30 mendebaldean), baina gainerako hizkerekin duen bat etortzea %100 da. Pentsa genezake beraz, hegoaldeko zein erdialdeko hizkerekin zutela harremanik gehien hego-nafarreraren baitako gainerako hizkerekin.

Lizarragak hitz berriak sortzeko erabilitako prozedurei dagokienez, hapaxak eta lehen aldiz erabilitako hitzak modu filologikoago batean aztertu ditugu eta horrek horien inguruko beste ikuspegi bat eta eraginak benetan frogatzeko aukera eskaini dizkigu (cf. *baimende*).

5. Bigarren saioa

5.1 Corpusa

Lehen saioan laginaren tamainarekin edukitako arazoak gainditu nahiz (§4.4), *JMSB*tik harturiko laginaz gain (§4.1), Iraizozen “Vocabulario y fraseología de Joaquín Lizarraga” (1978, 1979) baliatu dugu bertatik item lexikoak atera ahal izateko. Lan horretan, Iraizozek Lizarragaren *Sermones de Decalogo et Oratione Dominica etc* (1782-1784) eskuizkributik hautaturiko item lexikoen zerrenda bat aurkezten du. Gure laginetik eta Iraizozen lanetatik A, B, D eta E hizkiez hasitako item lexikoak hartu ditugu, horrela, 581 elementu biltzen dituen lagina eskuratuz. Laginaren izaera aldatu

da, beraz, alde batetik lagin “itsu” bat daukagulako (*JMSB*) eta bestetik hautaturiko beste bat (Iraizoz). Lagin itsutik harturiko item lexikoen kopurua 237tik 329ra igaro da eta Iraizozen lanetik, guztira 252 hitz hartu ditugu. Hortaz, lagin berriaren %56,6 lagin itsutik hartua izanen da eta gainerako %43,4 lagin hautatuari dagokio.

Informazioa biltzeko, lehendabiziko saioan bezala, *OEH* eta Sarasolaren *Euskal hiztegia* (1997) baliatu ditugu, *Euskal Klasikoen Corpusarekin (EKC)* batera. Lehena izan da oinarritzko informazioa jasotzeko erabili izan duguna eta beste biak informazio gehigarria lortzeko baliatu ditugu batez ere. Horrez gain, lehen saioan ez bezala, ia osorik baliatu dugu Lizarragaren obra (ikus bibliografia) hitz bakoitzaren inguruko informazio ahalik eta zehatzena izateko.

Lehendabiziko saioan *OEH* baliatu genuen ekialdeko aldaerari buruzko informazioa eskuratzeko (“Ae”) eta hizkera bakoitzaren corpusaren artean asimetria handia zegoen. Horrek ekarritako ondorioak ekiditeko (§4.4), Caminok 1982tik gaur egun arte Aezkoan ahoz jasotako hitzen zerrenda helarazi digu, ekialdeko hego-nafarreraren lexikoaren lekukotasun zuzena eskura jarritz. Caminoren zerrendatik A, B, D eta E hasiera duten 1572 item lexiko ekarri ahal izan ditugu gure corpusera. Mendebaldeko eta erdialdeko hizkeren corpora handitzen saiatu gara ere, baina ezinezkoa izan zaigu bertako testu berririk ekartzea aurretik genuen zerrendara. Gauzak horrela, honela geratu da hego-nafarreraren corpusaren banaketa hizkeraz hizkera (parentesi artean lehendabiziko saioan erabilitako item lexikoen kopurua):

Mendebaldeko hego-nafarrera	Erdialdeko hego-nafarrera	Hegoaldeko hego-nafarrera	Ekialdeko hego-nafarrera
425 (425)	258 (258)	2028 (2028)	1572 (0)

30. taula: hego-nafarreraren zerrendetara bildutako hitzen kopurua hizkeraka.

Horrez gain, Ondarrak (1982) argitaratu *Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi* lana erabili dugu. Lan horretan, aipatu lau herrietan Bonapartek jasotako 1247 hitzez osaturiko zerrenda eman zuen ezagutzera eta gure lanerako oso lagungarria izan da erdialdeko (Elkano), hegoaldeko (Gares) eta mendebaldeko (Oltza eta Goñi) ahozko hizkeren informazio oso baliagarria eskaintzen duelako.

5.2 Informazioa jasotzeko metodoa

Informazioa jasotzeko, lehen saioan erabili dugun antzerako metodoa erabili dugu (§4.2), baina oraingoan hitz motari (ondare zaharra...) ez diogu erreparatu, gorago aipatu dugun bezala (§4.4), gure ikerketarako ez baita oso informazio esanguratsua. Horrekin batera, aurreko puntuan aipatu bezala, item lexiko bakoitzak Lizarragaren lanetan izandako agerpenak aztertu ditugu, bakoitzaren deskribapena egiterakoan ahalik eta informazio zehatzena jasotzeko.

5.3 Azterketa

Lehendabiziko saioa zenbakietan oinarrituegi dagoela agerikoa da. Zenbakiak eta ehunekoak izan ditugu ardatz eta, ikuspegi orokor bat eman diguten arren, ez ditugu espero genituen emaitzak lortu. Blancoren (2014) metodoa erabiltzen saiatu gara gure ikerketari apur bat egokiturik, baina funtsean itsuki. Oraingoan, datu orokorrei ere begiratuko diegu, baina hitzak banan-banan aztertuko ditugu.

Honakoak dira bigarren saio honetarako jasotako laginaren agerpen kopuruak:

Elementuak	Orokorrak	Hego-nafarreran	Kategoria
581	104 (%18,2)	Hego: 254 (%43,7)	Adberbioak 54 (%53,6)
		Erdi: 143 (%24,6)	Aditzak 118 (%11,3)
		Mend.: 163 (%28)	Adjektiboak 42 (%6,3)
		Ekiald.: 97 (%16,7)	Izenak 299 (%18,9)
		Guztira: 322 (%55,4)	Besteak 56 (%10,1)

31. taula: Bigarren laginaren agerpenak sailkatutik

Taulan ikus daitekeenez, jaso ditugun 322 item lexiko (%55,4) hego-nafarreraz ere jaso ditugu. Bestela esan, 228 (%39,2) ez dira hego-nafarrerazko gure corpusean ageri. %39,2 horren barruan honakoak daude, besteak beste: gure corpusaren izaera dela eta (§5.1) jaso ez ditugunak, hizkera bateko esklusiboak izan daitezkeenak (*abeldun* ‘zaldun’) eta ziurtasun gehiagorekin edo gutxiagorekin, bertakoak ez direnak, (Larramendik asmatuak (cf. Lar. *esangi*), beste autoreren baten liburuetan ikasitakoak edota Lizarragak eraturikoak (cf. *ainkuria*) direlako). Aurreko bi kopuruak (hego-nafarreraz jasoak eta ez jasoak) gehiturik, 581 agerpenak osatzeko falta diren 31 elementuei dagokienez, lema beraren baitako aldaera jaso dugu hego-nafarreraz, baina

Lizarragak beste bat erabiltzen du (adibidez, *exenplu* darabil Lizarragak eta mendebalde, hegoalde eta erdialdeko hego-nafarreraz *exemplo* jaso dugu).

5.3.1 Lizarragaren iturriak

Lizarragaren iturrien hipotesia mantendu dugu bigarren saio honetan eta, hortaz, autore berei begiratu diegu oraingoan ere. Bigarren saio honetarako bildu ditugun 581 item lexikoetatik, Larramendik guztira 314 (%54) bat etortze izan ditu, Mendiburuk 251 (%43,2), Kardaberazek 215 (%43,2), Axularrek 198 (%34) eta aurreko lau autoretariko batek ere erabili ez dituztenak 209 (%35,9) izan dira. Oraingoan, azterketa filologikoa egin dugu eta elementuak sakonago aztertu ditugu gure hipotesiak frogatzeko. Hala ere, jaso ditugun item lexiko guztien artean hautaketa egin dugu eta esanguratsuen iruditu zaizkigunak ekarri ditugu lan honetara.

Puntu honetan, zehaztu nahi genuke elementu bat lan batean agertzeak ez duela halabeharrez esan nahi bertatik harturikoa denik. Hori aurrerago ikusiko dugu, hitzak banaka aztertzerakoan (§5.3).

Soilik Larramendiren hiztegian agertzen diren 54 hitz edo aldaera jaso ditugu (ez Mendibururen idazlanetan, ez Kardaberazenetan eta ezta Axularrenean ere): *abarrikatu*, *adiarazi 1*, *adiarazi 2*, *agerri*, *aien*, *aingira*, *aisatu*, *aker*, *alikota*, *alokairu 2*, *amagarri*, *amalaur*, *amarrendu*, *amatasun*, *ameka*, *antxume*, *arageiti*, *aragitu*, *ardai*, *argibegi*, *argi ta garbi*, *ari 1*, *arilkatu*, *arilko*, *ar-lauza*, *arrantzari*, *arrikatu*, *arrosa koloreak*, *arrustai*, *atertu*, *ats*, *aurzai*, *baita 2*, *bakandu*, *baketze*, *baño*, *bateratu*, *bedratzi*, *bekala*, *berex*, *bilo*, *botatu*, *buratso*, *burkaiztu*, *burrunba*, *deseagarri*, *deskuidatu*, *diabetatu*, *erakustun*, *erreinatu*, *errepausa*, *erreskatatu*, *errotu*, *esangi*.

Honakoak Mendibururen 14ak: *admirable*, *agitu*, *agoz*, *agoztto*, *aintzura*, *albas*, *aldarte 1*, *aldioro*, *arakindegia*, *arinkeria*, *arrika eman*, *bizikide*, *epifania*, *eskulan*, *esne*.

Kardaberazetak 13 dira: *aborrezitu*, *admirazio*, *afekto*, *agrabio*, *alibio*, *dixoso*, *-a*, *enkarnazio*, *erreal*, *erreberenzia 1*, *errepara*, *eskoji*.

Axularren 19ak, aldiz, honakoak: *ainberze*, *aingiru*, *alegranzia*, *alokairu 1*, *amen*, *autara eman*, *baita 1*, *baitan 3*, *enpleatu 1*, *enpleatu 2*, *erdiskatu*, *eriotze*, *erresumin*.

Honakoak dira zerrendaratu ditugun 46 hapaxak: *ainkuri, aisura, aixtean, aizera, ajent, algo, alkaizun, alokatu 1, altsai, alzurto, amorosgarri, animaletu, arrabutxa, arratio, arraxa, arraziatu, arrero, arrofela, atxondu, baimende, baitan 1, bankirrot, bentzait, bidro txinta, bilo ondo, biranaka, buldurka, bulintz, bunbots/bonbots, burrunba, burugain, burzeñu, doaiik, dudaketan, dudankara, ear, elur mulleta, emanka, erranzale, erreflon.*

Eta hauek lehen erabilerak (63): *abeldun, adrendu artu, agertu-nai, aialdeko, aintzu, aiots, aixkidea, aizeratu, ajaja, akorritu, alakorik ala, alas edo olas, alesta, alfer gorri, alkitz, amarka, amiña, amorostu, an emenean, an-emenka, angabetu, antzarka, arilko, ario, ariora, armarri, armirmau, arrantzu, arrerauntsi, arrizio, artxaun, artzi, atal pokale, atapur, atsanditu, atsanka, atxon, atxun, baldurro, bateo, bateratu, besaka, bidanabar, bizitoki, buluxi, burkaiztu, burukal, diabetatu, eraiki, erakustun, errokatu, errotu, eskaida, eskergaitz, eultzi, ezaundu.*

Gorago aipatu dugun bezala, esplizituki aipatu berri ditugun elementu guztiak ere ez ditugu lan honetara ekarri. Hori da, esaterako, *ajaja* ‘carcajada’ hitz onomatopeikoaren kasua, ez baikara gai izan informazio interesgarririk aurkitzeko. Horrek ez du esan nahi halakorik aurkituko ez dugunik, baina horrek denbora asko eskatzen zigun eta elementu mamitsuagoak edota informazioa eskuragarriago zutenak hobetsi ditugu lan honetan aurkezteko.

Jarraian, azterketaren mikroegitura eta bertan erabilitako terminologia aurkeztuko ditugu eta, horren ondotik, hitzen azterketan murgilduko gara.

5.3.1.1 Mikroegitura

Honela antolatu dugu jasotako item lexikoen inguruko informazioa:

Abre₁: ‘mamífero mayor doméstico’₂. *Aho*₃. (EkiHN)₄. Larramendik eta Axularrek erabilitako hitza [...]₅. (ik. **abere**)₆

1. Letra beltzez, item lexikoa.
2. Kakotx bakunen artean, esanahia gaztelaniaz.
3. Letrakera etzanez, jatorri proposamena (autorea, ahozkoa, zehaztu gabea).

4. Parentesi artean, hego-nafarrerazko zein hizkeratan jaso dugun, baldin eta hego-nafarreraz agerpenik badu.
5. Item lexikoaren inguruko informazio edo azalpenak.
6. Parentesi artean, erreferentzia gurutzatuak.

5.3.1.2 Erabilitako laburdurak

*OEH*ren eredia jarraitu dugu autoreen laburdurei dagokienez. Gainerakoan, gure sistema sortu dugu:

Aho.: Ahozkotik hartu hitz edo aldaera	L: lapurtera
Zg.: Zehaztu gabea	B.: baztanera
?: Zalantzazkoa	BN: behe-nafarrera
LS.: Lizarragak sortua	S.: zuberera
Ax.: Axular	R.: erronkaria
Cb.: Kardaberaz	Sal.: zaraitzua
Lar.: Larramendi	HN: hego-nafarrera
Mb.: Mendiburu	MHN: mendebaldeko hego-nafarrera
V: bizkaiera	HHN: hegoaldeko hego-nafarrera
G: gipuzkera	ErdHN: erdialdeko hego-nafarrera
AN: goi-nafarrera	EkiHN: ekialdeko hego-nafarrera

32. taula: laburdurak

5.3.1.3 Corpusaren hitzez hitzeko azterketa

Abarrikatu: ‘romper, hacer pedazos’. *Aho.* (ErdHN, EkiHN). Larramendik *abarrakitu* dakar hitzaren lehen agerpena jasotzen duen *Azkoitiko sermoian* (Lakarra, 1985) eta *HHn*. Dena dela, Lizarragak, Satrustegik (1981) bildu Erroko sermoiak eta ekialdeko hego-nafarrerako gure corpusak metatesiarekin dakarte hitza. Lakarraren (1985: 264) ustez, “ia seguruenik Lizarragaren lekukotasuna harengan [Larramendi]

oinarrizten [...] da”. Badirudi ahozkotik harturiko aldaera dela eta Aezkoa eta Erroibarko lekukotasunek indar handiagoa ematen diote gure proposamenari.

Abeldun: ‘jinete’. *Aho? LS?*. Larramendik (s.v. *caballero*) *zalduna, zamalduna, ezkutaria* ematen ditu. Horietarik, Lizarragak *zaldun* erabili zuen soilik, *soldadu zaldisko, zaldisko* eta *kaballerorekin* batera. Aztertu ditugun lanetan, ordea, ez dugu *abeldun* jaso, baina Iraizozek aztertu lanean agertzen da (1978: 246). *OEH*ren arabera, hitz honen lehen erabilera Lizarragak egin zuen eta Iraizozek “gente de a caballo, jinete” ematen du itzulpentzat (ibid.). Ekialdeko hego-nafarreran *abre gende* ‘caballerias’ eta *abre* ‘zaldi jendea-eta’ jaso ditugu. Gauzak horrela, bi aukera ikusten ditugu hitz honen jatorriari dagokionez: ahozkotik jaso izatea ala Lizarragak berak asmatua izatea. Hala ere, oso ugariak dira euskaraz *abel-* hasiera duten hitz elkartu eta eratorriak: *abelbide, abeletxe, abeltzain, abelgorri, abeltegi*... Lehen hipotesiaren alde eginen luke ekialdeko *abre gendek*, baina hego-nafarreraz Lizarragarena baino lehenagokoa den beste agerpen bat aurkitzea frogatzea hobea litzateke. Lizarragak sortutako hitza balitz, baliteke Larramendiren *zaldun* hitza oinarri hartuz sortu izana, baina hori egiaztatzeko *-dun* atzizkia baliatuz sorturiko hitz gehiago aurkitu beharko genituzke eta oraingoz ez ditugu bere eratorpenaren xehetasun guztiak ezagutzen.

Aborrezitu: ‘aborrecer’, *Aho?*. (HHN). Mailegua, Beriainek erabilitakoa eta haren ondoren Kardaberazek. Hegoaldeko hego-nafarreraz agertzeak ahozkotik jasotako hitza izan daitekeela pentsatzera garamatza. Ziurrenik ez zen kalean ahoz aho ibiltzen zen hitza, baina bai eliza giroan. Hala ere, ezin dugu Kardaberaz eragina erabat baztertu. Larramendik zenbait aukera ematen ditu *aborrezitu* saihesteko (s.v. *aborrecer*): “*gorrotatu, gaitzetsi, higuindu, gorrotoa, gaitzerizcoa, gaitziriztea izan, iduqui*”. Horietatik zenbait erabiltzen ditu Lizarragak eta honakoak dira erabilera kopuruak: *aborrezitu*¹¹ (63), *aborrezigarri* (2), *aborrezitzen* (48), *gorrotagarri* (1), *gaitzetsitzen* (5), *gaitzetsi* (4), *gaitzetsiturik* (1). Kopuruei erreparatuz eta aurrekoak kontuan izanik, ahozko jatorriaren alde egin dugu.

Admirazio: ‘admiración’. *Aho?*. (ErdHN). Iparraldean tradizio luzea du *admirazione* aldaerak, Leizarragatik hasi eta Pouvreau, Gasteluçar, Chourio, Haraneder eta abarrek erabili baitzuen. Hegoaldean ez du tradiziorik, *OEH*ren arabera, Kardaberaz

11 *Aborrezituen* kopuruan *aborrezitus, aborreziturik* etab. ere zenbaturik daude.

izan baitzen *admirazio* aldaera idatziz erabili zuen lehena (1764). Erdialdeko hego-nafarreraz, Larrasoñako XVIII. mendeko testuan *admiraziorequi* jaso dugu. Gauzak horrela, baliteke soilik hizkuntza jasoan erabilitako mailegua izatea, agian eliza giroko ahozkotik harturikoa.

Adrendu artu: ‘tener en cuenta, fijarse’?. *Aho*. Larramendik (s.v. *Tomar en cuenta*) *kontura hartu* ematen du. *Adrendu hartu* aldaerari dagokionez, *OEHN* ‘entender’ proposatzen da eta Iraizozek (1978: 247) ‘atinar, acertar; comprender’ itzultzen du. Gure ustez, ordea, egokiagoa da ‘tener en cuenta’ edo ‘fijarse’, Lizarragaren agerpenak aztertutik behinik behin:

Batzuek errateunte preziso dena txusto txustoa; berze batzuek mila itz alfer, ta preziso estiren kontuak. Ta ala estaike adrendurik artu luzean ta laburrean. (Pagola, 2004: serm 80 – 7)

Emengo on gaitzetan ez dezakegu adrendurik artu (Iraizoz, 1978: 247)

Ez daike adrendurik artu ontan: dabila erioa zar ta gazte, on ta gaistoetan nasteka (ibid.)

Oroat agitzen da gezurtieki, nola balire lengoaje entenda ez daiken bat:, guzia al rebes: diotelaik bai, ez, ta diotelaik ez, bai, ta ezin adrendurik artu (ibid.)

Ez dugu hego-nafarreraz jaso, eta *OEHN* eta *EKCn* ez da Lizarragak gain beste autoreren erabilerarik lekukotu.

Afekto: ‘afecto, deseo’. *Aho?*. (HHN *afektu*). Larramendik (s.v. *afecto*) *gogoa* eta *bihotzgintza* ematen ditu. Lizarragak *gogoa* hitza ‘arima, konzientzia’ eta ‘nahia’ bezala erabiltzen du eta *bihotzgintza* ez du erabiltzen. Kardaberazek ere *afekto* erabili zuen eta hego-nafarreraz *afektu* jaso dugu. Gure ustez, ahozko iturri jaso batetik hartua izateko aukera handiak ditu.

Agitu: ‘acontecer, suceder’. *Aho?*. (EkiHN). *OEHN*ren arabera, Mendibururena da agitu ‘gertatu’-ren lehen lekukotasuna eta batez ere goi-nafarreraz eta zubereraz jaso izan da XVIII. mendetik aurrera (batez ere Mendiburu eta Lizarragaren lanetan) eta ondoren XIX.ean iparraldeko gainerako hizkeretara zabaldu zen. Ekialdeko hego-nafarreraz ahozkoan jaso dugu, hortaz, egiantzekoagoa da ahozko tradiziotik hartua izatea, Sarasolak (1986:214) aipatu zuenez, Aezkoa bezalako alderdietan “euskaldun ikasirik ez zegoela eta [...] kultur arazo baten ondorioz «irabazi» ez den [hitz]” ugari

daudelako. Dena dela ez dirudi ezinezkoa hitzaren zabaltze prozesuan Mendiburu eta Lizarragak eragina izatea.

Agoz: ‘paja’. *Aho*. (ErdHN, EkiHN). Mendiburuk ere badarabilen arren, hego-nafarrerazko corpusean jaso dugu hitza eta hego-nafarreraz gaindi, egun Nafarroako zenbait lekutan (cf. Arbizu) ahozkoan erabiltzen den hitza da.

Agrabio: ‘agravio’. *Aho?*. (HHN). Kardaberazek erabilitako hitza; Larramendik “Agravio, injuria, *irainá, bidegabé, bidebagueá*” dakar alde batetik eta “Agravio, daño, *caltea*” bestetik. Lizarragaren lanetan ez dugu *irain* hitza aurkitu; bai ordea, *bide gabe* bereiz idatzirik. “Benefizioa ta agradezimentua elkarri darraizkio, [...] ala da txarrerria ta bide gabea ez ongigilleai eskerrak ematea” (2004: Sermo XLIV). Gauzak horrela, *agrabio* ahozkotik harturiko hitza delakoan gaude, baina baita erdaratik, mailegu jaso bezala.

Aialdeko: ‘aliado’. *Aho?*. Lizarragarena da hitz honen lehen lekukotasuna. Larramendik (s.v. *amigo*) *adiskide* eta (s.v. *compañero*) *laguna, elkarguna, alkarguna, soinkidea* dakartza. Lizarragak, horietarik, *adiskide* eta *lagun* bakarrik erabili zituen. Aztertutako gainerako autoreek, ordea, ez dute *aialdeko* erabili. *OEHk* (s.v. *aialdeko*) “compañero, socio, el que está al lado; protector, ayudante” ematen du eta Iraizozek “compañero, socio, el que está al lado” (1978: 248). Guri, Lizarragaren adibideak ikusirik, egokiago iruditu zaigu ‘aliado’ erabiltzea, ‘compañero, socio’-ren oso antzeko esanahia izanagatik ere semantikoki alde txiki bat dagoela iruditzen baitzaigu:

Kontra goratu ze makur bat deitua Pierleon, zituena bere aialdekoak (1994: 407).

Dudatzen asi ze bi aldis ala errate garreki; baña kendu zioite burutik aialdeko lagotero gaixtoak (1994: 428).

Etxalde ona du, dote ona du, ondasun ona du, aialdeko onak tu (2004b: Serm. 110).

Orazio-gisa gonek dezazke eraman, ta konbeni da eramatea irur aialdeko. Zein dire? Kontriziosko negarrak, penitenziasko mortifikazioak ta limosna edo obra miserikordiasakoak (2004b: Sermo in dominica 5^a).

Dena dela, Lizarragak oso gutxi erabili zuela ikus daiteke agerpen kopuruari begiraturaz: *aialdeko* (10), *adiskide* (323) eta *lagun* (116). Hego-nafarreraz ez dugu *aialdeko* aurkitu, bai, ordea, *lagun, adiskide* eta *eixkidetu*. Lizarragaren lekukotasuna

baliatuz, Azkuek bere hiztegian jaso zuen *aialdeko* eta horren ondotik beste zenbait erabilera aurkitu ditugu (Orixe, Gurbindo, Erkiaga...). Ahozkotik harturiko hitza delakoan gaude, baina baliteke Lizarragak sorturikoa izatea, agian, guk proposaturiko *aliado* eta euskarazko *aldeko* oinarri hartuz.

Ainkuria: ‘quejido’. *Lar?*. Lizarragaren hapaxa; *OEHN* eta *EKCn* ez da Lizarragaz beste hitza erabili zuen autorerik aipatzen. Baliteke *HHtik* harturiko hitza izatea, irakurketa oker baten ondorioz hapax bihurtua. Baliteke, Lizarragak *incuria* irakurri izana eta hasierako *a* txertatu izana. Honakoa dakar Larramendik: “Quexido, en los hombres, *eroyua*; en los perros, y otros animales, *inciria, incirina*. Lat. *Quaestus, gemitus*” (1745 (2): 210). Gure ustez *i* eta *r*-ren arteko orbantxoak *ciri* > **curi* irakurtzera eraman zezakeen.

Quexido, en los hombres *eroyua*; en los perros; y otros animales, *inciria, in-*

17. Ilustrazioa: *HH* (s.v. *quexido*)

Lizarragaren agerpen gehienek, gainera, zakurrekin loturiko oihu edo zaratei egiten diete erreferentzia:

1. “[...] ta ura egoten ze kanpotik ainkurias txakurra bekala” (2004c).
2. “Inzue orázio, ta tzacúrrac ecin passatucire alcina, baizik aunkas ta ainkurias itzuli zire Nausiengana laster” (1994: 246).
3. “Naiz egin ainkuria gorputz miserableak” (Iraizoz, 1978: 249).
4. “Sartzen da maipean zakurra umil, beldurrak, ainkurias, utzirik agotik aragizatia” (ibid.).

Gainera, Lizarragak pertsonekin *keja* erabiltzen du gehienetan.

Aintzu: ‘imagen, figura’. *Aho?*. Lizarragarengandik hasita lekukotzen da eta autore ugariren lanetan jaso da, baita XVI. mendeko goi-nafarrerazko testu batean ere. Larramendik *antzo* ‘semejanza’ eraman zuen *HHra* eta Axularrek *antzu* erabiltzen du ‘como, a modo de’ eta ‘estéril’ adierazteko. Mendiburuk *aintzu* dakar eta haren atzetik Ubillosek eta Lizarragak erabili zuten XIX. mendean eta Darricarrèrek eta Iraizozek XX.ean. Goi-nafarreraz hain agerpen goiztiarra izanik, litekeena da *aintzu* ahozkotik hartu izana.

Aisura: ‘comodidad, facilidad’. *LS?*. Larramendik “Habito, costumbre, facilidad de hazer algo, *aztura, oitura*. Lat. *Habitus*” dakar eta baita “Facilidad, *erraztura, aitsia*,

egincará”. Bestalde, “Holganza, quietud, reposo, asantza, aisaera. Lat. Requies” ere bildu zuen. Urgellek erakutsi zuenez, ‘ekintza / ondorioa’ adierazteko “-dura, -tura, -ura erabiltzen zuen Larramendik (2003: 213). Hego-nafarreraz *aisa*, *aise* eta *erraz* jaso ditugu, baina Lizarragaren lanari begiratuz gero, agerikoa da erosoago zitzaioela *aisa* (164 agerpen) *erraz* baino (4). Baliteke Larramendiren “sistemaz” ohartu izana eta *facilidad* sarrerako *errazturan* oinarrituz *aisura* sortu izana.

Aixtean: ‘hace un momento’. *Aho*. (EkiHN *aixtian*). *OEHN* (s.v. *arestian*), aldaera honendako, Lizarragaren adibideak jaso dira soilik. Hego-nafarreraz *aixtian* jaso dugu eta, beraz, uste dugu Elkanoko aldaeraren aitzinean gaudela.

Aizera: ‘la aventura del trigo’?. *Aho?*. *Aizeratu* ‘aventar el grano’ hitzari dagokionez, Lizarragarena da erregistraturiko erabilera bakarra. Larramendik *aizatu* ‘aventar el trigo’ dakar, baina ez dirudi hori izan zenik iturria, azaltzeko oso zaila baita Lizarragak zergatik gehitu zion hitz barneko -ra-. *OEHN* jasotakoaren arabera, *aizaatu* dago Fray Bartolomeren lanean eta Oñatin *artzaatu* ‘aventar con la criba’ (Izaguirre, 1970: 62), bokalarteko dardarkariaren galeratik heldu diren bokal luzeak islatuko lituzketenak. Ekialdeko hego-nafarreraz, *aizatu* ‘uxatu, kasatu’ jaso dugu, esanahi hedapenaren bitartez gariarekin egiten den lana adierazteko erabil daitekeena. *Aizerari* dagokionez, Iraizozek (1978: 250) ematen duen adibide bakarra izan dugu eskura eta hura ere ez da oso gardena; guk bildutako corpusean, aldiz, ez da ageri: “la aventura del grano. *Aizera egin*: aventar el trigo etc.” (ibid.). Baliteke, hortaz, Iraizozek sorturiko hitz iratxo baten aurrean egotea.

Aldarte: ‘intervalo’. *Aho?*. (EkiHN?). Lizarragak ‘tarte’ bezala erabiltzen du, gehienetan instrumentalarekin ‘tarteka’ adierako adberbioak sortuz: “[...] ta zaldun garren maleta bateki soñean zoeie alzinean oñes, ta aldartez lasterka ladronen kasos elur, eta loietan!” (1994: 87); “eta oñaze gau [hau] aldartes biziago da, aldartes ilago, baña beñere ez ain il, ezi uz nazan libre” (ibid.: 338). Mendiburuk ere ‘tarteka’ adierarekin erabiltzen zuen instrumentalarekin: “Ez ote zait, zenbait aldartez, eskergabeko eran berotzen niri nere mii galdu au” (1904 (2): 163). Ekialdeko hego-nafarreraz antzeko adiera izan dezakeen adibide bat ere jaso dugu. Bertan, *aldarte (gori)* ‘astia izatea’ jaso dugu, baina testuingurua ezagutzerik ez dugu izan eta hortaz

ezin esan *aldarte* bera den ala ez. Iitem lexiko honi dagokionez, informazioa osatzeko dugu.

Aldioro: ‘todas las veces, siempre’. *Aho*. (MHN). Hitza hego-nafarreraz jaso dugu eta gaur egun ere *aldira* aldaera erabilia da Nafarroako zenbait alderditan (guk entzuna Sakanan). Mendiburuk ere erabili zuen eta horrek eremu zabalean erabilia zela erakutsiko luke.

Aldiri: (Ik. **Aldirita**).

Aldirita: ‘comarca’. *Mb?*. Salaberrik (2008: 599) Larramendirengandik harturiko hitzat dauka eta hark Leizarragari hartu ziola frogatu zuen Urgellek (2000: 68). Guk aztertu ditugun autoreen artean, Larramendik eta Mendiburuk erabili dute hitza. Leizarragak, Oihenartek eta Belapeirek erabili zuten lehenago eta Povreaux ere bere hiztegian jaso zuen. Larramendiren lekukotasunari bagagozkio (1745: 211), “Comarca, *aldiria*” ematen du eta “Comarcano, *aldiricoa*, *aldiritarra*”. 1729ko *Diccionario de Autoridades*era jotzen badugu (s.v. *comarca*), “El país contíguo y cercano a una tierra o lugar, que están en contorno de ella” eta (s.v. *comarcano,na*) “Circunvecino, cercano y situado al contorno de algún País, tierra, Ciudad, lugar o término”. Lizarragak zentzu horiekin erabiltzen du, baina gure ustez ez dago erabat garbi hitza *HH*tik edo beste nonbaitetik hartu zuen. Hona Lizarragaren lanetik ateratako adibide batzuk:

1. S. Jenobefa Parisgo Patrona jaio ze ango aldirita batean urbil (Apecechea, 1994: 107).
2. Atratzen ze aldirita eta montañaetara arimen eizian (Apecechea, 1994: 266).
3. sandu admirablea izan ze nekazari honratu birtuosen hume Groti aldiritan Toskanan (Apecechea, 1994: 363).

Ikus daitekeenez, Lizarragak hitz honen erabilera bitxia egin zuen, agian, ahoz jaso beharrean testu bidez jaso zuelako. Batetik, hitzaren ebakera ez zuen ongi egin (*aldirita*) eta, bestetik, bere erabilera ez dator bat gainerako autoreenarekin (cf. 3.). Eratorpenari dagokienez, honako agerpenak bildu ditugu Lizarragaren lanetatik: *aldiritar* (10), *adiritan* (7), *aldirita* (4 aldiz), *aldiritakoa* (2), *aldiritara* (2) eta *aldiritatik* (1). Iraizozek dakar *aldiriren* lekukotasun bakarra “*aldiri ta montaña*

gebetan” (1978: 251). Eskuizkribua aurrez aurre ikusi gabe, ez dago jakiterik Iraizozek forma aldatu zuenetz, grafia eguneratu duela aipatzen duelako (1978: 246), baina aurkituriko “akatsekin” izandako jokabiderari buruzko oharrik ez du egiten. Hitzaren erabileraz den bezainbatean, *OEHN* (s.v. *aldiri*) Lizarragaren garaia baino lehenagoko hamar adibide ematen dira eta horietarik zazpik genitiboa daukate aurretik (“haren aldiri”, “Iudeako aldirietara”...), bik partitiboa eta batek inesiboa.

Larramendiren lanetik hartu izan balu, gure ustez, ez luke aldirita erabiliko, “Comarca” eta “Comarcano” elkarren ondoan baitaude eta, beraz, hitza ongi ebakitzeko aukera lukeelako. *HH*aren hitzaurrean, jatorria adierazteko atzizkiari buruzko azalpenak ematen dira¹². Bertan oinarriturik ebaki izan balu, ulergarriagoa da, baina aztertzen ari garen bi hitzak elkarren ondoan egoteaz gain, “Aldeano, aldearra, aldeatarra” eta “Ciudadano, iritarra, uritarra” bezalako sarrerek ez dute Larramendirengandik hartutako hitza izatearen hipotesia laguntzen. Mendibururen *Festegunetarako irakurraldiak* lanean, behin bakarrik erabiltzen du *aldiritar* hitza: “Jangoicoaren escutic ondasun guztiz andiak beretu cituena da Treberisco nescach aldiritar bat” (Altuna, 1982(2): 22). *Urte guztiko igande ta festegunetarako irakurraldiak* en agerpen bana dute *aldiritar*, *aldiritarra*, *aldiritarrak* eta *aldiritarriek*, beraz, guztiz frogatu ezin daitekeen arren, litekeena da hitza Mendibururen lanetik hartu izana.

Alegranzia: ‘alegría’. *Aho*. Batez ere iparraldeko tradizioan erabili izan den hitza da honakoa. Mailegua izanik, modu askotara idatzi izan da eta Axularrek “alegriantza” erabili zuen. Larramendik (s.v. *alegría*) *atsegina*, *alegeria*, *poza*, *bozkarioa* proposatzen ditu. Lizarragaren aldaera 1796an oñatiar batek idatzitako bertso batean agertzen da lehen adiz (Urkizu, 1987: 103). Bertso horretan islatzen den hizkerak ekialdeko zenbait ezaugarri erakusten ditu (*khexa* ‘laster, bizkor mugitu’ (AN), *-rat* alatiboa, *zare* [izan, +orain, zu]), baina baita erdialdeko hizkerenak izan ohi diren beste batzuk (-e- [edun, +orain, 1. eta 2. pertsona, sg. eta pl.]). Lizarragarena *alegranzia* aldaeraren bigarren agerpena da eta ahozko tradiziotik jasotako hitza delakoan gaude, Lizarragak jaso arte sekula argitaraturik ez zelako izan.

Alibio: ‘alivio’. *Aho?*. Larramendik (s.v. *alivio*) *gozaera*, *atsedena*, *unalaita* proposatzen ditu eta Lizarragak lehen aukera baliatu zuen: Emen sollik aurkitzen dut /

12 “Navarra de nava llanura, y arra terminación que denota *al que es de*, significa habitador de llanuras, como *mendierra* habitador de montes, ò montañas” (1745: LXXIII).

arimaren gozaera” (1983: 183). Bestalde, Kardaberazen lanean ere *alibio* irakurtzeko aukera izan zuen, baina ahozko iturri jasoak zentzudunagoa ematen du.

Alokairu: ‘salario’. *Aho?*. Larramendik (s.v. *salario*) *salarioa*, *alogera* eta *saria* ematen ditu. Ekialdeko tradizioko hitza da, Axularrek ere erabilia. 1609ko Iruñeko olerki txapelketan Joan de Elizalderen olerki sarituan ere agertzen da, baina horren ondoren, Nafarroan ez du beste agerpenik Lizarragarenera arte, ezta gure corpusean ere. Urgellek “iparraldeko idazleengan lekukotutako hitzak” (2000 (erans): 295) eta “entzundako hitzak” (2000 (erans): 339) taldeen barnean sailkatu zuen.

Alokatu: ♦1 ‘asalariado’. *Aho?*. Leizarragarengandik hasita lekukotzen da *alokatu*, Larramendik *alogeratu* eta *alokairatu* ematen ditu (s.v. *ajornalado*). Hego-nafarreraz ez dugu jaso, baina hitzak duen tradizio luzeari erreparatuz, Lizarragak ahozkotik ezagutuko zuelakoan gaude. ♦2 ‘alquilar’. *Aho*. Leizarragak dagoeneko ‘alquilar’ bezala erabili izan zuen hitz hau eta harengandik hartu zuen Larramendik (Urgell, 2000: 769) (s.v. *alquilar*) “puede venir del Bascuence, aquíá, banco, en que comunmente se cuenta el precio, ò dinero, que se da por alquilar, *alquilatu*, *alogueratu*, *alocatu*”. Hitzaren tradizio luzea dela eta, ahozkoan erabilia zela uste dugu.

Altsai: ‘pastor’. *Aho*. Lizarragaren lanetan, lau agerpen ditu *altsai* aldaerak eta askoz ugariagoak dira *artzai* (212) eta *arzai* (67). *OEH* eta *EKC*ren arabera, Lizarraga da *altsai* erabili duen bakarra, hots, hapax baten aurrean gaudela dirudi. Hego-nafarreraz ez da *altsairen* agerpenik jaso, *ar(t)zai* eta *artzei* besterik ez. Baliteke Elkanoko aldaera zahar eskusibo bat izatea eta XIX. mendean dagoeneko fase sparitan egotea, Lizarragaren erabilera maiztasunak erakutsiko lukeen bezala.

Amarrendu: ‘diezmar, pagar el diezmo’. *Lar*. Hitz honen lehen agerpena Larramendiren hiztegian jaso da eta lehen erabilera Lizarragaren *Sermones de Decalogo et Oratione Dominica etc* (1782-1784) eskuizkribuan. *Amarren* hitza hego-nafarreraz eta beste lanetan ere agertzen den arren, ez da aditz bezala erabiltzen. Larramendik “Dezmar, *amarrendu*, *amarrenac eman dechematu*” (1745: 289) dakar. Lizarragak “amarrenak pagatu” formula erabiltzen du gehienetan: “Primiziak eta amarrenak Jangoikoari pagatu” (1983: 208), “pagatzea zorrak, amarren primiziak” (2004: serm 75) eta antzeko beste agerpen batzuk. Hala ere, gure corpusean aditz-izen bezala erabiltzen duen adibide bat aurkitu dugu: “hipokritak, amarrenzen duzienak menda ta deus guti

balio dutenak” (2004: Sermo in dominica 6). Bildu dugun corpusari begiraturik, Larramendirengandik harturiko hitza dela uste dugu. Erabilerari erreparatuz, maiztasun apala du *amarrendu* hitzak *amarrenak pagatu* formularekiko eta ahozkoan erabiltzekotan maiztasunak parekatuago leudekeelakoan gaude.

Amagarri: ‘digno de ser amado, amable, amoroso’. *Aho? Lar?. Amagarri* Larramendiren hiztegian agertzen da estreinakoz eta lehen erabilpena Elkanokoarena da. *Amagarri* eta *amorosgarri* elkarren ondoan paratzen ditu askotan eta esanahi aldetik berdinak direla ikusi ahal izan dugu. Aztertu ditugun lanetan, hiru agerpen ditu *amagarri* hitzak eta hirutik bitan, *amorosgarri* dauka ondoan; *amorosgarri* aldiz, hamar bider ageri da.

Hego-nafarrerazko corpusean *amoroso* jaso dugu eta Aezkoan (ekialdeko aldakian) *enamoragarri* erabiltzen da ahozkoan. Ematen du hego-nafarreraren baitako hizkerek oparo erabilitako baliabide bat dela. Ikusi ahal izan dugunez mailegu askorekin erabiltzen du Lizarragak *-garri* atzizkia; besteak beste: *aborrezigarri*, *admiragarri*, *amagarri*, *beneragarri*, *deseagarri*, *enfadagarri*, *enfadagarri*, *estimagarri*, *gozagarri*, *honoragarri*, *imitagarri*, *konsolagarri*, *kontagarri*, *lastimagarri*, *leigarri*, *notagarri*, *pasagarri*, *protxugarri*, *sentigarri* eta *tentagarri*. Maileguez gain, hainbat euskal hitzekin ere erabiltzen du: *alkaizungarri*, *arrigarri*, *galgarri*, *ikaragarri*, *ikusgarri*, *irrigarri*, *izigarri*, *izugarri*, *laudagarri*, *lotsagarri*, *maitagarri*, *miragarri*, *oroigarri*, *osasungarri*, *sinestagarri*, *sinetsigarri* eta *zoragarri*.

Gure corpusean jasotako elementuei ere erreparatu diegu eta ekialdeko hizkeran agertu zaizkigu gehienak: *alkeizungarri*, *apeingarri*, *barragarri*, *enamoragarri*, *famagarri*, *galgarri*, *kaltegarri*, *nahasgarri* eta *pasagarri*. Gainerako hizkeretan *abrasagarri*, *arrigarri*, *aspergarriek*, *ikaragarri* eta *maitagarri* aurkitu ditugu.

Ahozko iturriaren kontra eginen luke, ordea, gorago (§4.3) ekarri dugun Sarasolaren aipu batek: “[...] bada hizkuntza guztietan halako lotura hertsia bat idazkera jasoaren eta hitz eratorrien eta elkartuen ugaritasunaren artean; hots, hitz eratorri eta elkartuen ehuneko garaiak, hizkuntza landua, beregaina eta nolabait jaso adierazten du” (Sarasola, 1997: 635).

Gauzak horrela, gure ustez Elkanon ahozkoan erabiltzen ziren hitzak dira *amagarri* eta *amorosgarri*.

Amorosgarri: ‘digno de ser amado, amoroso’. *LS. OEH* eta *EKCn* ez da beste erabilerarik jaso, hortaz, Lizarragaren hapax baten aitzinean gaude. *Amagarri* baino oparoago erabili zuen (4 *amagarri* vs. 10 *amorosgarri*). Hala ere, euskal literatur tradizioan ez da oso ohikoa *-garri* atzizkia adjektiboekin erabiltzea. Aurreko guztiak Lizarragak sorturiko hitza dela erakutsiko luke. (ik. **amagarri**).

Arageiti: ‘lujuria’. *Lar. HHn* agertzen da lehendabiziko aldiz eta Lizarragarena da *OEHn* jasotako lehen erabilera. Hala ere, esan beharra dago eskura izan ditugun lanetatik bakarrean ere ez duela hitza erabiltzen, sistematikoki *luxuria* eta *luxurioso* erabiltzen baititu. Iraizozek erabili *Sermones de Decalogo et Oratione Dominica etc* (1782-1784) eskuizkribuan erabili zuen bakarrik, ez aurreko eta ezta ondorengo lanetan ere. Badirudi eskuizkribu horretan Larramendiren eragina nabarmenagoa dela (§5.4).

Aragitu: ‘hacerse carne’. *Lar.* Hego-nafarreraz ez da agertzen eta Larramendik baino lehen Oihenartek erabili zuen, baina Urgellek (2000: 354) Larramendik sortutakotzat dauka. Lizarragaren aurretik Ubillosek erabili zuen 1785ean eta Lizarragaren lekukotasuna 1793 ingurukoa da (1983: 31). Bi agerpenak denboran hain gertu egonik, Lizarragak zuzenean *HHtik* hartu zuela pentsatzera eramán gaitu.

Arakindegi: ‘carnicería’. *Aho?*. (EkiHN). Iraizozek jasotako hitza (1978: 256); guk erabilitako Lizarragaren gainerako lanetan ez da ageri. Larramendik ez zuen bere hiztegirako jaso (s.v. *carniceria*), *harategi* eta *epalleria* ematen baititu. *OEHn* Arakistainen erabilera hartzen da lehendabizikotzat “*araquindeguia*, n. Carnicería” (Fita, 1881: 75). Mendibururena da bigarren erabilera eta aurkitu ahal izan dugun adibide bakarrean ‘matadero’ adierazi nahi duela iruditzen zaigu: “Ardi ona araquindegira doan eran” (1904: 22). Mendiburuk agerpen bakarra izateak, jatorria hori izatea zailtzen du. Bestalde, Mendibururen ondoren Alphonsa Rodriguezek ere erabili zuen “Ardi bat harakindeira bezala eremana izan dela” (1782: 335) eta ekialdeko hego-nafarreraz ere jaso dugu. Azken bi lekukotasunek eta horrek ahozko iturritik harturikoa dela pentsatzera eramán gaituzte, ekialdeko hego-nafarrerak (ik. **amorosgarri**) eta Amikuzeko euskarak (Camino, 2016: 582, 583) ez baitute hegoaldeko eragin handirik jaso.

Argibegi: ‘alba’. *Aho.* (MHN, ErdHN, HHN). Larramendik “Alba, *argiaren beguia*” dakar. Hala ere, hitza hego-nafarreraz ere erabiltzen zen, Bonapartek Elkanon (*mendortzekin batera*), Garesen, Oltzan eta Goñin jaso baitzuen (Ondarra, 1982: 138).

Arilkatu: ‘ovillar’. *Aho.* (EkiHN *alikatu, allikatu*) Larramendik jaso bazuen ere, bere aurretik *Pouvreauk* eta *Urtek* jasorik zuten hitza. Hego-nafarreraz, *alikatu* eta *allikatu* jaso ditugu ekialdean eta *OEHN* jasotako lehen erabilera Lizarragarena da. Gauzak horrela, ahozko hizkeran erabilitako hitza delakoan gaude. (Ik. **Arilko**).

Arilko: ‘ovillo’. *Lar.* (EkiHN *aliko, alliko, ariko*). Larramendik *-ko* “Objektua’ edo ‘produktua’ adierako izengile”-ak izendatzeko erabiltzen duen atzizkia da (Urgell, 2003: 213) eta honakoa adierazi zuen “ovillo” sarreran: viene de el Bascuence *arilla*, que significa lo mismo, y es sincope de *aribilla, ariboilla*, redondo, globo de hilo, ò de *aripilla*, junta, monton, colección de hilo. *Arilla, arilcoa*, Lat. *Glomus*”. Elkanokoarena da lehen erabilera eta hego-nafarreraz *aliko, alliko, ariko* jaso ditugu. Lizarragaren lanetan ez dugu lekukotasunik jaso, Iraizozek (1978: 258) jasotako eta Larramendirenarekin bat datorren *arilko* aldaeraz gain. Lehen aipatu bezala (s.v. *arageiti*), badirudi eskuizkribu honek gainerakoek baino Larramendiren eragin handiagoa duela; hala balitz, hitza Larramendiri harturikoa izateko aukerak areagotuko lituzke. (Ik. **Arilkatu**).

Arinkeria: ‘frivolidad’. *Mb?*. Oso gutxi erabilitako hitza. Larramendik (s.v. *frivolo*) *zekai* ematen du. Aztertu ditugun autoreetatik Mendiburuk soilik erabili zuen. Hortaz, baliteke Lizarragak Mendibururengandik ikasitako hitza izatea, baina azken horren lanetan aurkituriko zortzi adibideek ez digute lotura egiteko nahikoa ebidentziarik eman. Hego-nafarreraz ez dugu jaso eta guk erabilitako *corpusean* soilik bi aldiz ageri da; *fribolo* hitzaren agerpen batekin batera. Mendiburu Lizarragaren aurretik erabili zuen bakarra izanik, jatorria harengan dagoela proposatzea iruditzen zaigu zentzuzkoena.

Arki: ‘carne de carnero’. *Aho?*. (EkiHN *ariki*). Larramendik *ariki* dakar eta hala dugu jasorik ekialdeko hego-nafarreraz ere. Lizarragaren lanetan soilik Iraizozek (1978: 258) erabilitako eskuizkribuan jaso da, guk erabilitakoetan ez baita ageri. Sinkopak eta ekialdeko hego-nafarreraz jaso izanak ahozko iturriaren alde egiten dute, baina agerpen

bakarra izanik, akatsa izatearen aukera ere zabalik uzten du eta, hortaz, ezin Larramendi guztiz baztertu.

Arlauza: ‘losa de piedra’. *Aho?*. (EkiHN). Larramendik (s.v. *losa*) “*arlauza, losâ*” dakar. Gure corpusean ere jaso dugu hitza eta Aezkoako toponimian ere lekukotzen da (*Arlauzeta* Garraldan). Lizarragak 23 aldiz “arr-lauza” idazten du eta hiru aldiz “arrlauza”. Beraz, egiantzekoena ahozkotik hartua izatea iruditzen zaigun arren, Larramendiri hartua izateko aukera ere badago.

Arrabutxa: ‘a boleto’. *Aho*. Aztertu ditugun autoreek ez dute hitza jaso eta hego-nafarreraz ere ez dugu jaso. *OEHN* aipatzen diren adibide bakarrak Lizarragarenak dira. Testuetan hapax izan arren, Iribarrenek (1952: 61) *arrebuxa* jaso zuen Nafarroako erromantzean eta baita Elorzek (1997: 476) ere. Horrez gain, Nabaskozen garia ereiterakoan “echar a rebuche” erabiltzen dute gazteleraz. Horiek kontuan harturik, ahozkotik jasotakotzat hartzea zentzuzkoena iruditzen zaigu.

Arrika eman: ‘apedrear’. *Aho*. XIX. mendea baino lehenagoko autoreei begiratu diegu eta bakarrak ez badira ere, bi joera nagusi ikusi ditugu ‘apedrear’ adierazterakoan: Mendiburuk (AN), Agirrek (G), Etxeberriak (AN), Lardizabalek (G), Otaegik (G) eta Urruzunok (G) *arrika eman* erabiltzen dute; Añibarrok (V), Astarloak (V), Mogelek (V), Zabalak (V), Uriartek (V) eta Iturzaetak (V), *arrika egin*. Ikusten denez, mendebaldeko autoreek batera eta erdialde eta ekialderagokoek bestera egiten dute. Hori kontuan harturik, ahozko jatorria duen esapide baten aurrean gaudela dirudi.

Arrofela: ‘rifa’. *Aho?*. Iraizozek aztertu eskuizkribuan agerpen bakarra dauka eta guk aztertu Lizarragaren lanetan eta hego-nafarrerazko corpusean ez da ageri. *EKCn errefela* aldaeraren bi agerpen daude: Elizanbururena bat eta Labaienena bestea. Lehena Tolosakoa eta bigarrena Heletakoa izanik, baliteke Elkanoko ahozko hizkeran Lizarragaren lanean jasotako aldaera erabiltzea.

Arrustai: ‘arco en la arquitectura’. *Lar*. Larramendik zenbait modutan itzuli zuen gaztelerazko *arco* (1745: 93): “Arco, arma de guerra, y caza, *tiruztaya*. Lat. Arcus”; “Arco, en la arquitectura, *arruztaya*. Lat. Arcus, us ; Fornix, cis”; “Arco Iris, *uztarguíá, oltzadarrá, ostrellacá*. Lat. Iris, idis; arcus coelestis”... Lizarragaren lanetan *uztai*, *uztargi* eta *tiruztai* ere aurkitu ditugu. Esan liteke beraz, hitzok Larramendirengandik hartu zituela.

Atalzai, atezai: ‘portero’. *Zg.* Larramendik “Ostiario, *atezaya, atezaina*”, “Portalero, *atezaya*”, “Portero, *atezaya, atezaina, bortalzaina*” eta “Uxier, oficio de Palacio, *Jaureguian atazaya*” ematen ditu. Kardaberazek “Atezai zegoena, jentila bazan ere, [...]” erabiltzen du eta Axularrek *athal-zaina*. Hitzok ez ditugu hego-nafarreraren corpusean jaso eta beraz, beste autoreengandik hartu zituela pentsa liteke, baina ez dugu nahikoa froga jatorria zein izan zen esateko. Lizarragak “Erran zio oni zerbitzari atezaiak” (1994: 172) dakar. Bestalde, Iraizozek erabili eskuizkribuan, “Sollik atalzaia idatzarririk ikusten tu jausten zerutik ainguruak ogei ta emeretzi koroneki eskuetan” eta “Orduan atezaiak, biotza ukiturik Jangoikoaren eskuas...”. Kasu honetan ematen du bi iturri erabili zituela: Axular eta Larramendi.

Bakandu: ‘separar(se)’. *Lar.* Larramendik, *HH*an ez ezik, bere sermoietan ere erabili zuen. Horren ondotik, Lizarragarena da lehen erabilera *OEH*ren arabera (s.v. *bakandu* ♦2). Larramendik ‘separarse’ itzuli zuen eta Lizarragak ere esanahi berberarekin erabili zuen. *Bakan* adberbio bezala erabili zuenean, aldiz, ‘escaso’ adierarekin erabili zuen eta, adiera horrekin, Larramendik (s.v. *escaso*) “*escasa, urria*” ematen du. Argi dago, beraz, adberbioa ez zuela *HH*tik jaso eta iruditzen zaigu *bakandu* Lizarragak berak sortu izan balu edota ahozkotik jaso, ‘*escasear’ adiera izanen lukeela. *Bakantasun* ‘soledad’ ere erabiltzen du eta ez ‘*escasía’; hortaz, ziurrenik *bakantasun* eta *bakandu* *HH*tik hartu zituen.

Baketze: ‘pacificación’. *Lar.* Larramendiren hiztegian agertzen da hitza lehendabizikoz. *OEH*k Baratciart (1784) aipatzen du lehen erabilera egin zuen autoretzat. Dena dela, erabili ditugun Lizarragaren lan guztietan jaso dugu *baketze*, tartean c. 1771ko lanak ere izan ditugularik. Hortaz, Baratciarten eta Lizarragaren erabilerak garaikideak izanik, bata lapurtarra (Larresoro-Uztaritze) eta bestea Elkanokoa zirela jakinik eta kontuan harturik euskal letretan ordura arte soilik Larramendik jaso zuela *baketze*, biek ala biek *HH*tik hartu zutela proposatzen dugu.

Bateratu: ‘unirse’. *Lar.* Larramendik jaso zuen hitza lehen aldiz eta Lizarragak egin zuen lehen erabilera *OEH*ren arabera. Lizarragak *uniturekin* batera erabili zuen *bateratu* eta erabileren kopuruak nabarmen egiten du lehenaren alde (guk erabilitako lanetan *unituk* 81 agerpen ditu eta *bateratuk* 8; *elkartu* ez dugu jaso). Aezkoan, *unitu*

erabiltzen da egun, hortaz, ematen du egunerokoan *unitu* erabiliko zuela Lizarragak ere eta *bateratu* Larramendirengandik jasoko zuela.

Bentzait: ‘por lo menos’. *Aho*. Larramendik (s.v. *menos*) “A lo menos, cuando viene con el sí, o con otro determinante, *beintzat*, *beintzatic*, *beintzatican*, *bederic*, *bedere*, *edolaric*, *edolarican*” ematen du. Lizarragak salbuespenik gabe erabiltzen ditu *bentzait* eta *benzait*, beraz, argi dago ez garela idazkera akats batez ari. *OEH*ren arabera (s.v. *behintzat*), ez da inon beste agerpenik jaso. Hego-nafarreraz ere ez dugu jaso, baina ezta *beintzat*, *beintzet* edo antzeko aldaerarik ere; Aezkoan *beinas bein* erabiltzen da adiera berarekin, baina ez dugu horren adibiderik aurkitu Lizarragaren obran.

Berex: ‘aparte, separadamente’. *Aho? Lar?*. (EkiHN). XIX. mendea baino lehenagoko lekukotasun guztiak iparraldean jasoak dira, baina Axularrek ez du erabiltzen. Larramendik (s.v. *aparte*) *aparte*, *appart berecian* ematen du, baina eranskinean (s.v. *aparte*) *berech*, *beregain*. Lakarrak (1991: 239) eta Urgellek (2002: 87), Harrieti hartu ziola erakutsi zuten eta hegoaldean egiten den lehendabiziko erabilera Lizarragarena da. Hego-nafarrerazko gure corpusean *berex* adberbioa jaso dugu ekialdean eta *berexi* ‘banandu’ aditza hizkera guztietan (HHN *beraxi*). Ekialdeko agerpenak ahozkoaren alde eginen luke, baina Larramendiren eranskinetik hartua izateko aukera ere badago.

Biali: ‘enviar’. *Aho*. (EkiHN *bialdu*). Larramendik (s.v. *enviar*) *bialdu* eta *bidaldu* ematen ditu besteren artean. Kardaberazek *bidaldu* erabiltzen du eta hala jaso dugu ekialdeko hego-nafarreraz ere. Gainerako hizkeretan, ez dugu agerpenik jaso. *OEH*ren arabera, Lizarragarena da *-i-dun* partizipioaren lehen lekukotasuna eta, lehendabiziko lekukotasuna izanik, litekeena da ahozkoan erabilitako forma hori izatea.

Bidro txinta: ‘joya de vidrio’. *Aho*. *OEH*n ez da horrelako adierarik jaso. Jakin ahal izan dugunez, Nabaskozen *txinta* suari egur bat botatzerakoan ateratzen diren txinparta txikiei deitzeko erabiltzen da edota, euri gutxi botatzen duenean edota euririk egiten ez duenean, “no cae ni txinta” esan ohi da. Beraz, oso litekeena da ahozko hizkeratik harturiko hitza izatea.

Bizikide: ‘cónyuge’. *Mb?*. *OEH*ren arabera (s.v. *bizikide*), lehen erabilera Zegamako katiximan jaso da, ondoren Mendiburuk erabiltzen du eta Lizarraga da hirugarren. Hego-nafarreraz *esposa*, *senar* eta *emazte* (‘esposa’ zein ‘mujer’) jaso ditugu

eta, hortaz, ez du ematen ahozkoan erabiltzen zenik. *OEHk* jasotako lekukotasunei erreparaturik, Mendibururengandik ikasitako hitza delakoan gaude.

Bulintz: ‘residuo del trigo’?. *Aho*. Gariaren nolabaiteko hondakinei erreferentzia egiten dien hitza da. *OEHn* (s.v. *bulintz*) Lizarragaren adibideak soilik jaso dira. Hiztegi berean, *bulia* ‘trigo sobrero, residuos que quedan en la era después de recoger el trigo y la paja’ jaso dute zaraitzueraz. Hego-nafarreraz jaso ez dugun arren, Zaraitzuko agerpen horrek *bulintz* ahozkotik jasotako aldaera dela pentsarazi digu.

Bunbots, bonbots: ‘zumbido del fuego’. *Aho? LS?. HHn* (s.v. *torbellino, tremolina en el ayre, ventolera*) *aice buhumba* edo *aice bumbadea* ematen dira. Iraizozek (1978: 277) jaso agerpenak eskuratu ditugu soilik, guk aztertu Lizarragaren corpusean ez baita erabilerarik jaso: “Garrain bunbotsa (307): el zumbido de la llama. Suain bonbotsa (311): el zumbido del fuego” (1978: 277). Baliteke Lizarragak ahozkotik jaso izatea eta hitzaren etimologia *buhunba* (Lar. ‘ráfaga’, ‘ventolera’) eta *hots* izatea. Dena dela, Lizarragak ‘ventolera’ adierazteko *aize erru* erabiltzen du eta hego-nafarreraz *aize bolada* jaso dugu. Hortaz, baliteke *HH* oinarri hartuz Lizarragak sorturiko hitza izatea edota ahozkotik jaso.

Burkaiztu: ‘caer en un precipicio’. *Lar*. Iraizozek (1978: 277) aztertu lanean erabili zuen soilik Lizarragak eta erabilera hori da lehena *OEHren* arabera. *HHn* agertzen hitza lehen aldiz, ziurrenik Larramendik berak sortua, oparo erabili baitzuen *-kaitz* atzizkia hitz berriak sortzeko (Urgell, 2003: 218). Bestalde, kontuan izan behar da Lizarragak *bota* erabiltzen duela ‘erori’ adierazteko eta hori dela, gure ustez, ahozkoan erabiltzen zen forma.

Burrunba: ‘fasto’. *Aho? LS?*. Larramendik “zumbido” sarreraren baitan jaso zuen, baina Lizarragak bestelako esanahi batekin erabili zuen, ‘luxua’, ‘handikeria’ adierazteko: “O errege andia berez, bear ezpaitu mundukoen ponpa ta itxurarik, ta burrunbarik, izateko andi poderoso inmenso txipian oroat nola andian!” (1994: 25). *HHn* “Rumbo, *pompa, ostentación, vease*” agertzen da eta 1726-1739ko *DAutean* ere “RUMBO. Se toma tambien por pompa, ostentación y aparato costoso. Latín. *Pompa. Ostentatio*”. Hortaz, baliteke Lizarragak edota hiztunek *rumbotik burrunba* sortu izana.

Burugain: ‘independiente’. *Aho?*. Larramendik (s.v. señor de si) “bere jabe, bere buruaren jabe” eta “beregain” ematen ditu. Agerpenei dagokienez, Iraizozek

jasotako adibidea besterik ez dugu aurkitu eta, bertan, genitiboa dauka aurretik: “ez garadela bizi nior bere burugain, egiteko nai duena” (Iraizoz, 1978: 278). Oso bitxia da *garadela* aditz laguntzailea erabiltzea, guk jasotako Lizarragaren corpusean ez baitu agerpen bakarra ere, sistematikoki *garela* erabiltzen du. Bestalde, Larramendiren proposamenarekin bat datorren adibiderik ere aurkitu dugu Lizarragaren lanean: “[...] gelditu zelaik bere buruaren jabe, nai zuena egiteko” (1994: 336).

Deseagarri: ‘deseable’. *Lar?*. Larramendik (s.v. *deseable*) hitza jaso zuen eta Lizarragarena da lehen lekukotasuna. Hego-nafarreraz ez dugu jaso, ezta antzeko esanahia duen formarik. Ezin dugu ahaztu, Larramendik “eratorbidearen historia behin betiko aldatu” zuela (Urgell, 2018: 579) eta, hortaz, ziurrenik Larramendiri harturiko hitz baten aurrean gaude. *Deseable* ere jaso dugu Lizarragarengan, agerpen bakarra izan badu ere. (ik. **amagarri**).

Diabetatu: ‘poblar’. *Lar*. Larramendik sorturiko hitza da. Alde batetik *dia* erabili zuen: "Multitud, *dia*, y se postpone al nombre cuando viene con él, *mutildia*, 'multitud de muchachos', &c. Pero se antepone a sólo el adjetivo, *dia andi bat*, 'una gran multitud', *dia eder bat*, una multitud hermosa. *Dia, asquidea, ascogoa*. Lat. *Mundulus*". Horren atzean toponimo askotan (*lizardi, belardi...*) ageri den *-di* atzizkia dagoke “suf. derivativo que denota muchedumbre” (AV: 78, 79). Beste aldetik *betatu*: Henchir, viene de el Bascuence *anchit, andichit*, que significa muy grande, como lo es comunmente, lo que se va hinchando. *Beté, betatu*. Lat *Implere*”. Lizarraga da hitzaren lehen erabilera egin zuena eta haren atzetik ez da asko erabili, *OEH* eta *EKCn* (s.v. *diabetatu*) Iztueta eta Etxegarai aipatzen dira soilik.

Ditxoso, -a: ‘dichoso, -a’. *Aho*. (ErdHN, HHN). Larramendik (s.v. *dichoso*) *ditxosoa, doatsua, doaintia* eta *zorionekoa* ematen ditu. Mendiburuk eta Kardaberazek, Lizarragak bezala, *doatsua* eta *zorionekoa* erabiltzen dute *ditxosorekin* batera. Hego-nafarreraz *ditxoso* jaso dugu soilik eta, hortaz, ahozkotik hartua delakoan gaude.

Doaiik: ‘gratis’. *Aho*. Hitz hau iparraldeko tradizioan erabili izan da batez ere *OEH*ren arabera. Larramendik bere sarrerak gipuzkera, bizkaiera eta lapurtera hurrenkeran eskaini zituen, esplizituki halakorik adierazi ez bazuen ere (Urgell 2000: 217). Honela aurkeztu zuen Larramendik “Balde, de balde, sin precio, *doan, doaric, doainic*”. Ordainak antolatzeke hurrenkerari buruz esan dugunari begiratu,

Lizarragaren aldaera lapurterari dagokionetik oso gertu dagoela ohartuko gara, bokalarteko sudurkaria galdu ondorengo aldaera dela baitirudi. Beraz, ahozkotik heldu den aldaera delakoan gaude, alde batetik, Lizarragak ahozkoan maiz gertatzen den bilakabide fonetikoa islatzen duelako eta bestetik ez duelako Larramendik erabilitako grafia bera erabili.

Duda: ‘duda’. *Aho*. (ErdHN, HHN). Hiru modutara adierazten du zalantza Lizarragak: *dudan*, *dudaketan* eta *dudankara*. Aldaera batek eta besteak aditz desberdinak onartzen dituela dirudi:

- *Dudan* (27): egon (trinko & perifrastiko), paratu + izan/edun, aurkitu + izan, gelditu + izan.
- *Dudaketan* (5): egon (t. & p.), hasi + izan.
- *Dudankara* (2): egon (t. & p.)

Aldaeren arteko aldea erabat semantikoa da. Ikusi ahal izan dugunez, *-keta* atzizkiaren bitartez, ugaritasuna markatu ohi du eta beti izenekin agertu ohi da: *arraiketa*, *elurketa*, *erauntsiketa*, *gezurketa*, *goseketa*, *izketa*, *jendeketa*, *joan-etorriketa*, *milagrometa*, *oihuketa*, *suketa*, *trabajuketa*... Toponimian agertu ohi den *-eta* atzizkiarekin loturik egon litekeelakoan gaude, baina adituek ez dute erabateko ziurtasunez atzizki horrek toponimian duen balioa zein den azaldu. Mitxelenak (AV: 87) “[...] indica pluralidad” dio Azkueren aipu bat ekarriz, baina urte batzuk geroago adiera lokatiboa duela defendatu zuen (1971: 241-246).

Azken atzizkiari (*-kara*) dagokionez, aztertu ditugun lanetan beti adjektiboekin agertzen da; salbuespen bakarra *duda* eta *egun* izenak direlarik. Adierari dagokionez, *-(t)xe* atzizkiarenarenetik hurbil legoke, nolabait ‘gutxi gora behera’ edo ‘antzean’ adieraziz. Besteren artean, honako agerpenak jaso ditugu: *beltzarankara*, *berantkara*, *epelkara*, *eutxikara* (*eutxi* ‘agarrado,-a’), *gogorkara*, *gorrikara*, *luzekara*, *nekekara*, *txipikara*... Arazoak izan ditugu *egunkara* hitzaren esanahia ulertzeko. Jesukristoren epaiketari buruzko pasartean, honakoa agertzen da: “Emanen diot bada kastigo bat eskarmentutako emenda daien; orreki utziko dut doaien libre bazkoa egunkara” (1994: 50). Suposatzen da epaileak bazkoa egunean aske utzi nahi duela Jesus eta bazkoa egunean preso bat aske uzteko ohitura baliatu nahi duela horretarako. Gure lehen

hipotesia bertan *egunean* hitza beharko lukeela egon izan zen eta Apececheak eta Ondarrak, *e* ordeztu *c* irakurri izana eta *n* ordeztu *ra*. Eskuizkribura jo genuen gero eta benetan *eguncará* idatzirik dagoela ikusi ahal izan genuen (§7.2.1). Hortaz, ez gara gai izan kasu horretan duen esanahi zehatza ulertzeko.

Ear: ‘seco’. *Aho*. (EkiHN). Larramendik (s.v. *seco*) *sicua*, *leorra*, *idorra*, *agorra*, *leihorra*, *elcorra*, *sicua* eta *leortua* ematen ditu. *OEH*ren arabera, zaraitzueraz erabiltzen da *ear* ‘seco’. Hego-nafarreraz ere jaso dugu *ear*, *eiartu* aldaerarekin batera. Lizarragak *ear*, *idor*, *seko* eta *leor* erabiltzen dituela ikusi ahal izan dugu. Lehena, ahozkotik heldu da ziurrenik, hego-nafarrerazko corpusak hala erakusten baitu eta berdin gertatzen da *idor* hitzarekin ere. Bonapartek *seko* eta *sekatu* jaso zituen (Ondarra, 1982: 160) hego-nafarreraz eta guk *txukatu* aldaera jaso dugu ekialdeko hego-nafarreraz. Gure corpusean *lehor* ere ageri da, baina Lizarragak aurreko hiru hitz eta aldaerak pertsona edo objektu ororen egoerari erreferentzia egiteko erabiltzen dituen bitartean, *lehor* lurrari (*leorrea*, *leorretik*...) edo haren egoerari erreferentzia egiteko erabiltzen du soilik. Hego-nafarreraz jaso dugun agerpen bakarrak, ordea, ez dio lurrari erreferentziarik egiten: “[...] aliqueta leortu arte Jangoicoaren iturri misericordiacoc [...]” (Satrustegi, 1987: 67).

Elur mulleta: ‘copo de nieve’. *Aho?*. Larramendik (s.v. *estopa*) *mullo* jaso zuen eta halaxe erabiltzen dute Mendiburuk eta Kardaberazek. Ekialdeko hego-nafarreraz, aldiz, *elur mullu* ‘elurra asten dueleik, idor, larria’ jaso dugu. Guk aztertu dugun Lizarragaren corpusean ez dugu hitza aurkitzerik izan eta ematen du soilik Iraizozek erabili eskuizkribuan erabili zuela (1978: 283). Guztiarekin ere, ahozkotik jaso delakoan gaude.

Emanka: ‘riña, pelea’. *Aho?* *LS?*. Larramendik bi “pelea” bereizi zituen. Batetik, “*pelea*, *gudua*, *gudá*, *gatazca*. Lat. *Pugna*” eta, bestetik, “*contienda*, *riña*, *jaitea*, *liscarra*. Lat. *Rixa*”. Iraizozek ‘riña, pendencia, golpes’ (1978: 284) proposatzen du eta gu bat gatoz, nolabait Larramendiren *contienda*rekin bat: “eriotze edo emanka bat nonnai da bekatu justiziaren kontra” (2004b: Sermo XXXIII), “gaixtofikatuek [...] kentzeko bizia sainduari [...] forjatu zute armatzea diskordia, ta emanka-iduri bat arren atarietan gauaz” (1994: 328). Bestalde, Lizarragak *pelea* ere erabiltzen du, baina gehienetan hitz hori gudu edo borroka epikoagoak adierazteko erabiltzen du (deabruaren

kontra, herejeen kontra, herria agintari maltzurren kontra, etab.), Larramendik emandako lehen adierarekin bat. Beraz, *emanka* ahozkotik hartua edo Lizarragak berak sortua izateko aukera dago.

Enkarnazio: ‘encarnación’. *Aho?*. Larramendik (s.v. encarnar) *aragitu* ematen du eta azterturiko autoreen artetik soilik Kardaberazek erabiltzen du. Hego-nafarreraz ez dugu hitza jaso, baina hala ere ahozkotik ikasitako hitza delakoan gaude. (ik. **Aragitu**).

Eraiki: ‘sembrar’. *Aho*. Larramendik (s.v. sembrar) “*ereiñ, ereindu*” ematen du. *OEHN* (s.v. ereiki) “*ereiki, eraiki, ereki, eriki*” ematen dira, guztiak “AN” etiketarekin. Jasotako adibide guztiak, ordea, Lizarragarenak dira eta jaso duten hiztegi-gileak Arakistain, Duvoisin eta Harriet. Ibarrek (2007) ere jaso zuen bere lanerako (s.v. *ereiki*), Erroibar eta Esteribarren ahozkoan erabiltzen dela frogatuz. Hegoaldeko hego-nafarreraz ere jaso dugu, ekialdean *erein* erabiltzen den arren. Guztiarekin, ahozko iturritik hartua delakoan gaude.

Erakustun: ‘maestro, doctrinero’. *Aho*. (EkiHN). Hitza *HHn* agertzen da lehen aldiz eta Lizarragak erabiltzen du lehendabizi. Ekialdeko hego-nafarreraz oso erabilia izan da *irakustun* aldaera eta horrek ahozkotik harturiko hitza dela pentsatzera eraman gaitu.

Errealia: ‘real, relativo al rey’. *Aho*. (MHN, HHN). Larramendik “Real, regno, *andiguitarra*. Lat. Regnus, regalis” dakar. Kardaberaz da azterturiko autoreen artetik *errealia* erabiltzen duen bakarra. Hego-nafarreraz mendebalde zein hegoaldean jaso dugu eta, hortaz, ahozkotik hartutakotzat jo dugu aldaera.

Erreberenzia: ♦1 ‘respeto’. *Aho?*. (MHN, HHN). Larramendik (s.v. *reverencia*) “*erreverencia, beacurta, begirunea*” jaso zuen. Eta Lizarragak soilik lehena erabili zuen. Mendiburuk eta Kardaberazek *erreberenzia* eta *begirunea* erabiltzen dituzte. Hego-nafarreraz Beriainen eta Elizalderen dotrinetan jaso dugu. Hona azkenaren adibide bat: “Gal. Necesidade vague juramentu eguytenduenac cer becatu du? Err. Gutienean venialea erreberencia gutiagatic” (Pagola, 1994: 48). Aurrekoak kontuan hartuz, ahozko jasotik ikasitako hitza dela uste dugu. ♦2 ‘reverencia’. *Aho?*. (MHN). Azterturiko autoreetarik, Mendiburuk eta Kardaberazek erabiltzen dute soilik adiera horrekin. Hego-nafarreraz Beriainen eta Elizalderen dotrinetan jaso dugu. Elizalde:

“Gal. Cer erreberencia eguin bearda imaginey? Err. Sanduey becala” (Pagola, 1994: 46). Ahozko jasotik hartua dela ematen du.

Erregetasun: ‘realeza, condición de rey’. Ax. Larramendik (s.v. *realeza*) *handigoia*, *handigoitea* eta (s.v. *Real*, *regio*) *handigitarra* ematen ditu. Azterturiko autoreetarik, Mendiburuk eta Axularrek erabiltzen dute eta adierari begiratuz, Axularrengandik hartutakoa izateko aukera gehiago du. Hona Lizarragaren adibide bat: *erreinatuko du Jakoben jendakian betikos, ta bere erregetasuna izanen da mugarik gabe* (1994: 22). Mendibururen agerpenek ‘errege izateko ezaugarria’ esan nahi dute:

“Ez du, ez, deus galduko zuen erregetasunak, erregeen Erregeagatik artzera zoazten oraingo bidean” (1904 (1): 365).

“Orien eskanbillak, orien soldadeskak, orien gerrak, diruak, eta gañerako orien gauzak ez dute nerekin zer-ekusi, nere etsai judu gogorak nai dutena erran arren nere Erregetasunaren gain, edo kontra” (1904 (2): 440).

“Jaitsi zaitez ortik zu; ta artu zatzu zuk, zure Erregetasun andiari dagozkan itxurak, etxeak, eta soñekoak” (1904 (3): 58)..

Axularrenak aldiz, ‘erregealdi’ esan nahi duela dirudi:

Zeren segur da urthe bat baiño gehiago zuela Saulek erregetu zenean, eta halaber bi urthe baiño gehiago egon zela bere erregetasunean (1643: 184).

Errepara: ‘reparar, observar’. Aho. Larramendik (s.v. *reparar*) “observar, *oartu*, *arretatu*, *arreta eman*” ematen du. Kardaberazek *errepara(tu)* erabiltzen du eta baita *ohartu* ‘enterar(se)’ zein *arreta* ‘atencion’, baina, ikusten denez, beste adiera batekin. Mendiburuk ez du *errepara* jaso, baina bai *ohartu* ‘enterar(se)’ eta *arreta* ‘atencion’. Ikusten da aipatu bi autoreek, Lizarragak bezala, hitz honetan ez ziotela Larramendiri behin ere jarraitu eta horrek erakutsiko luke *errepara* ‘observar’ ahozkoan maiz erabilia zela, hiruetarik batek ere ez baitzuen *HHra* jo bestelako sinonimo baten bila.

Errepausa: ‘reposito’. Lar? Aho?. Iparraldean *errepausa* jaso da Leizarragarengandik hasita eta Larramendik *errepausa* dakar. Ekialdeko hegona-farreraz *pausatu* ‘descansar’ erabiltzen da eta *erreposki-erreposki(a)* ‘pausadamente’

adierazteko erabiltzen dute. *Errepausa* forma erabiltzen duen lehen autorea Lizarraga da eta baliteke Elkanoko aldaera baliatuz egitea ala Larramendiri jarraituz.

Erresumin: ‘escozor, picor’. *Ax?*. Larramendik (s.v. *escozor*) *sumiña, erramiña, erresomiña* eta *sumina* ematen ditu. Axularrek *errasumiña* aldaera erabiltzen du. Lizarragak Axular eredu izan zuela frogatzen lezakeen testuinguruan aurkitu dugu hitz hau:

- Axular: “Bekatua zauri hatz-gilea bezala da. Hatz egitean atsegin hartzen duzu. Ordea hatz gordin eginik, gelditzen zaitzu ondotik errasumina” (1643: 431).
- Lizarraga: “Ala nola sarnain arraskatzeain gustottoain ondorean gelditzen baita erresumiña” (1782-84: 230).

Iruditzen zaigu hitzaren jatorria argitzeko ez dela frogatzen nahikoa, autore bakoitzak aldaera desberdina erabiltzen duelako, baina baliteke Lizarragak bere euskarara egokitzeak moldaketak egitea eta hori da gertatu zena, gure ustez.

Errotu: ‘arraigar’. *Lar*. Larramendiren hiztegian jasotako hitza, hegoaldean ez da ageri Lizarragak erabiltzen duen arte eta hego-nafarreraz ere ez dugu jaso. Larramendirengandik harturiko hitza delakoan gaude, Lizarragak ‘raiz’ adierazteko *zain* erabiltzen baitu ia beti. Iraizozek agerpen bakarra jaso zuen aztertu eskuizkribuan: “Zer erremedio estaien errotu ta zakartu lepra gaisto goi ariman?” (1978: 290). Guk aztertu lanetan ere, agerpen bakarra du eta *zain* jartzen du *erroturen* aitzinean eta *sustraitu* ondoren, nolabait errazago uler dadin: “Baña ala nola plantak izotzareki iago zain-errotzen ta sustraitzen diren lur-barnean” (1994: 532).

Esangi: ‘axioma’. *Lar*. Larramendik ‘Axioma, *esangui, esaquia, erabaquia*’ ematen du eta Lizarragak ere zentzu horrekin erabiltzen du. Hego-nafarreraz *erran* erabiltzen da eta, hortaz, ahozkotik jasotako hitza balitz, **errangi* moduko zerbait izanen zelakoan gaude, sistematikoki *erran* erabiltzen baitu. Agerpen bakarra dauka *esanek* aztertu ditugun Lizarragaren lan guztietan: “Artas esan zio: / Ona zure humea. / Oni berla dio: / Ona ama zurea” (1983: 45). Hala ere, ez dakigu akatsa den ala ez.

Eskoji: ‘escoger’. *Aho*. (MHN, HHN). Larramendik (s.v. *escoger*) *hautetsi, hautatu, irakurri* eta *bereiztu* (-s- jatorrizkoan) ematen ditu. Mendiburuk horietarik *hautetsi* eta *bereiztu* erabili zituen eta Kardaberazek *eskoji, hautetsi, hautatu* eta *bereiztu*. Lizarragak *eskoji* eta *hautatu* erabili zituen eta autore guztiek *irakurri* ‘leer’.

Hego-nafarreraz ere jaso dugu *eskoji* eta horrek ahozkotik hartua dela pentsatzera eraman gaitu.

Eskulan: ‘trabajo doméstico’?, ‘coser’?. *Aho? LS?*. Aztertu ditugun autoreen artetik, *OEHk* Mendibururen erabilera bat aipatzen du, baina jatorrizko obrara joz, ikusi ahal izan dugu ez dela etxeko lanez ari, eskuekin egindakoez baizik: “andic [Egiptotik] itzuli bezain laster escu-lanean sartu ta bere ogei ta amar urtetaraño lan ta lan ta icerditan haritzea” (1982: 108). Eskura izan ditugun Lizarragaren lanetan agerpen bakarra du eta, hortaz, esanahia zehaztea biziki lan zaila gertatu zaigu. Honakoa da hitza jasotzen duen Lizarragaren pasartea: “trabajátus S. Josef zurguingoan, ta Maria Santíssima esculanetan atrátzeco vicia” (Lizarraga, 1979: 146). Pasarte bera gaztelaniaz aurkitu beste autore batek emanik¹³: “María se dedicaba a los oficios de la casa, y José trabajaba en su taller de carpintería”. Dirudienez, etxeko lanei buruz ari da Lizarraga, baina ez du hitza berriro erabiltzen. Ekialdeko hego-nafarreraz *eskulanean* ‘josten’ jaso dugu, beraz esanahia ez da oso gardena. Euskal literaturari dagokionez, hapax baten aurrean gaudela dirudi.

5.4 Bigarren saioaren ondorioak

Bigarren saio honetan, lehenengoan izandako zenbait akats konpontzen saiatu gara eta horiek aurrerago aztertuko ditugu (§6). Oraingo honetan, elementu guztien inguruko zalantzak argitu ezin izan ditugun arren, Lizarragak erabilitako iturrien hipotesia frogatzeko datu fidagarriak eskuratu ditugu eta hego-nafarrerazko ahozko hizkerari dagokion item lexiko zenbait identifikatu, item bakoitza xehekiago ezagutzeaz gain.

Lehen saiotik bigarreneira galdu dugun gauza bakarra, hizkeren ezaugarrien gaineko informazioa izan da. Hala eta guztiz ere, gai izan gara ikusteko Lizarragak zein hizkerarekin izan dituen bat etortzerik gehien. Bigarren azterketa honetan, arreta Lizarragarengan jarri dugu batez ere, horixe izan baita gure aztergaia.

Idatzizko iturrien eraginari dagokionez, 12 hitzetan *HH* erabili zuela esan dezakegu nolabaiteko ziurtasunaz: *amarrendu*, *arageiti*, *aragitu*, *arilko*, *arrustai*, *bakandu*, *baketze*, *bateratu*, *burkaiztu*, *diabetatu*, *errotu* eta *esangi*. Horrekin batera,

13 <https://quevivalanavidad.wordpress.com/la-vida-cotidiana-en-nazaret/> [2019-08-15]

egokitzapenak egin zituela ikusi ahal izan dugu (Lar. *arruztai* > LE *arrustai*). Beste bost hitzekin zalantza gehiago izan ditugu Larramendi jatorritzat proposatzerakoan: *ainkuria*, *amagarri*, *berex*, *deseagarri*, *errepausa*. Bat etortzerik gehien *Sermones de Decalogo et Oratione Dominica etc* (1782-1784) eskuizkribuak izan ditu (*amagarri*, *baketze*, *deseagarri*, *errepausa* eta *esangi* dira agertu ez diren hitz bakarrak); bestela esan, Larramendiren eragina nabarmenagoa da lan horretan.

Ziurtasunez Mendibururi hartu zion hitzik ez dugu aurkitu, bai, ordea, zalantzazko hiru: *aldirita*, *arinkeria* eta *bizikide*. Azken bien kasuan, agerpenen kronologiak Mendibururengan pentsatzera eraman gaitu eta *aldiritaren* kasuan, Lizarragak egindako hitzaren ebakera okerrak. Kardaberaz ez zaigu balizko iturritzat agertu orain arte aztertutako hitzetan; harekin izandako bat etortze gehienak maileguak izan baitira (§8). Axularrengandik harturiko hitz bakarra aurkitu dugu (*erregetasun*) eta zalantzazko beste bat (*erresumin*).

Ahozko lekukotasunez den bezainbatean, 26 hitz jo ditugu iturri honetatik hartutakotzat: *abarrikatu*, *adrendu hartu*, *agoz*, *aixtean*, *aldioro*, *alegranzia*, *alokatu 2*, *altsai*, *argibegi*, *arilkatu*, *arributxa*, *arrika eman*, *bentzait*, *biali*, *bidro txinta*, *bulintz*, *dixoso*, *-a*, *doaiik*, *duda*, *ear*, *eraiki*, *erakustun*, *erreal*, *errepara* eta *eskoji*. Beste 28rekin zalantzak izan ditugu: *abeldun*, *aborrezitu*, *admirazio*, *afekto*, *agitu*, *agrabio*, *aialdeko*, *aintzu*, *aizera*, *aldarte*, *alibio*, *alokairu*, *alokatu*, *amagarri*, *arakindegia*, *arki*, *arlarua*, *arrafela*, *berex*, *bunbots*, *bonbots*, *burrumba*, *burugain*, *elur mulleta*, *emanka*, *enkarnazio*, *erreberentzia 1*, *erreberentzia 2*, *errepausa* eta *eskulan*).

Hego-nafarrerazko corpusean izandako bat etortzeak honakoak izan dira hizkeraka: EkiHN (15): *abarrikatu*, *agitu*, *agoz*, *aixtean*, *aldarte*, *arakindegia*, *arilkatu*, *arilko*, *arki*, *arlarua*, *berex*, *biali*, *ear*, *erakustun*. HHN (10): *aborrezitu*, *afekto*, *agrabio*, *argibegi*, *dixoso,-a*, *duda*, *eskoji*. MHN (6): *aldioro*, *argibegi*, *erreal*, *erreberentzia 1*, *erreberentzia 2*, *eskoji*. ErdHN (6): *abarrikatu*, *admirazio*, *agoz*, *argibegi*, *dixoso,-a*, *duda*. Ekialdeko aldakia alde batera utzirik, ez dago alde handirik bat etortzei dagokienez. Oraingoan, ematen du corpusaren tamainak ez duela eragin handirik izan (HHN: 2028; EkiHN: 1572; MHN: 425; ErdHN: 258). Baliteke, ordea, lagina hazi ahala corpusaren tamainak eragin handiagoa izatea.

Bukatzeko, zortzi hitz jo ditugu Lizarragak sortutakotzat. Ziur bakarra (*amorosgarri*) eta zalantzazko zazpi: *abeldun*, *aisura*, *bunbots*, *bonbots*, *burrunba*, *emanka* eta *eskulan*.

Ikusi dugunez, iturririk oparoena ahozkoa izan da, ondoren Larramendi, gero Mendiburu eta azkenik Axular. Kardaberazen lekukotasunak gehiago aztertu beharko ditugu iturri bezala baztertu aurretik, uste baitugu oraingoan ikusi duguna baino eragin handiagoa izan zuela (§4.3.1). Hitz sorkuntzari dagokionez, ematen du batzuetan esanahi aldaketa bidezkoa zela (*burrunba*, *eskulan*) eta beste batzuetan Larramendiren arabera eginikoa (*amorosgarri*).

6. Ondorioak

Joakin Lizarraga Elkanokoaren lexikoa aztertzeko saiakera egin dugu bi metodo desberdin erabiliz. Hasieran, haren bizitzaren inguruko zenbait datu bildu ditugu, bere iturriak eta eraginak zein izan zitezkeen ulertu ahal izateko. Ondoren, hego-nafarrerara hurbildu gara, haren barneko hizkeren banaketa eta eraginak aztertuz eta, bukatzeko, bi azterketa saio egin ditugu, bakoitza bere metodoarekin. Lehenik saio batean eta bestean izandako arazo/konponbideak aztertuko ditugu eta, ondoren, bi saioetan lorturiko emaitzak jarriko ditugu aldez alde.

Lehen saioan, izan dugun arazoetariko bat corpusaren asimetria izan da. Hori konpontzeko, lehen urratsa ekialdeko hego-nafarreraren lekukotasunak biltzea izan da eta zinez emaitza interesgarriak ekarri dizkigu horrek. Adibidez, ekialdeko corpusa ahozkoa izateak hitzaren ahozko jatorriaren alde egiten lagundu digu askotan. Bestalde, bigarren saiorako ezin izan dugu mendebaldeko eta erdialdeko lekukotasun berririk aurkitu, oso zaila baita hizkera horietako aurkikuntza berririk egitea; hala ere, gehiago bilatzen jarraituko dugu.

Izandako bigarren arazo nagusia laginarena izan da. Lagina ia bikoiztu izanak (237 elementutik 581era) oinarri sendoagoa eman dio azterketari eta esanguratsuak diren hitz gehiago jarri dizkigu eskura. Lagina handitzen joateko asmoa dugu eta ziur gaude emaitzak gero eta oparoagoak izanen direla.

Autoreen eraginari dagokionez, lehen saiotik heldu emaitzek Larramendi, Mendiburu, Kardaberaz eta Axular hurrenkera eman digute, bat etortze gehien dituen

Larramendirengandik hasi gutxien izan dituen Axularrekin bukatzeko. Bigarren saioan Larramendi eta Mendiburu izan dira berriro ere kopururik handienak lortu dituztenak, baina, kasu honetan, Axular izan da hirugarren eta Kardaberaz azken. Gorago aipatu dugun bezala, Lizarragak Kardaberazekin izan dituen bat etortzerik gehienak maileguak dira eta hortik dator aldaketa, bigarren saio honetan mailegu gutxiago aztertu baititugu. Ematen du, beraz, kasu honetan ahozkoak ez diren iturriei dagokienez, “hiztegien lehentasuna” (Urgell, 2000, 362) irizpidea aplikagarria dela, Larramendiri hartu baitzion hitz kopururik handiena.

Lehendabiziko saioan ez dugu ahozko iturria edo autoreena bereizi, soilik hegonafarreraz jasorik genituenetz begiratu baitugu. Bigarren saioan, ordea, hori ere aztertu dugu eta ikusi ahal izan dugu edozein autorerenak baino ugariagoak direla. Esaterako, bat etortzerik gehien duen Larramendik, ziurak eta zalantzazkoak gehiturik, 17 bildu ditu eta ahozkotzat hartutakoak, aldiz, 54 dira. Gauzak horrela, bigarren saioari esker, aztertu dugun laginean, Lizarragak gehien erabili zuen lexikoa ahozko iturrietatik hartua dela esan dezakegu.

Bestalde, bigarren saioak Lizarragaren bilakabideari buruzko datuak ere eskaini dizkigu. Ikusi ahal izan dugu, Lizarragaren *Sermones de Decalogo et Oratione Dominica etc* (1782-1784) eskuizkribua dela Larramendiren hitz gehien jaso dituen eta bertan agertzen diren hitz asko ez direla Lizarragaren gainerako lanetan agertzen (*amarrendu, arageiti, arilko*). Lan hori xehekiago aztertzea merezi duelakoan gaude, Larramendiren eragin nabarmenagoa izan zuen fase bat edota obraren ezaugarriek bultzaturiko egoera izan ote zen ikusteko.

Ikusitakoak ikusita, argi geratu da lehendabiziko saioan erabilitako metodoa bigarrenaren osagarri edo gehigarri bezala erabil daitekeela, baina inolaz ere ez metodo nagusi bezala. Oinarri filologikoa ezinbestekoa da lexikoaren azterketarako, bestela, eskuratzen ditugun datuak erabat hutsalak dira eta xehetasun pila bat galtzen ditugu bidean. Horrez gain, metodoan lantzen eta hobetzen jarraitu beharko dugu, azterketa dialektologiko eta lexikografikoetatik jasoko ditugun datuekin lan egin ahal izateko.

7. Bibliografia

- ÁLVAREZ, R., F. DUBERT GARCÍA & X. SOUSA FERNÁNDEZ, 2006, “Aplicación da análise dialectométrica aos datos do Atlas Lingüístico Galego”, in R. Álvarez, F. Dubert García & X. Sousa Fernández (arg.): *Lingua e territorio*. Santiago de Compostela: Consello da Cultura Galega / Instituto da Lingua Galega, 461-493.
- ALESON, F., 1863 [1666], “GURE ERREGE PHILIPPE ANDIAREN HERIOTZEAN EUSCARAZCO COPLAC”, PARIS: BURGAUD DES MÁRETS.
- APECECHEA, J., 1975, “Programa de vida cristiana en una aldea de la zona de Pamplona en el siglo XVIII. Tres sermones inéditos de Joaquín de Lizarraga en euskera”, *FLV* 19, 89-127.
- ___, 1978, *Joaquín de Lizarraga (1748-1835). Un escritor navarro en euskara*, Príncipe de Viana: Iruñea.
- ___, 1978b, 1979, 1981, 1982, 1985, 1987, 1990, “Tratado sobre el matrimonio, de Joaquín de Lizarraga”, *FLV* 29: 339-359, *FLV* 31: 71-90, *FLV* 37: 215-231, *FLV* 40: 523-538, *FLV* 46: 283-304, *FLV* 50: 251-279, *FLV* 56: 277-301.
- ___, 1979b, “J. Lizarraga: *Doctrina Christioaren Gain - Fede Christioaren Gain*”, *Euskera* XXIV, 774-783.
- ___, 1983, 1984, 1985b, 1987b, 1988, 1991, “Comentario del Padrenuestro de Joaquín Lizarraga, el Vicario de Elcano”, *Scriptorium Victoriense* 30: 65-89, 31: 182-202, 32: 414-432, 34: 102-119, 35: 413-432, 38: 387-411.
- ___, 2008, *Joakin Lizarraga, Elkanokoa (1748-1835)*, Eusko Jaurlaritza: Gasteiz.
- ALLIÈRES, J., 1995, “Euskal Herriko Atlas Etnolingüistikoaz”, in J. A. Lakarra / R. Gómez, *Euskal Dialektologiako Kongresua* (Donostia, 1991ko irailak 2-6), *ASJUren gehigarriak* XXVIII, 45-58.
- ALTUNA, P., 1982, *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, Sebastian Mendiburu (Bilburuki). Euskaltzaindia: Bilbo.
- ARANA, A., 2004a, *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Artzibarko aldaera. Hiztegia*, Hiria: Donostia.

- ARTOLA, K., 2006, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (1 - sarrera eta lehen galdera-sortak)”, *FLV* 103, 393-428.
- ___, 2007, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (2 - inkestaren azken galdera-sortak)”, *FLV* 104, 5-31.
- ___, 2010, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (3 – Artzibarko laginak: Hiriberri)”, *FLV* 112, 5-50.
- ___, 2011, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (4 – Artzibarko laginak: Arrieta)”, *FLV* 113, 261-326.
- ___, 2012, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (5 – Hego-Esteribarko laginak: Ilurdotz I)”, *FLV* 114, 5-60.
- ___, 2012b, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (6 – Hego-Esteribarko laginak: Ilurdotz II)”, *FLV* 115, 195-254.
- ___, 2013, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (7 – barnera begirako zenbait erkaketa)”, *FLV* 116, 31-90.
- ___, 2014, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (8 – Elkanoko aldaerarekiko zenbait erkaketa)”, *FLV* 117, 25-100.
- ___, 2014b, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (eta 9 – Aditzaz zerbait Elkanoko aldaerarekiko erkaketan)”, *FLV* 118, 393-435.
- AURREKOETXEA, G., 1992, “Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa”, *Uztaro* 5, 59-109.
- AXULAR, P., 1643, *Gero*, G. Milanges: Bordele.
- BERIAIN, J., 1980 [1621], *Tratado de como se ha de oyr missa*, Hordago: Donostia.
- ___, 1626, *Doctrina Christioarena Euscaras*, Iruñea. Ikus R. M. Pagolaren (arg.), *Enseiukarrean* 11, 15 - 69, 1995
- BLANCO, E., 2013, “Euskal lexikoaren historiarako: ikerketak euskara arkaikoan”, Master Amaierako lan argitaragabea.
- CABODEVILLA, I., 1991, *Aetzen uskara*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.

- CAMINO, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- ___, 1999, "Goñerriko hizkera (I)", *ASJU XXXIII-1*, 5-78.
- ___, 2003, "Hego-nafarreraren egituraz", *FLV 94*, 427-468.
- ___, 2004, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- ___, 2009, *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*, Elkar: Donostia.
- ___ & J. LAKARRA, 1993, "Beriaín osatuz", *ASJU XXVII-3*, 1029-1048.
- ELIZALDE, F., 1994 [1735], "Apezendaco dotrina christiana uscaras [Faksimilea]", *FLV 65*, 41-65.
- ELORZ, J. R., 1997, "Léxico vasco residual de Artajona", *FLV 76*, 473-495.
- EPELDE, I., 2004, *Larresoroko euskara*, UPV-EHU-ko Doktorego Tesia. Argitaratu gabea.
- ERDOZIA, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- FAGOAGA, B., 1959, "Azkueren iztegi berritu eta osoturako Joakin Lizarraga Elkanoko Apaizaren liburu argitara gabekoetatik ateratako itz saila", *Euskera IV*, 63-78.
- FITA, F., 1881, "Suplementos al Diccionario trilingüe del P. Larramendi", *Revista de Ciencias Históricas IV*, 72-87. [Azken Kontsulta, 2019-09-08: <https://archive.org/details/RevistaDeCienciasHistoricas4/>].
- FERNANDEZ, F., 2006, "No mar todo se move: áreas léxicas na nomenclatura da fauna marítima da Gallaecia", in R. Álvarez, F. Dubert, X. Sousa (arg.), *Lingua e Territorio*, Instituto da Lingua Galega, Santiago de Compostela, 387-460.
- FONSECA, J., 1862, *Vida del P. Cardaveraz*, Tejado inprenta: Madril.
- GOEBL, H. (1981): "Eléments d'analyse dialectométrique (avec application à l'AIS)", *Revue de Linguistique Romane 45*, 349-420.
- GORROCHATEGUI, J., I. IGARTUA & J. A. LAKARRA, 2018, *Euskararen Historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

- HAENSCH, G. eta beste, 1982, *La lexicografía: de la lingüística teórica a la lexicografía práctica*, Madril: Gredos.
- IBARRA, O., 1995, “Cispamplonés hizkeraren inguruan”, *ASJU XXIX-1*, 267-318.
- ___, 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa: Iruñea.
- ___, 2006, “Lexikoaren hedapena goi-nafarreraren hiru ibarrotan: Erroibar, Esteribar eta Anue”, *ASJU XL 1-2*, 487-498.
- ___, 2007, *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia*, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia: Iruñea.
- IRAIZOZ, P., 1978, 1979, “Vocabulario y fraseología de Joaquín Lizarraga I, II, III eta IV”, *FLV 10*: 245-297, *FLV 10*: 461-468, *FLV 11*: 121-162, *FLV 11*: 303-332.
- IRIZAR, P., 1973, “Los dialectos y variedades de la lengua vasca”, *ASJU VII*, 4-36.
- IRGARAI, A., 1959, “Lizarraga Elkanokoa”, *Euskera 4*, 119-126.
- IXURKO, F., 1981, “Joakin Lizarraga, Elkanokoaren liburuaz”, *Euskera 26*, 329-347.
- IZAGUIRRE, C., 1970, “El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate”, *ASJU IV*, 6-248.
- JIMENO JURIO, J.M., 1988, “Juan de Beriain, escritor vasco de Navarra (Uterga, c.1566-1633)”, *FLV 52*, 241-265.
- KAISER, R., 1937, *Zur Geographie des mittlenglischen Wortschatzes*, Mayer & Müller: Leipzig.
- KARDABERAZ, A., 1855, *Jesus, Maria eta Joserren devocioa, edo iru persona divino oien equiazco amorioa*, Mendizalaben alargunaren moldiztegia: Tolosa, <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/29465>
- KEREJETA, M. J., 1991, “Notas sobre las poesías premiadas en Pamplona en 1609 y 1610”, in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, *ASJU-ren gehigarriak 14*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 161 – 183.
- LAFON, R., 1955, “Sur la place de l’aezcoan, du salazarais et du roncalais dans la classification des dialectes basques”, *Pirineos 11*, 109-133.

- LANDAU, S. I., 2001 [1984], *Dictionaries. The Art and Craft of Lexicography*, 2nd edition, Cambridge: Cambridge University Press.
- LARRAMENDI, S. I., 1745, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín* (2 lib.), <http://bdh-rd.bne.es/viewer.vm?id=0000015622&page=1>
- LAKARRA, J. A., 1985, "Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko Sermoia (1737)", *ASJU*, XIX-I, 1985, 235.-281.
- ___, 1991, "Testukritika eta hiztegiak: Harriet eta Larramendi", in Lakarra & Ruiz Arzalluz (arg.), I, 217-258.
- LAKARRA, J. A. & RUIZ ARZALLUZ, I., (arg.), 1991, *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, (ASJU-ren gehigarriak XIV), Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia.
- LEKUONA, M., 1973, "Textos vascos del siglo XVIII en Tierra de Estella", *FLV* 5, 370.
- LIZARRAGA, J., (1810), *Aita Asteteren Catechima Aita Lizarragac Euscaras Itzulia*, Elcano: eskuizkribu argitaragabea.
- ___, 1979 [1803], *Doctrina christioarén catechima*, Iruñea: Euskaltzaindia.
- ___, 1983 [1793-1821], *J. Lizarraga Elkanokoa. Koplak*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- ___, 1984 [1807], *Ongui iltzen laguntzeko itzgaiak*, Iruñea: Euskaltzaindia.
- ___, 1994 [c. 1793-1813], *Jesukristo, Maria eta Santuen bizitzak*, Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- ___, 2004 [1803], *Doctrina Christioaren Cathechima*, Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- ___, 2004b [1771-1800], *Sermoiak*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (Deiker).
- ___, 2004c [1821], *Beste zenbait itzulpen*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (Deiker).
- MENDIBURU, S., 1751, *Jesusen ihotzaren debozioa*, Iruñea: Pedro Joseph Ezquerro.
- ___, 1904 [1759-1782], *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai* (lau liburuki), Tolosa: Eusebio Lopez
- ___, 1982 [1767-1782] *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- ___, 1982b [1708-1782] *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- MITXELENA, K., 1989 [1953], *Apellidos Vascos*, Txertoa, Donostia (= AV).
- ___, 1960, *Historia de la Literatura Vasca*, Madril: Minotauro.

- ___, 1971, “Toponimia, léxico y gramática”, *FLV* 9, 241-268.
- ___, 1976 “La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas”, *Revista Española de Lingüística* 6, 309-324. Ikus orain *LH*, 73-85 edo *OOCC*.
- ___, 1990 [1964], *Textos arcaicos vascos*, Gipuzkoako Foru Aldundia eta EHU: Donostia.
- MONTOYA, E., 2004, *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- MOUNOLE, C. & R. GOMEZ, 2016, “Euskara zahar eta klasikoa” in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra, *Euskararen Historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- ONDARRA, F., 1972, “Producción literaria de Joaquín Lizarraga (1748-1835)”, *FLV* 11, 265-282.
- ___, 1980, “Joaquín Lizarraga en el Diccionario de Azkue”, *FLV* 34, 107-142.
- ___, 1980b, "Catecismo del siglo XVIII en vascuence de Uterga (Valdizarbe)", *FLV* 35/36, 173-221
- ___, 1981, “Primer sermón en vascuence navarro (1729)”, *FLV* 38, 147 - 173.
- ___, 1985, “Iuan de Beriain eta perpaus konposatua”, in *Hizkuntza eta literatura* 4, Eusko Ikaskuntza: Donostia, 219-235.
- ___, 1989, “Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753)”, *FLV* 53, 97-144.
- ___, 1990, *Urteko Igande Guztietarako Prediku Laburrak*
- ___, 1991, “Goñerrin aurkitutako beste sei testu”, *FLV* 57, 131 – 168.
- ___, 1993 b, “Hemezortzigarren mendeko bertsoak”, *FLV* 64, 531 - 553 .
- PAGOLA, R. M., 1994, “Elizalderen dotrina”, *Enseiukarrea* 10, 17-63.
- PAGOLA, R. M., IRIBAR, I. & IRIBAR, J. J., 1997, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Zaraitzua*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- PETERS, H., 1988, “On the state and possible aims of Middle English word geography”, in J. Fisiak (arg.), 1988, 397-416.

- REGUERO, U., 2017, "Goi-nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testuak", tesi argitaragabea. [<https://addi.ehu.es/handle/10810/23535>].
- RIEZU, J., 1958, "El Príncipe Luis Luciano Bonaparte", *PV*, 149-164.
- RYNELL, A., 1948, *The rivalry of Scandinavian and native synonyms in Middle English especially taken and nimen*, Lindstedt: Lund.
- SALABERRI ZARATIEGI, P., 1996, "Amenduxen olerkiaz. Oharrak", *FLV* 71, 87 - 97.
- ___, 2008, "Altxorraren bila: Lizarraga Elkanokoaren aberastasunak *kaustu* nahiz", in *Iker* 21, 597-616.
- SARASOLA, I., 1990 [1983], *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV-EHU: Donostia.
- ___, 1997, "Euskal hitz altxorraz", *ASJU* XXXI-2, 617-642.
- SAURA, 2003, "La transición lingüística en el Pirineo central (III)", *Revue de Linguistique Romane*, 267-68, 431-443.
- SATRUSTEGI, J. M., 1976, "Nuevo documento no catalogado de Joaquín Lizarraga sobre los bailes", *FLV* 8: 205-236.
- ___, 1981, "F. Ondarra Euskaltzain berriari erantzuna", *Euskera* XXVI, 651-660.
- ___, 1987, *Euskal Testu Zaharrak I*, Iruñea: Euskaltzaindia.
- ___, 1990a, "Texto vasco del Padrenuestro en versión del s. XVI ", *FLV* 55, 37-48.
- ___, 1990b, "El Credo en versión vasca del siglo XVI ", *FLV* 56, 205-227.
- ___, 1991, "El Avemaría y la Salve en un documento vasco del s. XVI", *FLV* 57, 107-130.
- SÉGUY, J., 1973, "La dialectométrie dans l'Atlas linguistique de la Gascogne", *Revue de linguistique romane* 37, 1-24.
- SVENSÉN, B., 1993, *Practical Lexicography*, Oxford: Oxford University press.
- TRUDGILL 1995
- URGELL, B., 1991, "Axular eta Larramendi", *ASJU* XXV:3, 901-928.
- ___, 2000 TESIA (*)

- ___, 2002, “Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza*-ren eranskina: saio bat hiztegitzaren testukritikaz”, *ASJU*ren gehigarriak XLVII, Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia.
- ___, 2003, “Eratorpena Larramendiren hiztegian (I): Eratorbideen analisisa”, *ASJU* XXXVII: 1, 203-260.
- ___, 2004, “Etimologia eta neologia Larramendiren Hiztegi Hirukoitz-ean (1745)”, *Lapurdum* 9, 299-310.
- ___, 2013, “Lehen Euskara Modernoa (1745-1875)”, in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra, *Euskararen Historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- ULIBARRI, K., 2013, “Testuak kokatuz dialektologia historikoan: egiteetatik metodologiara”, in R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra (Gasteiz, 2012 / X / 8-11)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, 511-532.
- URKIZU, P., 1987, *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*, Durangoko Udala: Durango.
- VENY 1963, “Notas léxicas sobre el habla de Campos (Mallorca)”, *Orbis* 12-1, 132-140.
- VIEREK, W., 1977, A. R. Thomas. 1973. *The linguistic geography of Wales. A contribution to Welsh Dialectology* lanaren aipamena, *Orbis* 26, 182-184.
- VILLASANTE, L., 1979, “J. Lizarraga Elkanokoaren liburu aurkezpena”, *Euskera* XXIV-2, : 769-772.
- ZELAIETA, E., 2008, *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*, Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua: Bilbo & Iruñea.
- ZGUSTA, L., 1971, *Manual of Lexicography*, Paris: Mouton.
- ZUAZO, K., Arabako euskara, *ASJU* XXIII:1, 3-38.
- ___, 1995, “Bonapartez geroztiko euskal dialektologia”, in R. Gomez eta J. Lakarra (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)*, *ASJU*ren gehigarriak XXVIII, 13-43.
- ___, 1998, “Euskalkiak, gaur”, *FLV* 78, 191-233.

___, 2003, *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*, Elkar: Donostia. ___, 2008, *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*, Elkar: Donostia.

8. Eranskina

8.1 Taulak

8.1.1 Autoreak

- Hitza, lema, adiera, zein autoretan agertzen den, autoreekin loturiko informazioa

8.1.2 Dialektoak

- Hitza, zein dialektotan agertzen den, dialektoei buruzko informazio osagarria, gerpenak hego-nafarreran, hego-nafarrerari buruzko informazio osagarria.

8.1.3 Informazio osagarria

- 8.1.3 Mota, kategoria, ondare zaharra, eratorria, konposatua, mailegu zaharra, mailegu berria.

8.2 dokumentu gehigarriak

8.1 Taulak

8.1.1 Autoreak

Hitza	Lema	Adiera	Lar	Mb	Cb	Ax	Autoreak+
abantalla	abantaila	ventaja	✓			✓	Lar abaintailla
abarrikatu	abarrakitu	romper, hacer pedazos	✓				Lar abarrakitu
abeldun	abeldun	jinete					
abendu	abendu	diciembre	✓	✓	✓	✓	
aberats	aberats	rico, acaudalado, valioso	✓	✓	✓	✓	
abisu	abisu	consejo, advertencia	✓		✓	✓	
aborrezitu	aborrezitu	aborrecer			✓		
abrastu	aberastu	enriquecerse					
abrats	aberats						Lç abrats
abre	abere	Mamifero mayor doméstico	✓			✓	
abuin	hagun	saliva; jugo, sustancia de la boca	✓			✓	
adiarazi 1	adierazi 3	Comunicar, hacer saber	✓				
adiarazi 2	adierazi 4	Simbolizar	✓				Mb "adirazi"
adin	adin	edad	✓	✓		✓	
adiña	adina	tanto como	✓	✓	✓		
adiskide	adiskide	amigo	✓	✓	✓	✓	
aditu	aditu	oir	✓	✓	✓	✓	
admirable	-	admirable		✓			
admiratu	admiratu	1. asombrarse; 3. causar admiración a alguien	✓		✓		
admirazio	admirazio	admiración			✓		
admiti	admititu	admitir					
adoratu	adoratu	adorar	✓	✓		✓	
adorazio	adorazio	adoración			✓		

adrendu artu	adrendu	entender				
afekto	afekto	afecto, deseo			✓	
aflikzio	aflikzio	aflicción				
ageri	ageri	descubierto	✓	✓		
agerri	ageri	manifiesto, al descubierto	✓			
agertu	agertu	aparecer	✓	✓	✓	✓
agertu-nai	agertu	Amigo de exhibirse				
agian	agian	quizás	✓	✓	✓	✓
agitu	agitu	acontecer, suceder, ocurrir			✓	
agitz	hagitz	mucho	✓	✓	✓	✓
agoz, agoztto	2- ahotz	paja			✓	
agoztegi	ahoztegi	pajar	✓	✓		
agrabio	agrabio	agravio			✓	
agur	agur	kaixo	✓	✓	✓	✓
aialdeko	aialdeko	amigo, compañero				
aide	ahaide	pariente	✓	✓	✓	✓
aien	aihen	vid, cepa, tronco de la vid	✓			
aiko	ahaiko	Parentela				Lar ahaiko
aitzur	aitzur	azada				
ain	hain	tan	✓	✓	✓	✓ Cb "añ", Ax "hain"
ainberze	hainbeste	tanto				✓ Ax: hainbertze
aingira	aingira	anguila	✓			
aingiru	aingeru	ángel				✓ Lar, Mb, Cb: aingeru
ainkuri	ainkuri	Quejido				
aintzu	antzo	a modo de, en calidad de				
aintzura	aintzura	imagen, figura			✓	
aiots	aiots	Gemido				
aipatu	aipatu	mencionar	✓	✓		✓ Ax -ph-
aisatu	aisatu	Aligerar, facilitar	✓			
aisura	aisura	comodidad, facilidad				

aita	aita	padre	✓	✓	✓	✓	
aitu	aditu	oir, escuchar					
aixkide	adiskide	amigo/a					
aixtean	arestian	hace un momento					
aizera	haizera	la aventadura del grano					
aizeratu	haizeratu	aventar					Ondoren Txomin Agirrek
aizineko	aitzineko	antepasado	✓	✓		✓	
ajaja	ajaja	carcajada					
ajent	ajent	diligente, solícito					
ajola	axola	cuidado, preocupación	✓	✓	✓		
akabantza	akabantza	fin, término	✓			✓	Ax -kh-
akabatu	akabatu	matar	✓	✓	✓	✓	
akaitu	akitu	cansarse, fatigarse					
akar	ahakar	Reproche, reprimenda, bronca (akar egin: echar la bronca)					
aker	aker	macho cabrío, choto	✓				
akomodatu	akomodatu	acomodar	✓		✓		
akorritu	akorritu	Volver en sí					
ala	hala	así	✓	✓	✓	✓	
alabañare	alabaina	ciertamente					
alaber	halaber	así mismo, igualmente	✓			✓	
alaere	hala ere	sin embargo, a pesar de todo	✓	✓			
alako	halako	tal como aquello	✓	✓	✓	✓	
alakorik ala	halako	sin más ni más					Larrekok erabilia
ala nola	hala nola	tal como	✓		✓		
alas edo olas	halaz	de una manero o de otra					
albas	albaz	a ser posible		✓			Mb -z
aldaka	aldaka	al lado de	✓	✓		✓	Lar < Ax
aldarazi	aldarazi	hacer cambiar					
aldare	aldare	altar	✓	✓	✓	✓	

aldarte 1	aldarte	humor	✓			
aldarte 2	aldarte	situación cambiante, vicisitud	✓	✓	✓	✓
aldatu	aldatu	cambiar	✓	✓	✓	✓
aldatze	aldatze	cambiar	✓	✓	✓	✓
alde 1	alde	lado	✓	✓	✓	✓
alde 2	II. alde	a favor	✓	✓	✓	✓
alderat	alde	hacia		✓		✓
aldian	aldi	cada vez		✓	✓	
aldioro	aldi	todas las veces, cada vez que		✓		
aldiri	aldiri	comarca, alrededores de una ciudad	✓	✓		
ale	ale	grano	✓	✓	✓	
alegranzia	alegranzia	alegría				✓
alegratu	alegratu	alegrarse	✓		✓	✓
alegria	alegria	alegria	✓		✓	
alesta	alezta	estropajo				
alfer gorri	alfer	holgazanería				
algo	2 algo	halago				
alibio	alibio	alivio			✓	
alík	ahalík	lo mas... posible	✓	✓		
alíkako	ahalík	lo más posible				
alíketa	harík eta	hasta que, en tanto que	✓			
alíkaizun	ahalíkaizun	verguenza				
alík	ahalík	recato, modestia, pudor	✓	✓		✓
alíkítz	alíkítz	Apero de labranza, podadera				
alójitu	alójitu	alojarse				
alókairu 1	alókairu 1	salario, sueldo				✓
alókairu 2	alókairu 2	alquiler	✓			
alókatu 1	alókatu 4	asalariado				
alókatu 2	alókatu 1	alquilar	✓			✓

Mb 'cambiar'

alegriantza

Lar alogeratua

alor	alor	Campo de cultivo	✓	✓			Ax -lh-
altsai	ahartzain	pastor					Lar -tz-
altxatu	altxatu	levantar	✓		✓	✓	Ax "aitxatu"
alzin	aitzin	parte delantera					Mb, Ax aitzin
alzinatu	aitzinatu	adelantar					
alzurtu	aitzurtu	cavar, trabajar la tierra					
ama	ama	madre	✓	✓	✓	✓	
amable	amable	amable, afectuoso					
amagarri	2 amagarri	digno de ser amado, amable	✓				
amalaur	hamalau	catorce	✓				
amarka	hamarka	por decenas					
amarrendu	hamarrendu	diezmar, pagar el diezmo	✓				
amatasun	amatasun	maternidad	✓				
amatu	amatu	amar	✓		✓		
amazale	amazale	amante, que ama, amador	✓		✓		
ameka	hamaika	once	✓				
amen	ahamen	bocado				✓	
amiña	amiña	abuela					
amirurgarren	hamairu	trece					
amistanza	amistantza	amistad					
amolsu	amultsu	afable, cariñoso					
amore	amore	amor	✓	✓	✓		
amorosgarri	amorosgarri	amoroso, digno de ser amado					
amoroso	amoroso	amoroso, cariñoso, afectuoso					
amoroste	amorostu	enamoramiento					Lar: amuruste
amorostu	amorostu	enamorarse					Ax amurustu
an	han	allá, allí	✓	✓	✓	✓	
anaia	anaia	hermano			✓	✓	
andi	handia	grande	✓	✓	✓	✓	
andik	han	de allí, de aquel lado	✓	✓	✓	✓	

an emenean	han	vacilando, oscilando				
an-emenka	han	por aqui y por allí				
angabetu	angabetu	desganado				
ango	han	de allí		✓	✓	✓
animale beltz	animale	ganado porcino				
animaletu	animaletu	embrutecerse				
anitz	anitz	mucho	✓	✓		✓ Ax (-nh-)
anparoan	anparo	bajo el amparo, protección	✓		✓	✓
ansiatu	antsiatu	ansiar, anhelar	✓		✓	
antxume	antxume	cabrito	✓			
antzarka	antzarka	jadeando				
antzu	antzu	estéril	✓			✓
anuntziazio	anuntziazio	anunciación				
aokada	ahokada	palabra despectiva, exageración				
apa	apa	beso	✓	✓	✓	
apal 1	apal 2	bajo de estatura				
		Empleado en las expresiones arrats, arratsalde... apal 'anochecer').				
